



LISK

- Long Island Serial Killer -

IBON LARRAZABAL

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

IBON LARRAZABAL

LISK

-Long Island Serial Killer-

I – LONG ISLAND

Ez zuen burua hautsi Long Island izena asmatu zuenak, uharte luze bat baita Long Island. 190 km-ko luzera dauka irlak, New York hiriko portutik hasita, mendebaldean, eta Montauk herriraino, irlaren ekialde muturrean. Zabaleraz ordea gehienez 32 km besterik ez du neurtzen.

New York estatuan dago Long Island eta Manhattan irlatik East River delakoak besterik ez du banatzen. Izan ere, New York hiriko bi distritu, Queens eta Brooklyn, Long Island uhartean daude, irlaren mendebaldeko muturrean. Hau dela eta, Long Island irla oso populatu bat dela ematen du, baina populazio osoaren bi heren distritu hauetan bizi dira, azaleraren seiren bat inguru baino besterik ez direnak. Hauen ekialdera, beste bi konderri daude Long Islanden, Nassau, Queensen parean, eta Suffolk, irlaren ekialdean. Azken hau da Long Islandeko konderri luzeena eta zabalena, eta populazio dentsitate txikiena daukana. Populazioak mendebaldeko konderrietako dentsitatea ez izateaz gain, haien aniztasuna ezta ere ez dauka: zuria da populazioaren %85a Suffolken eta katolikoa nagusiki. “zurien migrazioa” izeneko fenomenoak gertatu zen Suffolken 70 eta 80ko hamarkadetan, alegia, Manhattan eta Brooklyneko arraza zuriko biztanleak handik alde egin zuten kaleko krimenetatik ihes eta Suffolken amaitu zuten. Lau bazterretik hirutan itsasoak inguratua egonik eta muga bakarra izanik, Nassaurekin mendebaldean, konderri isolatuena, bakanena de Suffolk. Eta isolamendu eta bakantasun hauek kontatzera goazen gertakariak bultzatzen eta babesten lagundu zuten.

“Badia” izeneko eremu zingiratsu batzuk, irlez ziprztinduta daudenak, Long Islandeko orografiaren ezaugarri berezi bat dira. Batez ere Nassau eta Suffolk konderrien hegoaldean dauden Great South Bay, Oyster Bay eta Jamaica Bay izeneko zingira hauek, Ozeano Atlantikotik irla estu eta luze batzuez banatuta edo babestuta daude, “barrier island” izenekoak, dike edo kai-mutur natural batzuen antzekoak direnak.

Ekialdeko bi konderrietako lurzoruaren zati handiak gainera babestutako parke naturalak dira. Pinudi eskergak daude Suffolken, “Pine Barrens” izenekoak, jenderik gabeko ehunka kilometro koadro estaltzen dituztenak.

Atlantikora zabaltzen diren hondartza estu, luze eta bakartiak, eta uharteko baso zein parkeak, New York hiriko biztanleek eskura daukaten iheslekua dira, hiriko jendetza eta zurrunbilotik ihes egin eta naturan une batez murgildu nahi dutenean. Udan batez ere, guztiontzat ezaguna baita Manhattan irlako aberatsek Hamptons izeneko eskualdean uda igarotzea gustukoa dutela, bertan, Suffolk konderriko hegoekialdean, dauzkaten luxuzko etxebizitzetan. Baina Long Island irlatik irten gabe ere, Brooklynen bizi den edonorentzat, Nassau eta batez ere Suffolkeko hondartza amaiezinak eta etxerik nahiz jenderik gabeko baso zabalak, munduaren azkenaren antzeko zerbait dira, auto bidaia labur batera besterik ez dagoena.

Bero eta umelak dira udak Long Islanden, baina New York hirikoak baino askoz ere jasangarriagoak, eta hortaz udatiar ugari erakartzen dute. Neguak, osterak, hotzak dira, gordinak. Elurra urtero ikus daiteke, baina gainera, maiz, ekaitz bortitzak pairatzen dituzte, 30 eta 60 cm bitarteko elurteak dakartzatenak. Urakanak ere behin baino gehiagotan iritsi dira Long Islandera.

Negu garaian, berez bakarti diren eremu naturalak –“barrier island”-etako hondartzak, pinudi zabalak-, basamortu ilun eta oldarkor bihurtzen dira. Hondartzak ez dira helmuga, igarobidea baizik. Nork nahiko luke hondartzara joan Atlantikoko haize zakar izoztua pairatzeko? Eta basoak zeharkatzen dituzten errepideetan norbait sartuko balitz, bide okerra hartuta-edo, erraz galduta amaituko luke, zeharbide gehienek ez baitute inora eramaten, basoan barrena sartu eta bertan bukatu baizik.

Newyorktarren batek desagertu nahiko balu, hemen izango luke lekurik egokiena.

Edo norbait desagerrarazi nahiko balu.

Klima honek eta, batez ere, deskribatu dugun orografiak zeresan handia izango dute kontatzera goazen gertakizunetan. Kai-mutur irlen izaera bakartia, haien pasabide edo zubi natural itxura, inor gelditzen ez den leku bat izatea, eta hauen iparraldean dauden badien izaera zingiratsua, padurazko paisaia, begetazio itxi eta oldarkorrez estalitako padurak, kontatuko dugun istorioaren pertsonaia bat bihurtzen dute paisaia, gertatutako guztian eragin esanguratsua izan zuena.

Zeren, Long Island irla honetan, hamabost edo hogeitaz serieko hiltzaile bat aritu da, gutxienez hamar biktima eragin dituena, hamalau edo hamabost ere ez badira izan.

Eta oraindik ere ari da, agian, egun ez baita susmagarririk atxilotu edo salatu.

II – 1990-1996: JOEL RIFKIN ETA ROBERT SHULMAN

Serieko hiltzaile honek, oraindik aurpegi zein izen jakinik ez badauka ere, izengoitiak badauzka, bat baino gehiago; hari buruz eta haren krimenen ikerketari buruz asko idatzi baita azken urteotan eta nolabait deitu behar zitzaion. “Craigslisteko hiltzailea” bezala ezaguna da edo baita “Gilgo Beacheko hiltzailea” bezala, geroago jakingo ditugun arrazoiengatik, baina izengoiti hedatuena “LISK” da, Long Island Serial Killer esapidearen akronimoa.

Asko idatzi eta mintzatu da LISK eta bere krimenen inguruan, esan dugunez, bai idatzizko hedabideetan, bai telebistako erreportajetan edota Interneteko agerkari eta foroetan. Liburuak idatzi dira eta Netflix ahaltuaren eskutik ekoiztako film bat ere plazaratu da 2020an. Bada, LISKen hilketen inguruko errelato hauek guztiek, beti, 2010eko apirilaren 30eko gauean hasten dira, orduan Shannan Gilbert izeneko emakume gazte bat desagertu baitzen Long Islanden, eta honen bilaketak hiltzaile bakar baten biktima omen ziren hainbat gorpuren aurkikuntzara eramán baitzuen.

Baina ziurrenik, egun dakigunagatik, Shannan Gilbert bera ez zen LISKen biktima bat izan. Horrexegatik, haren heriotzaren kausa oraindik zehaztugabe dagoela ahaztu gabe, eta haren sendiaren eskaera eta aldarrikapenek beste biktimen aurkikuntzan eta LISK beraren azaleratzean izan zuten garrantzia aintzat hartuta ere, nahiago dugu Shannan Gilbert narrazioaren abiapuntu edo erdigune ez izatea.

Izan ere, LISKen krimenak 2010eko udaberri gau hura baino lehen hasi ziren. Nahiko lehenago. Hamabost urte lehenago, agian.

Baina garai hartan, 90 hamarkadaren bigarren erdian, Long Islandeko bizilagunek ezin zuten susmatu beraien artean serieko hiltzaile bat zeukatenik. Beste serieko hiltzaile bat, hobe esanda.

Geroago LISK izenarekin ezagutuko zena ez baitzen Long Islandeko lehen serieko hiltzailea.

Ezta bigarrena ere.

...

28 urte baino besterik ez zeuzkan Dave Rubinsteinek 1993an, baina bere arrakasta handieneko urteak joanak ziren ordurako. Laurogeiko hamarkadan, taldekide guztiak oraindik institutuan zeudela, “Reagan Youth” punk taldearen abeslari bezala nahikoa sona lortu zuen. Ez zuten mundu edo nazio mailako arrakastarik lortu, ezta dirurik irabazi, baina haien abestiak, haserrea eta umorea biltzen zituztenak, Reaganen eskuin muturreko politikekin oso kritikoak, entzutetsuak izan ziren musika alternatiboaren zirkuituan.

“Reagan Youth” 90ko hamarkadaren hasieran desegin zen. 1993an Rubinsteinek ez zeukan lanbiderik ezta diru sarrera finkorik, baina bere heroina adikziora lotuta jarraitzen zuen. Tiffany Bresciani bere neska lagunak mantentzen zuen bikotea –biak ziren heroina adiktuak-prostituzioan eta stripper bezala lan egiten.

New Yorkeko Allen kalean zeuden Dave eta Tiffany ekainaren 24an, bezeroren bat noiz agertuko zen zain, Mazda pick up bat haien alboan gelditu zenean. Ohiko bezero bat zela esan zion Tiffanyk Daveri eta bertan itxaroteko, hoge minutuan itzuliko zela.

Hoge minutu baino askoz denbora luzeagoa igaro zenean eta Tiffanyri zerbait gertatu behar izan zitzaioela sinetsita, poliziarengana jo zuen Davek eta desagerpena salatu.

Lau egun geroago, ekainaren 28an, estatuko errepide polizia auto batek atzeko matrikula ez zeraman Mazda pick up bat begiztatu zuen Long Islandeko South State autobidean. Segika hasi zitzaizkion eta gelditzeko keinuak egin, baina furgonetak aurrera jarraitu eta abiadura handitu zuen. Polizia autoak atzetik jarraitu zion eta 150 kilometro orduko abiadurak erdietsi zituzten. Furgonetak zutoin baten aurka talka egin zuenean amaitu zen pertsekuzioa.

Gidaria eskuak buru gainetik altxatuta irten zen autotik, atxilotuko zutela jakitun. Poliziak hurbildu zirenean, furgonetaren atzeko aldetik kiratsa zetorrela sumatu zuten, eta bertan begiratzean Tiffany Brescianiren gorpua aurkitu zuten, usteltzen.

(Ekainaren 30ean, Tiffanyren gorpua aurkitu eta bi egunetara, Dave Rubinsteinen ama hil zen, istripu ergel eta latz batean, haren senarrak (Daven aitak) gidatutako auto batek zapalduta. Hiru egun geroago, uztailaren 3an, Dave Rubinsteinek bere buruaz beste egin zuen heroina gaindosi bat hartuta.)

Joel Rifkin zen hiltzailea, 31 urteko arotz bat, Nassau konderriko East Meadow herrian bizi zena, bere ama alargun eta arreba gaztearekin. Behin polizia etxean, arratsalde hartan bertan, hamazazpi hilketa aitortu zituen Rifkinek. Prostituzioan lan egiten zuten emakume gazteak ziren bere biktima guztiak. Kalean bere autoan jasotzen zituen eta haiekin sexu harremanak izan ondoren itoazten zituen. Gero, eskuak edo besoak mozten zizkien, identifikazioa eragozteko, eta gorpuzkiak leku ezberdinetan sakabanatzen zituen. Hainbeste ezkututzen zituen, ezen hark aitortutako hilketa batzuen biktimak ez diren inoiz aurkitu; eta bere lehen biktima, nahiz eta gorpuzkiak aurkituta eta identifikatuta egon, ez zen jakin Rifkinek aitortutako biktima bat zenik 2013ra arte.

Bederatzi hilketengatik kondenatu zuten Joel Rifkin –nahiz eta berak 17 aitortu-, 203 urtetik bizitza osorainoko kartzela zigor batera.

Agian Joel Rifkin izan zen Long Islandeko lehenbiziko serieko hiltzailea eta, horrenbestez, berak eramane beharko luke LISK izena, baina haren izena, aurpegia eta bestelako nondik norakoak mundu guztiarentzat ezagunak bihurtu ziren unetik, ez zen izengoitirik behar haren krimen lazgarriei buruz hitz egiteko.

...

Rifkin kartzelan zegoela jada, 1994ko abenduan, Nassau konderriko herrilan langile batzuek berri zegoen zaborrontzi bat topatu zuten errepide ertzean jausita. Bertara hurbiltzean emakume baten gorpua aurkitu zuten haren barruan. Plastikozko poltsez estalita zegoen gorpua eta burua eskuohial zuri batez. Aurpegi zein buruan kolpe bortitzen aztarnak zeuzkan, heriotza eragin omen ziotenak; ezkerreko hanka belaunetik gora moztuta zeukan eta bi besoak ere ebaki

zizkioten. Tatuaje bat zeukan ezkerreko besoan, bihotz bat eta “Adrian” hitzarekin, baina ezaugarri nabari honen bidez ezta ere ez zuten inoiz identifikatu.

1995ko apirilean Brooklyneko birziklatze lantegi bateko langileek beste emakume baten gorpua aurkitu zuten, aurpegian kolpe itzelak erakusten zituena hau ere; hankak falta zitzaizkion eta besoak moztuta zeuzkan. Tatuaje txiki bat ere bazeukan eta Lisa Anne Warner zela identifikatu zuten.

Urte bereko abenduan, Suffolk konderriko Melville herriko gizon batek loteria txartel bat galdu zuela konturatu zen eta, zaborrarekin batera bota ez ote zuen beldur, zaborrontzian bilatzen hasi zen. Emakume baten gorpua topatu zuen, lo zaku berri baten barruan. Aurpegia kolpez desitxuratua hau ere. Eskuak moztu zizkioten identifikatua izan ez zedin, baina bularrean “Melani” zioen tatuaje bat zeukan.

Suffolkeko poliziek, anonimoki jasotako aztarna bati segika, azken biktima hau Kelly Sue Bunting izeneko prostituta bat zela jakin zuten, Queensko Jamaica Boulevardean lan egiten zuena. Haren lankideek esan zietenagatik, gizon zuri batek gidatzen zuen Cadillac urdin batera igotzen ikusi zuten “Melani” azken aldiz. Are gehiago, Cadillac urdineko gizona ohiko bezeroa zela azaldu zieten prostitutek poliziei, Hicksville herriko etxe batera eramaten zituena prostitutak eta haiekin crack erretzen zuena sexu harremanak izan baino lehen. Etxeraino bertaraino gidatu zuten prostitutek polizia eta etxe aurrean, jakina, Cadillac urdina zegoen.

Bitartean gorpua biltzen zuen lo zakua Sears dendan soilik saltzen zela jakin zuten ikertzaileek eta, bertan galdeginez, Cadillacaren jabeak ez zeukala kreditu txartelik esan zieten baina helbide berean bizi zen haren anaiak bai.

Anaia bien argazkiak atera eta lekukoei erakutsiz, guztiek Robert Shulman –autoaren jabearen anaia- identifikatu zuten Cadillac urdineko susmagarria bezala.

Suffolkeko poliziak 1996ko apirilean atxilotu zuten 42 urteko Robert Shulman, postari bezala lan egiten zuena. Polizia etxean Shulmanek hiru emakumeak bere etxera eramane zituela aitortu zuen, haiekin crack erre zuela, horren ondorioz konortea galdu zuela eta esnatutakoan hilda aurkitu zituela. Hiru kasuetan gauza bera.

Lehenengo bi hilketengatik bizitza osorako kartzela zigorra ezarri zioten Shulmani 1999an; baina azkenekoagatik heriotza zigorra ezarri zioten, Kelly Sue Bunting hil zuenean New Yorkeko estatuan heriotza zigorra berrezarria baitzegoen.

2000. urtean kartzelan zegoela, heriotzaren korridorean, beste bi emakumeren hilketa aitortu zuen Shulmanek: Lori Vasquez izenekoarena, 1991ko abuztuan, bere lehen biktima izan zena, eta sekula identifikatu ez zuten beste batena 1992ko ekainean.

Shulman ez zuten exekutatu, heriotza zigorra legez kanpokoa jo baitzuen New Yorkeko Auzitegi Gorenak 2004an, baina 2006an kartzelan hil zen.

...

Bi serieko hiltzaile Long Island uhartean, 21 hilketa aitortu sei urteko epean. Prostituzioan aritzen ziren neska gazteak guztiak.

Baina bi serieko hiltzaile haien atxiloketen ondoren ere gorpuak eta gorpuzkiak agertzen jarraitu zuten Long Islandeko hondartza eta basoetan. Izenik gabe haietako asko, haien hiltzailea bezala.

III – 1996-2003: PEACHES, CHERRIES ETA BESTE JANE DOE BATZUK

1996ko apirilaren 20a zen, Robert Shulman bi aste lehenago soilik atxilotu zuten, bikote bat Blue Point hondartzan paseatzen zebilen, Fire irlan, Long Island hegoaldeko barrier island izenekoen artean ezagunenean, itsasoak hondartzara jaurtitako zabor poltsa bat aurkitu zutenean. Haren barnean bi hanka zeuden.

Emakume zuri batenak ziren, 18 eta 50 urte artekoa –ezin zen gehiago zehaztu hain aztarna gutxirekin-, behatz guztietan laka gorriren aztarnak zeuzkan eta ezkerreko orkatilan ebakuntza baten orbaina. Haren pisua, altuera, ile eta begien kolorea... ezin asmatu.

Biktima ez zuten identifikatu eta Fire Islandeko Jane Doe bezala ezagutzen da –Jane Doe identifikatu gabeko emakumezkoen gorpuak izendatzeko erabili ohi den izena da, gizonezkoen kasuan, John Doe da erabiltzen dena-.

Biktimen gorpuak zatikatzea eta gorpuzkiak sakabanatzea, bai Joel Rifkinen eta bai Robert Shulmanen modus operandirekin bat zetorren. Rifkinek aitortu baina identifikatu ez ziren biktimetako bat ote zen Fire Islandeko Jane Doe? Edo Shulmanek aitortu gabeko biktima bat ote zen? Edo serieko hiltzaile bi haien urratsak jarraitzen zituen besteren bat ote zegoen Long Islanden?

...

Long Island mendebaldeko konderrietatik irten gabe, Nassau konderriko Hempstead Lake estatu parkean, 1997ko ekainean, semearekin paseatzen zebilen gizon batek beste aurkikuntza beldurgarri bat egin zuen. Bide bazterrean zegoen zaborrontzi berde batean arraza beltzeko emakume baten gorpuzkiak topatu zituzten aita-semeak. Gorputz enborra, besoak, burua eta hankak -belaunetatik behera moztuta- zeuden zaborrontzian, eskuohial gorri bat eta lore irudidun kuxin batekin batera.

Ikerlariek esan zutenagatik, 16 eta 30 urte artean zeuzkan biktimak, zesarea baten orbaina sabelean eta ezkerreko bularrean bihotz itxuradun mertxika baten tatuajea. Hiru egun omen zeramatzan hilda aurkitu zutenean. Ez zuten identifikatzea lortu eta hortaz “Peaches” – mertxikak- izena jarri zioten, tatuajeagatik.

...

Long Island hegoaldeko hondartza luze eta estuak bakartiak badira, Suffolk konderriko pinudiak munduaren amaiera dirudite Manhattan edo Brooklyn bezalako hiri auzo jendetsuetan bizi direnentzat.

Halsey Manor errepidea pinudi hauetako nagusiaren mendebaldeko ertzean zehar doa, Central Pine Barrens izenekoa. Etxe gutxi daude haren inguruan, etxaldeak haietako batzuk baina kolonial estiloko jauregitxoren bat ere badago, zeinaren atzeko aldea baso itxira ematen duen.

Isila da guztia. Bizitza basatiaren hotsak baino besterik ez dira entzuten, eskola autobus baten motorra noizbehinka eta tiro-leku urrun baten zaratak.

1968tik erabiltzen ez den trenbide baten parean doa errepidea. Errepidearen desbideratze eskasek irtenbiderik gabeko bideetara daramatzate edo basoan barnerago. Trenbidearen paretik aldentzen dena, ezerezaren erdian edo galduta amai dezake, eta hau, bertakoek diotenagatik, maiz gertatzen da. Iluna eta beldurgarria gerta daiteke Halsey Manor bidea gauez, ingurua ezagutzen ez duen norbaitentzat. Eta basoan apur bat barneratuz gero, errepidea bera ere ez da ikusten.

New York hiritik datorren bati ez ezik Long Islandeko norbaiti ere, inork sekula begiratuko ez duen leku batean pentsatuz gero, inguru hauek datozkio burura.

Bada, Halsey Manor errepide honen inguruan, 2000. urteko azaroaren 19an, emakume baten gorpua aurkitu zuten, zatikatua eta plastikozko poltsetan sartua. Burua, eskuak eta eskuineko oina falta ziren gorpuzkien artean. Orkatilan tatuajeren bat edo identifikazioa erraztuko zuen bestelako ezaugarriren bat izan behar zuela susmatu zuen poliziak. 30 urte inguru izan behar zituen hildakoak, ile marroidea omen zen, eta hiru aste zeramatzan hilik aurkitu zutenean. Ez zuten une hartan hildakoa identifikatu, ezta handik gutxira ere. Ageriko hilketa baten biktima zen emakume hura identifikatu arte denbora luzea igaroko zen. Arras luzea.

Lau egun besterik ez ziren igaro aipatutako aurkikuntza ikaragarria gertatu zenetik, ehiztari talde batek Halsey Manor inguruko pinudietan gizonezko baten gorpua aurkitu zuenean. Hogeita piku urte izan behar zituen, latinoak zen eta ile beltzdua. Iduneko hezurak puskatuta zeuzkan, itoarazi zutela adierazten zuena.

2003an, udako larunbat goiz batez, Halsey Manor errepide honetan zehar txakurrarekin paseatzen zebilen emakume batek bidea utzi zuen, basoan sartzen zen bide bat hartzeko. Bide ertzeko belarren artean jendeak botatako zaborrak zeuden eta pilatutako egur zatiak baita. Egur pilo hauetako baten gainean, 2003ko uztailaren 26an, emakume hark eta haren txakurrak emakumezko baten gorpu biluzia aurkitu zuten. Burua eta eskuak falta zitzaizkion. Beste nonbait hil zuten emakumea eta gero bertan bota zuten bere gorpua.

Hilotzak bizkarraren eskuin aldean tatuaje bat zeukan, labanaz eragindako hainbat zauriek gurutzatuta. Denbora luzez saiatu omen zen norbait tatuajea ezabatzen. Forentsea azala berreraikitzen ahalegindu zen tatuajea zer ote zen asmatzeko. Azkenik bihotz gorri bat zela jakinarazi zuten, "Remy's Angel" hitzekin eta aingerutxo batekin ere.

Sei hilabete geroago, Washingtoneko polizia batek aurkitutako hilotzaren eta tatuajearen berri izan zuen, eta Jessica Taylor izeneko emakume baten desagerpenaren salaketarekin bat zetorrela jabetu zen.

New Yorkekoa zen Jessica eta Manhattaneko kaleetan prostituta bezala aritzen zen. Port Authority autobus geltokitik hurbil lan egiten ikusi zuten azken aldiz, haren hilotza aurkitu baino aste bat lehenago. Haren adiskide zen beste prostituta batek salatu zuen Jessicaren desagerpena.

Hiru hilabete geroago, 2003ko azaroaren 10ean, perretxiko bila zebilen sendi batek beste gizonezko zuri baten hilotza aurkitu zuten baso berean. Lau hilabete zeramatzala bertan esan zuen forentseak, eta 35 eta 50 urte artean zeuzkala hil zutenean.

Lau gorpu epe labur eta inguru murrizt batean. Laburregi eta murriztegi. Hiltzaile bakarraren biktima ote ziren guztiak edo Long Islandek hilotzak desagerrarazteko leku egokiaren sona hartua zuen?

Hori uste zuten inguruko bizilagunek: Suffolk konderriko basoak New Yorkeko mafiaren zabortegia bilakatu zirela. Hauen aurretik ere, aspaldidanik heriotza bortitzen biktima izandako gorpuak aurkitu zituztela inguruetan kontatzen zuten bizilagunek, eta haietako batek, esaterako, bala zauri sendatuak zeuzkala.

Edonola, lau hildakoen heriotzen artean harremanik ote zegoen jakin gabe ere, haien hilketen artean ezberdintasunak eta ezaugarri komunak zeudela agerikoa zen, eta Internet bidezko detektibe amateurren foroetan nabarmentzen zituzten: emakumezko biak mutilatuta aurkitu zituzten eta Long Island autobidearen iparraldean –Halsey Manor zeharkatzen duena zubibide baten bidez-; gizonezko biak, ordea, autobidearen hegoaldean eta osorik.

Litekeena zen gizonezko biak mafiaren edo bestelako gaizkile talderen baten biktimak izatea, baina emakumezkoen gorpuek bestelako hiltzaile baten biktima ziruditen. Are gehiago Jessica Taylor identifikatu zutenean eta bezero batekin desagertu zen prostituta bat zela jakin zenean.

Beste serieko hiltzaile bat, hirugarrena, ote zegoen Long Islanden? Berriz ere, bizilagunek ezetz uste zuten, bertako norbaitek leku hobeagorik ezagutuko lukeelako gorpu bat ezkutatzeko, baso barnean eta ez bide bazterrean etxebizitzetatik hain hurbil.

...

2007an James Dolan Cablevisionen, orduan EEBBtako telebista katerik garrantzitsuenetako bat zenaren, CEO zen, hots, exekutibo nagusia. Etxe bat eta lur alor bat zeuzkan Dolanek orduan Suffolken, bere hondartza propioa ere bazeukana, Oyster Bayn. Bada, Dolanen hondartza pribatu honetara, 2007ko martxoaren 28an, urak hanka bat eta oin bat bota zituen.

Egun bat lehenago, gorpu beraren beste hanka eta oina Suffolkeko Cold Spring portuan aurkitu ziren harrien artean. Biktimaren gorputz enborra, labankadaz josita, Mamaroneck hondartzan aurkitua zuten hilaren 3an, itsasoak hondartzara jaurtitako maleta baten barruan. Ikerlarien txostenaren arabera, emakume latino bat omen zen, edo azal argiko arraza beltzekoa, 1,75m altuera zeukan eta 90 edo 100 kg pisatzen zituen. Bi aste zeramatzan hilik aurkitu zutenean.

Datu gehiago jakinarazi zituen poliziak: alkandora gorri bat zeraman aldean, gaztelaniaz idatzitako etiketa bat zeukana, Champion markako jertse ubel bat, Voice markako elastiko bat eta bularretako urdin bat. Tatuaje bat zeukan honek ere, eskuineko bularrean, bi gerizena. Maleta barruan egutegi batetik hartutako paper zati urratuak aurkitu ziren, gaztelaniazko zenbakiak idatzita zeuzkatenak. Maleta bera, Wal-Mart-en soilik saltzen zen marka batekoa zen.

Baina datu hauekin guztiekin ere, ezin izan zuten biktima identifikatu. Orain arte aipatu ditugun hainbat biktimen kasuan bezala, honetan ere, nahiz eta biktimaren DNA eduki eta baita haren

hortzak edota atzamar aztarnak ere, ez zegoen zerekin erkatu. “Cherries” –gerizak- ezizenarekin ezagutzen dute oraindik ikertzaileek edo Mamaroneck-eko Jane Doe bezala.

...

Suffolk konderritik irten gabe, 2008ko ekainaren 27an, Newbridge errepidearen alboan beste emakume baten gorputz enborra aurkitu zuten, maleta baten barruan oraingoan ere. Kasu honetan gorpua identifikatu ahal izan zuten eskuak gorputzarekin batera aurkitu zirelako, eta hildakoaren hatz aztarnak poliziak erregistratuta zeuzkalako aurretiko atxiloketa batean. Tanya Rush zen hildakoa, 39 urte zituen, Brooklynen bizi zen eta hiru seme-alaba zeuzkan.

...

Jessica Taylor eta Tanya Rush, bi izen soilik, indarkeriaz hildako hainbeste hilotz izengaberen artean. Jessica eta Tanyaren senide eta adiskideek sekulako atsekabea jasoko zuten haien heriotzen berri jakin zutenean, baina behintzat haiei gertatu zitzaiena jakin zuten eta dolua igarotzeko aukera izan zuten. Eta beste guztiak zer? Nortzuk dira, nondik datoz? Haiek ere senitartekoak eta lagunak izango zituzten, zer gertatu zaien ez dakitenak. Peachesek zesarea baten orbaina zeukan, hortaz, seme edo alaba bat izan behar zuen bere amaren berririk ez zeukana. Zergatik izenik, aurpegirik, bizitzarik gabeko hainbeste hilotz?

Hasteko, hiltzaileek zantzuak nola ezabatu bazekiten. Eskuak eta burua moztea gorpu baten identifikazioa eragozteko modu bat da. Poliziak horrela ezin du bere erregistroetan hildakoaren hortz edo atzamar aztarnak kontsultatu.

Hildakoaren aurpegia, tatuaje berezi bat, arroparen bat edo identifikazioan lagun dezakeen bestelako daturik izanez gero ere, identifikazioa ez da errazten, aipatutako kasuek berresten duten bezala. Holakoetan lekuko hedabideetan albistea eta argazkiak plazaratzen dira, baina hildakoa ezagutzen duen norbaitek ikusi behar ditu eta kasualitate handiegia da hori. Long Islanden kasuan, esaterako, Brooklynen bizi den norbaitentzat Nassau edo Suffolk urrunegi daude nahiz eta minutu gutxiko auto bidaia bateko distantziara egon. Brooklyndar batez ez ditu sekula leku haietako albistegiak entzun edo ikusiko.

Gainera krimenen ikerketa eragozteko beste modu anker bat erakusten dute hiltzaile hauek: biktimen aukeraketa. Jessica Taylor prostituta bezala lan egiten ari zen desagertu zenean eta Tanya Rush ere noizbehinkako sexu langilea zela jakin zen. Joel Rifkin eta Robert Shulmanek sexu langileen artean aukeratu zituzten euren biktima anitzak, kalean lan egiten zutenen artean zehazki. Rifkinek berak onartu zuen prostitutak biktima egokiak zirela, jendartearengandik aldentuta bizi zirelako eta haien sendietatik ere. Senideei euren bizimodua ezkututzen diete, non dauden edo norekin maiz ez diote inori esaten. Rifkinen hitzetan, sei edo zazpi hilabetez desagertzen badira ere inork ez du haien falta sumatzen.

Ez hori bakarrik, norbaitek polizian sexu langile baten desagerpena salatu nahi badu, haien bizimodua eta ohiturak nolakoak diren jakinik, maiz poliziak eragozpenak jartzen ditu, bere borondatez desagertu dela, ezkutatuta edo ihesean dabilela ziurtzat emanaz. Aipatuko ditugun lekuko ugariaren ustean, poliziak, edo behintzat New York estatuko polizia agentziek, bigarren mailako hiritarrak balira bezala tratatzen ditu sexu langile bezala aritzen diren emakumeak.

Izan daiteke. Edo agian EEBBetako polizia agentziak uste duguna baino askoz traketsagoak eta zaharkituagoak dira, bereziki desagertutako pertsonen (guztien) identifikazioan.

Pelikuletan eta telesailetan ikusten dugunagatik, pentsa dezakegu EEBBetako edozein poliziak datu base eskerga bat eskura daukala, EEBBetako polizia agentzia guztien informazioa partekatzen duena. Mila bider ikusi dugu: polizia batek argazki bat edo hatz aztarna bat eskaneatzen du eta berehala, "poliziaren ordenagailu"-ko informazioarekin erkatuta, aztarnaren jabearen nondik norako guztien berri jasotzen du, xehetasun ñimiñoarekin ere. Bada, ez da horrela gertatzen benetako munduan. Izan ere, EEBBetan ez dago nortasun agiririk; poliziak ez dauka hiritar guztien hatz aztarnak, soilik atxilotu dituenenak.

Baina gainera EEBBetan, guztira, 17.000 polizia agentzia daude, eta ez dago guztiak gidatzen edo koordinatzen dituen zentral bat, bakoitzak bere eskumenak dauzka. Polizia departamentu bakoitzak lurralde jakin batean jurisdikzioa dauka eta bere datu base propioak dauzka, baina Internetek ez ditu guztiak partekatzen. Eta maiz ez dira elkarren artean gehiegi komunikatzen ere –aurrerago ikusiko dugunez-.

Identifikatu gabeko gorpu bat desagertutako pertsona batena dela jakiteko, EEBBetako polizia agentzia guztiek badaukate sistema bakar bat, baina honek ere bere akatsak eta arrakalak dauzka. Identifikazio prozesu honetan funtsezko agiri bi daude: alde batetik desagerpenaren salaketa, normalean desagertutako pertsonaren bizilekuko polizia etxean jartzen dena eta desagertutakoaren datuak jaso behar dituen, azken aldiz noiz eta non ikusi zuten, nola zihoan jantzita, nora zihoan esan bazuen eta antzekoak; bestetik, gorpua aurkitzen den lekuko forentseak egiten duen autopsia. Agiri bakoitza polizia agentzia ezberdin batek bete dezake, desagerpena eta aurkikuntza denboran eta espazioan oso aldentuta gerta daitezkeelako, baina National Crime Information Center (NCIC) izeneko datu basera sartu behar dira derrigor, polizia departamentu guztien eskura egon daitezen. Horrela, sistema bakar honek salaketa eta autopsia guztietako datuak erkatzen ditu eta izenik gabeko gorpuk desagertutako pertsonekin lotzen ditu.

Beti ere, informazioa behar bezala sartuta baldin badago.

Izan ere, NCIC sisteman informazioa eskuz sartzen da, eta zenbaki oker bat sartuz gero edo formatu oker batean, identifikazioa atzeratu edo erabat oztopatuko litzateke. Gorpuaren altuera edo pisua eta desagertutako pertsonarenak oso ezberdinak badira, edo desagerpenaren data gorpuaren aurkikuntzaren ostekoa agertzen bada sisteman, sekula ez dira elkarrekin lotuko. Edo urteak igaro daitezke akatsa argitu baino lehen, NCIC sistema lege indarrek kontsultatu dezaketelako soilik, ez da publikoa. Haren antzeko beste datu base bat dago, National Missing and Unidentified Persons System (NMUPS) izeneko, publikoa dena baina NCICek baino informazio gutxiago daukana.

Funtsezko agiri haietako bat falta bada -eta kaleetan lan egiten duten sexu langileen kasuan, esan dugunez, maiz haien desagerpena ez du inork salatzen- edo sistemako informazioak akatsen bat badauka, kasua "hotz" bihurtzen da, argitu gabe geratzen da. Urtetan. Edo betirako.

Eta ez da ezohiko ezer: 160.000 desagertu daude EEBBetan, eta 40.000 identifikatu gabeko gorpu.

IV – 2010EKO APIRILAREN 30A: SHANNAN GILBERT

Hilotzak eta gorpuzkiak azaleratzen ziren Long Islandeko hondartza eta basoetan, baina inork ez zuen serieko hiltzaile bati buruz hitz egiten.

Esan dugunez, LISK (Long Island Serial Killer) delakoari buruz hitz egiten duten kronika, erreportaje, liburu, dokumental eta film guztiek 2010eko apirilaren 30ean hasten dute istorioaren kondaira. Zer gertatu zen bada egun horretan?

Ostirala zen apirilaren 30a, zinemetan filmak estreinatzen diren eguna. “A Nightmare on Elm Street” filmaren bertsio berria estreinatzen zen ostiral hartan, 80eko hamarkadako pertsonaia ikonikoa zen Freddy Krueger hiltzailearen sarraskien eguneraketa. Bere marra beltz eta gorridun jertsea eta fedora kapela jantzita, aurpegiko azala erredura orbainez estalita, bere biktimak lo zeudenean ametsetan agertzen zitzairen Freddy eta labanak bezalako atzaparra metalikoekin burutzen zituen bere triskantzak.

Alex Diaz eta Shannan Gilbert bikote gazteak pelikula ikustera joatea erabaki zuen, baina ostiral arratsaldeko irteera benetan bikain bat igaro nahi zuten elkarrekin, euren gustuko bat, eta arau ganoragabe batzuek ez zieten izorratuko. Jatea gustatzen zitzairen Alex eta Shannani pelikula ikusten zuten bitartean, baina zinemetan ez zuten kanpoko janaririk sartzen uzten. Hala ere, Taco Bellen janari mexikarra erosi eta zineman ezkutatuta sartzea lortu zuten. Adituak ziren horrelakoetan. Janari pikantea eta beldurrezko pelikula bat, primerako plana.

Freddyren abentura berriak ikusten ari diren bitartean, Alex Diaz eta Shannan Gilbert bikote honi buruz apur bat mintzatuko gara.

28 urte zeuzkan orduan Alexek eta 23 Shannanek, eta Jersey Cityn bizi ziren. Hudson ibaia baino besterik ez dago Manhattan irla eta Jersey City artean, baina estatu ezberdinetan daude biak, eta alokairuak askoz merkeagoak dira Jersey Cityn Manhattanen baino.

Pensylvaniako Lancaster hirian jaioa zen Shannan eta lau ahizpetako nagusia zen: Sherre, 22 urtekoa, Sarra, 21ekoa, eta Stephanie, txikiena, Stevie izenarekin ezagutzen zutena eta 8 urte besterik ez zeuzkana orduan. Hiru ahizpa nagusiek euren ama Mariren abizena zeukaten, Gilbert, baina Stevie ordea bere aitarena zeukan, Smith. Bere hiru alaba nagusiak oraindik txikiak zirela, Marik haien aita utzi zuen eta bizilekuz aldatu zen, Ellenville herrira, New York estatuko iparraldera. Hiru alaba txiki berak bakarrik behar bezala zaintzeko arazoak izan zituen eta, azkenik, Shannan, zazpi urte zituenean, estatuaren babesean geratu zen eta harrerako etxeetan hazi zen.

Harrera etxeetan bizi zela nahasmendu bipolarra diagnostikatu zioten Shannani, baina, etxe hauetako ama batek esan zuenagatik, nerabezaroan nahasmendua artatzeko botikak hartzeari utzi zion. Garai berean berandura arte irteten hasi zen, alkohola edaten eta marihuana erretzen ere –bere adineko beste ia edozein gaztek bezala, esan beharra badago-. Edonola, neska azkarra eta adimentsua omen zen Shannan, institutuan bi maila ikasturte bakarrean bete baitzituen eta ohikoa baino urte bat lehenago graduatu zen. Abeslari edo kantugile izan nahi zuen, horretarako nahikoa talentu bazeukala maiz erakutsi baitzuen bideo eta grabaketetan. Eta amets horrekin

New Jerseyra joan zen, esan bezala, Manhattanetik gertu zegoen baina ordaintzeko moduko alokairuak zeuzkan helmuga batera. Itxuraz ere aldatu zuen eta bere ile iluna –zuria zuen ama Shannanek, eta aita beltza- ilehori tindatu zuen.

New Jersey, ordea, ametsak egun batetik bestera ez direla egia bihurtzen jakin zuen. Lanbide ugarian egin zuen proba, ile apaindegietan, arropa dendetan, zerbitzari bezala, baina haietako edozeinetan hilabete batean irabazten zuena egun bakarrean irabazteko aukera ematen zion lan bat aurkitu zuen: escort bezala lan egiten hasi zen, alegia, sexu langile bezala. 2007an, 21 urterekin, Lace Party Girls izeneko agentzian hasi zen lanean. Bertan Alex Diaz ezagutu zuen, auto gidari bezala lan egiten zuena agentzian. “Negozioan” aritzen zen emakume batekin sekula ez zela interesatuko uste zuen Alexek, baina Shannan ezagutu zuenean berehala konektatu zuten. Shannan pertsona ona zela jabetu zen. Auto gidariek agentziako neskak bezeroekin hitzartutako lekuetara eramaten zituzten, atean itxaron eta etxera bueltan eramaten zituzten. Lan honengatik 400 eta 800 dolar artean irabazten zituen Alexek egun bakarrean, eta behin 2.600 dolar irabazi omen zituen egun bateko lanagatik.

Shannanek ere beste hainbeste irabazten zuen eta diru isuri horrek bere sendiarekiko harremana hobetzen lagundu zion. Opariak egiten zizkien Shannanek bere ama eta ahizpei, eta gastu arruntak ordaintzen ere laguntzen zion, Ellenvilleko etxean diru sarrera egonkorrik ez baitzegoen eta gastuak, ordea, ez ziren gelditzen: Sherrek, 22 urterekin, seme bat zeukan jada eta berriz haurdun zegoen une hartan. Ostiral arratsalde hartan bertan bere ahizpa gaztearekin hitz egin zuen Shannanek haurdunaldiari buruz. Shannan sendi buru antzeko bat bihurtu zen eta bere ahizpa gazteentzat eredu baten modukoan. Dirua nola irabazten zuen ba al zekiten? Jakina baietz, Mari ez zen errealtatetik aldenduta bizi den etxekoandre inozo bat eta Sherrerekin modu irekian mintzatzen zen Shannan bere bizimoduari buruz.

Diru “errazak” bere ifrentzua zeukan, noski, lehenik eta behin legez kanpoko jarduera bat zela, baina ez zirudien horrek Shannan kezkatzen zuenik. Shannanek –aipatutako nahasmendu bipolarraz gain- elikadura nahasmenduren bat zeukan, bulimia ziurrenik, eta epe laburretan pisu asko galtzen zuen. Lanean drogak hartzen hasi zen ere, kokaina eta estasia, bezeroekin batera drogak hartzen bazituen diru gehiago lortzen zuelako. Eta abortuak izan zituen ere, bere egoeran seme-alabarik edukitzea ideia ona ez zela pentsatuz. Behin motel batean prostituzioan aritzeagatik atxilotu zuten eta, hortaz, aurrekari penalak zeuzkan. Lace Party Girls agentzia bera ere poliziak itxi zuen azkenean. Eta lanik gabe geratu ziren biak ala biak, Alex eta Shannan.

Alokairua ezin ordaindu eta Alexen aitaren etxera joan ziren bizitzera, Shannanek beste agentzia batzuetan lana bilatzen zuen bitartean. Diru faltak aurretik jada ezegonkorra zen harremana okertu zuen eta bien arteko liskarrak ugartu ziren. Horrelako batean, Shannan alkohol edota drogen eraginpean iritsi zen etxera, garrasika hasi zen eta Alex joka. Eta Alexek erantzun zuen. Gogorregi erantzun ere. Ukabilkada batez ezkerreko masail hezurra hautsi zion eta metalezko xafla batez konpondu behar izan zioten.

Agentziarik gabe eta auto gidari batekin batera bakarrik lan egitea erabaki zuen Shannanek, horrela diru sarrerak bi zatitan banatu beharko zituen soilik eta ez hirutan. Eta horretan zebilen azken sei hilabeteetan, jatorri korearreko Michael Pak izeneko gidari batekin, 41 urte zeuzkana eta Queensen bizi zena. Astean birritan adosten zituen hitzorduak bezeroekin, 200 edo 250 dolar orduko kobratzen zituen eta horietatik 50 gidariarentzat ziren. Bezeroak bilatzeko

iragarkiak argitaratzen zituen, bai Craigslist web orrian, edozein motako iragarkiak jasotzen dituen, edo baita backpage.com-en, sexu eskaintzetan bereiztua. Madison edo Angelina izengoitiak erabiltzen zituen iragarkietan, 21 urte zituela esaten zuen eta alemaniarra, frantziarra edo italiarra zela. Gezurrak hauek guztiak. Eta poliziari aztarna jarraitzea eragozte aldera, telefono zenbaki ezberdinak erabiltzen zituen, normalean aurretik ordaindutako erabilera murriztu bat zeukatenak, izenik eman gabe eros zitezkeenak eta behin erabiliak izan eta gero zaborrean bukatzen zutenak.

Horrela, nahiz eta Alex langabe egon, apartamentu berri bat zeukan bikoteak, beraientzat bakarrik, eta Shannanek hura atontzeko altzariak erosi ahal izan zituen eta plasma telebista bat ere.

Apartamentuaren alokairua, 1.100 dolarrekoa, biharamunean, maiatzaren lehenean, ordaindu beharra zegoen. Gainera, biharamunean ere, Mariren, Shannanen amaren urtebetetzea zen eta opari bat erosi beharko zion, nahiz eta Marik esan –omen- zion oparirik ez zuela espero baina bai Shannanekin egoteko aukera. (Hauxe kontatzen dute kasuaren inguruko erreportaje batzuek, baina beste informazio batzuetan data ez dator bat Mari Gilberten urtebetetzearekin. Edonola, bere ama eta ahizpekin afaltzeko hitzordua zeukan Shannanek maiatzaren baterako.) Hortaz, behin Freddy Kruegeren pelikula amaitu eta gero, apirilaren 30eko ostiral gau hartan Shannanek lana zeukan. Arratsaldetik bezero batekin hitzordu bat adostua zeukan. Praka bakero estuak, elastiko bat, larruzko jaka marroi bat eta sandalia beltzak jantzi zituen eta lanera abiatu zen, gauerdia inguruan. Ohikoa baino kolpe bortitzago batekin itxi zuela atea kontatuko zuen Alexek.

Ez zuen berriz ikusiko.

Pakek bere autoan jaso zuen Shannan eta honek bezeroaren helbidea luzatu zion, paper batean idatzi zuena arratsaldean. Autoaren GPSak esan zuenagatik, 80 kilometrora zegoen gutxi gorabehera, Long Islanden, Suffolk hegoaldean, Oak Beach izeneko urbanizazio hesitu batean.

Paken Ford Explorer grisak mendebalderantz jo zuen, Hudson ibaiko zubia gurutzatu, Manhattan hegoaldea zeharkatu eta, Brooklyneko zubian zehar, Long Islanden sartu zen. Brooklyn igaro zuen, Queens ere, eta Nassau konderrira iritsita, Suffolkeko muga baino lehen, laurogeita hamar gradu bihurgune bat hartu zuen hegoalderantz, “barrier islands” izeneko irletarantz. Behin Long Islandeko hegoaldera helduta, Jones Beach estatu parkea eskumatara utzi eta ezkerretarako bidea hartu zuen, ekialderantz, Jones Beach izeneko “barrier island”-a mutur batetik bestera zeharkatzen zuen Ocean Parkway autobidera. Ilun zegoen, baina argirik egon balitz ere inguruak ez luke ezer ikusgarri edo esanguratsurik. 23 km-ko bide luze eta estu bat besterik ez da irla hura. Autoak zeraman norabidean, ezkerretara (barrier islandeko iparraldean) Oyster Bayko padurak, ur landarez beteriko paisaia baino besterik ez zegoen, eta eskumatara (hegoaldean) hondartzetako dunak. Argia balego Pakek eta Shannanek ez lukete errepide alboko txilar eta sasiak baino besterik ikusiko, eta Atlantikoko olatuak beste aldean. Baina ilun zegoen eta iluntasunezko 23 kilometrok inguratzen zituzten, tunel batean bezala. Kontrako norabidean zetozen autoen argiak kilometrotara ikus zitezkeen. Bakardadea suma zitezkeen. Bide horretan zihoazela, Shannan eta Pak irlako sekretu ezezagunenetako baten albotik igaro ziren, Gilgo Beach izeneko hondartzatik. Hondartza luzea tea bakartia zen Gilgo,

iraganean surf zaleen helmuga kuttuna izandakoa, baina higadurak olatuak hondatu zituenetik aditu gutxi batzuek besterik bisitatzeko ez zutena.

Ocean Parkway zehar aurrera zihoazen eta Fire Islandeko –segidan dagoen beste barrier island bat da Fire Island- irteerara iritsi baino lehen GPSak saihebidetako bat hartu behar zuela adierazi zion Pak gidariari. Irteerako kartelak “Ocean Parkway” zioen. Argirik gabeko saihebidetako aurrera zihoazela, eskumatara argiak piztuta zeuzkan etxe bat ikusi zuten, bezeroarena izan behar zuena, The Fairway kaleko 8a, baina urbanizazioko sarrera aurrerago omen zegoen. Oak Beach hesitutako urbanizazio bat zen eta, beraz, sarrera itxita zegoen. Gako bat behar zen sarrera zabaltzeko, baina Shannanen bezeroak, Joseph Brewerek, ez zien gakoa eman, iritsitakoan deitzeko esan zien eta berak zabalduko ziela atea. Halaxe egin zuen. Ford Explorer grisa urbanizazioan sartu eta Brewerren autoaren atzetik, eskumatara birritan eginik, haren etxeraino iritsi ziren, urbanizaziora hurbiltzerakoan argiak piztuta ikusi zutena, The Fairway kaleko 8a. Shannan Joseph Brewerekin etxera sartu zen eta Michael Pak haren zain geratu zen, etxe aurrean auto barruan. Goizeko ordu biak inguru ziren.

Handik aurrera etxe barruan gertatutakoa ez dago argi, baina lekukoek adierazpenetan eta telefono deien erregistroetan oinarrituz kontatzen saiatuko gara.

Hasteko, beste norbait ba al zegoen etxe barruan Brewer eta Shannanek gain? Brewerren bizilagunek kontatuko zutenagatik haren etxean ohikoak ziren festak eta horrenbestez ez litzateke arraroa izango gau hartan ere ospakizun jendetsu bat egon izana. Baina Pakek etxean beste inor ikusi ez zuela berretsiko zuen.

Etxe barruan gertatutakoaz, Joseph Brewerek adieraziko zuen sexu harremanak izateko asmoarekin adostu zuela Shannanekin hitzordua, baina azkenean ez zutela sexu harremanik izan. Shannan ikusi zuenean aurretik ikusitako argazkietan agertzen zen neska ez zela iruditu zitzaion eta ziria sartu nahi ziola. Are gehiago, beste adierazpen batzuetan Shannan transexuala zela uste zuela esango zuen Brewerek, eta horregatik ez zuela harekin sexu harremanik izan nahi. Brewerek esan zuenagatik, Shannanek galdetu zion ea noizbait transexual batekin topo egin ote zuen escort bat kontratatutakoan; eta galdera honek tukua eragin zion Brewerri. Hau egia balitz, agian, Brewerek Shannani agindutakoa ordaintzeari uko egin zion eta bien arteko liskar bat piztu bide zen. Baina Shannan ezagutzen zuten guztiek horrelako zalantzaren bat txorakeria hutsa dela diote, Shannanek ez baitzeukan transexual itxurarik. Azalpen sinesgarriena zera litzateke: Brewer bere izena eta irudia nolabait “garbitzen” saiatzen aritzea, hedabideetan prostitutak kontratatzeagatik ezaguna bihurtu ondoren. Agian asmo berarekin ere, Shannan sare sozialen bidez ezagutu zuela esan zuen, eta ez Craigslist edo backpage bidez, horrek hitzarmenaren gordintasuna leunduko balu bezala. Brewerren azalpen edo aitzakia hauek guztiak ez dira sinesgarriak, ez baitatoz bat Shannanek etxe hartan ia hiru ordu pasatu izanarekin.

Autoan itxaroten zegoen bitartean, Shannanen dei bat jaso zuela esan zuen Pakek. Lubrifikatzaile eta karta-sorta baten bila joateko eskatu omen zion Shannanek eta Pakek ezetz erantzun zion, oso ilun baitzegoen eta ez baitzuen ingurunea ondo ezagutzen. Asko haserretu omen zen Shannan, joan zedila esan zion, berak bakarrik etxera nola itzuli asmatuko zuela eta deia moztu zuen. Ondoren, Brewer eta Shannan etxetik ateratzen ikusi zituen Pakek, Brewerren autoan igo eta urbanizaziotik irten ziren. Laster itzuli ziren. Telefonoen erregistroek diotenagatik, 2:55ean Shannanek 24 orduko zerbitzua zeukan parafarmazia batera deitu zuen, eta 2:57etatik

4:09etara bitartean, Shannan eta Paken artean sei dei labur egon ziren, norabide batean edo bestean. Lubrifikante eta kartak bila soilik irten ziren Shannan eta Brewer? Droga bila joan ote ziren?

Apur bat beranduago Brewerek Paki deitu zion etxean sar zedin, Shannan etxetik ateratzen laguntzeko. Brewerek esan zuen Shannan modu arraroan portatzen hasi zela, ziurrenik gauzak ez zirelako hark espero bezala joan, eta ez zuela etxetik irten nahi –hitzartutakoa ez zion ordaindu nahi Brewerek ala?-. Hirurak etxe barruan zeudela, unerren batean Shannan besotik heldu zuen Brewerek, baina hau askatu egin zen eta sofa baten atzean babestu. Handik, goizeko 4:51n, 911 larrialdi zenbakira dei egin zuen, 23 minutu iraungo zituen dei bat.

Dei honen edukia ez da plazaratu ordutik igaro diren hamar urteetan, eta soilik 2020. urtean badirudi epaile batek eduki hori argitaratzeko agindua eman duela Gilbert sendiaren abokatuaren eskaera aintzat hartuz. Suffolk konderriko eta New York estatuko polizien politika dela 911 zenbakira egindako deien edukia ez plazaratzea argudiatu dute beti bai poliziak eta baita fiskaltzak, krimenen ikerketak ez eragozteko, susmagarriei zantzuak ez emateko edo aztarna faltsuak ez sustatzeko. Edonola, erabaki honek mota guztietako susmoak eragin ditu kasuan interesa duen jendearen artean, bai Shannanen senideen artean eta baita kasua jarraitzen duten Interneteko foroetan ere: Ezer susmagarririk ez bada entzuten deian, poliziak esango zuen bezala, orduan, zer arazo legoke edukia kaleratzean eta susmoak behin betiko aldentzean? Ez al dira polizia eta fiskaltza zerbait estaltzen ariko?

Idazten ari garen unean deiaren edukia ez dugu ezagutzen, eta hura entzun dutenek esan dutena baino besterik ez dakigu. Suffolkeko poliziako detektibe batek, Vincen Stephane izenekoak, idatziz deklaratu zuen lasaia zela Shannanen tonua deian. Ostera, garai hartan Suffolkeko poliziaren komisarioa zen Richard Dormerek prentsaurreko eta elkarrizketa askotan errepikatu du Shannan oso urduri eta ikaratuta dagoela igartzen dela deian entzuten denagatik. Orduan detektibeen nagusia zen Dominick Varronek ere deia entzun zuen eta haren edukiari buruzko xehetasun gehiago eman ditu: Shannanek, deian esaten duenagatik eta esaten duen moduagatik, arriskuan dagoela benetan sinesten du. “Nire atzetik dabilta” eta “ni hil nahian dabilta” errepikatzen du behin eta berriz, besterik gabe. Operadoreak “non zaude” galdetzen dio, baina Shannanek ez dio erantzuten eta “nor bait nire atzetik dabil” errepikatzen du. Ez du modu koherente edo arrazional batean jokutzen. Egoera psikotiko edo drogek eragindako lilura batean dagoela ematen du.

“Non zaude” dio berriz operadoreak, baina Shannanek ez daki erantzuten. “Jones Beachen” erantzuten du, agian bidean gehien ikusi duen izena eta hizki handienetan, baina ez daki beste konderririk batean dagoela.

Bi gizona zirela ahotsak ere entzuten direla deian kontatu zuen Varronek, Joseph Brewer bezeroarena eta Michael Pak gidariarena. Biek ala biek haxe berretsi dute, beraiek ere deia entzuteko aukera izan baitzuten. Shannanek lilurak edo haluzinazioak zeuzkala esan zuen Pakek. “Zer diozu? Nork nahi zaitu hil? Zergatik diozu hil nahi zaituztela?”, galdetzen dio Pakek, baina Shannanek ez du erantzuten. Momenturen batean haietako batek Shannan ukitzen du, edo hurbiltzen zaio besterik gabe, eta honek garrasi egiten du.

Halako batean, deia oraindik moztu gabe, gizonezkoengandik aldendu nahian edo, Shannan The Fairway kaleko 8.etik irten zen korrika.

Pak atzetik joan zitzaion eta Brewerek etxeko atea itxi zuen, biak autora igo eta etxera itzuliko zirela sinetsita.

Pak autora itzuli zen eta bertatik Shannan korrika ihes egiten ikusi zuen. Shannan ez zela sekula autora berriz igo esango zuen Pakek.

Lasterka gau ilunean joan zen Shannan. Hasiera batean The Fairway kalean zehar ekialderantz jo zuen, autoarekin sartzean egin zuen bidea desegiten bezala. Argiak ikusi zituen etxe batean gelditu zen. Gus Coletti izeneko aseguru detektibe erretiratu baten etxea zen. Auto erakusketa bat ikustera joango ziren Coletti senar-emazteak larunbat hartan eta horregatik goizeko bostetan jada jaikita zeuden. Shannanek lehenengo solairuan zegoen etxeko sarreraraino igo zen eta ate joka hasi zen. 911 zenbakira egindako deia moztu gabe oraindik.

Une hartan bizarra egiten ari zen Gus Colettik atea ireki zion eta “lagundu, lagundu!” baino besterik ez zion esaten Shannanek. Hau guztia 911ra eginiko deian entzuten omen da. Lasaitzeko eta esertzeko esan zion Colettik eta, etxeko telefono finkotik, 911ra deitu zuen berak ere. Poliziari deitu ziola esan zionean, Shannanek etxetik alde egin zuela dio Colettik.

Haren atzetik irten zen gau ilunera eta SUV auto gris ilun bat hurbiltzen ikusi zuen, asiar jatorriko gizon batek gidatua.

-Emakume bat ikusi al duzu hemendik? –galdetu zion Pak gidariak.

-Bai, nire etxeko atea jo du laguntza eske eta alde egin du. Poliziari deitu diot –erantzun zion Colettik.

-Ez zenuen hori egin behar izan. Arazo larritan sartuko duzu.

Une hartan Shannan bere orubean zegoen txalupa baten azpian ezkutatuta zegoela ohartu zen Coletti, baina handik irten eta ihesaldia jarraitu zuen. Pakek ere bertsio bera berretsi zuen, Colettirekin izandako elkarriketa, Shannan topatzea, eta autoan sartzea lortuko zuela uste zuela, baina, Colettik esaten zionari adi zegoen bitartean, bere albotik ihesi igaro zitzaiola Shannan ere.

The Fairway eta Sandy Drive kaleen arteko bidegurutzean zegoen Colettiren etxea. Gau ilunean ikusi ezin bazuen ere, Shannanek Sandy Driven ezkerretarako bidea hartuko zuela suposatuz zuen Pakek, urbanizazioko sarrerarantz, bidea desegiten jarraituz, eta harantz jo zuen bertan bere zain aurkituko zuela suposatuz. Izan ere, eskumatara bide gehiagorik zegoenik ere ez zen jabetu. Baina ez, Shannanek eskumatarako bidea hartu zuen, eta aurrerago Anchor Way kalean ere bira egin zuen, urbanizazioan gehiago barneratuz, argidun etxe gehiagoren bila.

Oak Beacheko Anchor Way kaleko bizilaguna zen Barbara Brennan andreak irailaren 11ko erasoetan senarra galdu zuen, eta ordutik kandela itxurako argiak piztuta zeuzkan beti bere etxeko leihoetan, beila moduan. Haiek ikusita, Brennan andrearen etxera jo zuen Shannanek eta ate joka hasi. Brennan andreak, Colettik ez bezala, ez zion atea zabaldu Shannani, baina bi

telefono dei egin zituen, Shannanen nondik norakoen azken lekukotza direnak: bata poliziar, goizeko 5:22tan, eta bestea Tom Canning izeneko bere auzokide bati.

Canning, erretiratutako lorezain bat, bere semearekin eta txakurrarekin agertu zen Brennan andrearen etxean, baina iritsi zenerako jada ez zuten inor ikusi inguruan. Hori bai, Brennan andrearen orubean Shannanen jaka aurkitu zuten. Canningen semeak neskaren urratsen aztarnak ere ikusi zituztela esango zuen. Bere aitak, ordea, halakorik ez zutela ikusi esango zuen, baina aldi berean Shannanek "padurarantz ihes egin zuela" suposatzen zuela. Aztarnarik ikusi gabe? (Oak Beach urbanizazio osoaren iparraldean, eta Ocean Parkway autobideraino, hainbat kilometro koadroko padura bat dago, begetazio itxiz, kainaberaz eta bihieztaliala.)

Minutu gutxi batzuk lehenago Shannanek 911ra egindako deia moztu egin zen eta haren arrastoa galdu zen. Gau ilunean barrena korrika murgildu zen Shannan.

Coletti jauna, bitartean, urbanizazioko sarreraraino hurbildu zen poliziar itzaroteko. 45 minuturen buruan iritsi zen polizia, goizeko seiak inguruan, eguna argitzen hasten ari zenean. Gertatutakoa jakinda, Oak Beacheko kaleetatik bilatu zuen poliziak Shannan, baina ez zuten inor aurkitu ezta ezer arrarorik ikusi. Neska azkenean auto grisean sartu eta bere etxera bueltan joango zela suposatu zuten.

Pakek, bere aldetik, auzoan zehar Shannan bila ibili zela ziurtatu zuen, gau itxia egun argia bihurtu arte, eta ez zuenez aurkitu, hark etxera itzultzeko beste moduren bat aurkitu zuela suposatu zuen, gauean lehenago haserretu zenean agindu zion bezala. Eta seiak inguru alde egin zuen Oak Beachetik.

Poliziak, iritsitakoan, Pakekin topo egin balu, agian Shannan bilatzen jarraituko zuketien guztiek, baina halakorik ez zen gertatu.

...

Biharamunean, edo agian igandean, Shannanen erantzunik jasotzen ez zuenez Alex Diaz deitu zion Pakek, ea Shannan etxera itzuli ote zen galdetzeko. Ostiral gauetik haren berririk ez zeukala jakinarazi zion Diazek, eta kezkatuta zegoela, telefonoa itzalita edo bateriarik gabe zeukalako Shannanek eta hortaz ezina zelako harekin harremanetan jarri.

Shannanen ohiko haserrealdietako bat izan zitekeen hura. Pak gidariari bidaia ez zion ordaindu nahi eta iskin egiten ari zitzaion. Edo droga gehiegi hartu zituen Breweren etxean eta parranda jarraitzen zebilen. Edo beste bezeroren batekin zegoen. Baina agertzen ez zenez eta haren berririk ez zeukatenez, Shannan bila joan behar zutela erabaki zuten, ezbeharren bat gertatu bazitzaion eurei leporatuko baitzieten ziurrenik. Azken finean, Paken lana Shannan etxera bueltan salbu eramatea zen eta Diaz, mutil laguna bezala, beti izango zen neska lagunari gertatu ahal zitzaion edozeren lehenbiziko susmagarria. Hirugarren susmagarri agerikoena izan zitekeenari deitzea erabaki zuten, sexu langile baten kasuan lehenbizikoa izan zitekeenari. Bezeroari, Joseph Breweri deitu zioten, Pakek honen telefonoa baitzeukan, eta ea Shannan berarengana itzuli ote zen ostiral gauean edo hari gertatutakoari buruz zerbait ote zekien galdetu zioten. Brewer harritu egin zen, Shannan bere etxetik irten zenetik ez baitzuen berriz ikusi, Paken autora sartu zela uste zuen eta New Jerseyra itzuli zela.

Hortaz, astelehenean, Shannan azken aldiz ikusi zuten lekurako bidea hartu zuten Diazek eta Pakek, Oak Beacherakoa. Brewerek hesitutako urbanizazioko atea zabaldu zien eta Shannan bila hasi ziren hirurak.

Ostiral gauean ez Pakek ez Shannanek ikusi ezin bazuten ere, eguneko argipean auzo koloretso bat da Oak Beach. 1896an eraiki ziren lehendabiziko etxeak Oak Beachen eta orain 72 etxebizitza daude urbanizazioaren hesien barnean. Ekonomia maila altukoak dira bertako bizilagunak, baina ez da luxuzko urbanizazio bat. Etxebizitza batzuk berriki margotuak daude eta lorategi zaindu eta inausiak dauzkate. Urte osoan bertan bizi direnen etxebizitzak dira hauek. Beste batzuetan, ordea, belar altuak ikus daitezke orubeetan eta surf taulak eta txankletak sarreretan botata. Uda igarotzeko etxeak dira hauek, hasiera batean erosi zituenaren ondorengoek gehiegi zaintzen ez dituztenak. Auzokideen elkarte batek kudeatzen du Oak Beach eta elkarbizitzarako arauak ezartzen ditu bertan. Segurtasuna omen da Oak Beacheko bizilagunen lehentasunetako bat eta, horrenbestez, auzo guztia inguratzen duten hesiez gain, segurtasun kamerak ere badaude auzoko kaleetan.

Kale hauetan zehar eta etxe hauetan galdetuz bilatu zuten Shannan. Bilaketan auzoko bizilagun batzuekin topo egin zuten eta gertatzen zitzaiena azaldu zieten, haien artean Peter Hackett doktorea izeneko batekin, bere burua auzokideen elkarteko ordezkari bezala aurkeztu zuena eta elkartearen laguntza eta babesa eskaini omen ziena. Tom Canning eta bere txakurrarekin ere egingo zuten topo ziurrenik, edo agian Joe Scalise izenekoarekin ere. Polizia bertan egon zela jakingo zuten eta hauek ezta Shannan ez zutela ikusi. Kasua da ez zutela Shannan inondik ere aurkitu.

Brewerek Diazekin batera desagertutako pertsona baten salaketa jarri nahi izan zuen polizia etxean baina, gertuko senidea ez zenez, ezin zuela erantzun omen zioten.

Shannanen sendiari gertatutakoa esan beharko zion Diazek.

Shannanen ama eta ahizpak, bitartean, haren zain egon ziren larunbat gauean elkarrekin etxean afaltzeko, baina Shannan ez zen agertu eta azalpenen bat emateko ezta ere ez zuen deitu. Azken momentuan Ellenvillerraino joatea ezinezkoa gertatu zitzaiola Shannani suposatu zuen Mari Gilbertek, lanen bat suertatuko zitzaiola edo. Sherre, bigarren ahizpa, gau hartan eta hurrengo egunetan Shannanen telefonora deika aritu zen, baina ez zuen harekin hitz egitea lortu. Itzalita edo bateriarik gabe zegoen telefonoa beti. Gehiegi. Kezkatzen hasi zen, bere ahizpa nagusiak zeraman bizimodua eta horrek zeuzkan arriskuak ezagutzen zituelako.

Astelehenean, maiatzaren 3an, Mari Gilbertek ezezagun baten deia jaso zuen bere etxeko telefonoan. Ezezagunaren izenaz ez zen ondo jabetu, baina doktorea zela esan ziola bai. Kaleetatik irten nahi zuten neskentzako aterpetxe bat zeukala esan zion ustezko doktoreak eta Shannan bertan berarekin egon zela. Shannanek etxea gidariarekin batera utzi zuela esan zion ere. Marik ez zuen ezer ulertu, adar joka ari zitzaiola suposatu zuen eta eskegi zuen.

Egun berean, astelehenean, Alex Diazek deitu zuen Shannan etxera itzuli ez zela esateko. Beldurra igarri zuen Sherrek Diazen ahotsean. Sherre eta Sarra Gilbert, ahizpa nagusia zer nolako lanetan aritzen zen jakin zutenetik, holako deiren bat edozein momentutan gerta zitekeela beldur ziren.

Berehala poliziari jakinarazi zioten baina, hurrengo egunetan berririk jaso ez zutenez, euren kabuz bilatu beharko zutela erabaki zuten eta Ellenvilletik Oak Beacheraino 210 km-ko bidea egin zuten. Zortzi egun ziren ordurako Shannan desagertu zela.

Bitartean, maiatzaren 6an, doktoareen beste dei bat jaso zuen Marik. Hackett doktoorea zen haren izena. Susmagarriak ziren deiak, baina agian Shannan aurkitzen lagunduko zien tipo hark.

Oak Beachen atea jo zituzten, Shannan noizbait ikusi ote zuten galdetu zieten bizilagunei, argazkiak banatu zituzten. Dozena bat inguru lekukoekin hitz egin zuten, gau hartan gertatutakoa berreraiki nahian. Baina Shannan ez zen agertu. Polizia etxean desagerpena salatu nahi izan zuten, baina Shannanen bizilekuan, Jersey Cityn egin behar zutela esan zieten.

Maiatzaren bateko egunsentian Oak Beachetik bi dei jaso zituztela baieztatu zien poliziak, Shannan bertako etxeetan ate joka zebilela salatuz, baina polizia iritsi zenerako ingurua lasai zegoela eta ez zutela inor aurkitu. Egoeran ezer susmagarririk ez zegoela eta ikerketa zabalagorik ez zela behar zeritzon Suffolkeko poliziak. Shannanen moduko bizimoduak zeramatzen neskek, hots, sexu langileak, horrelako jokaerak izan ohi dituztela esan zieten, azalpenik eman gabe sendiarengandik eta ingurukoengandik aldentzen dira, bizilekuz aldatzen dute inori esan gabe. Litekeena zen taxi bati deituta Oak Beachetik alde egin eta motelen batean bizitzen egotea, edo bezeroren batekin. Zantzu gehiagorik gabe ez zirudien Suffolkeko poliziak ikerketa burutsurik egingo zuenik.

Eta Shannanek berak 911ra egindako deia? Urduri eta beldurtuta dirudien neska batek 23 minutuz poliziari "hil nahi naute", "nire atzetik dabilta" errepikatzea eta bat batean deia moztea, ez al zen ikertzea merezi zuen zerbait? Ziur baietz, baina une hartan Suffolkeko poliziak ez zeukan dei haren berririk. Lau hilabete igaro ziren polizia indar ezberdinek Oak Beachetik egindako deiek eta Shannanek egindakoak harremana zeukatela ohartu arte. Arrazoia, lehenago aipatu dugun zerbait, alegia, New York estatuko polizia indar ezberdinen lurraldetasunak eta komunikazio faltak eragindako prozedura akats bat: Operadoreak Shannani non ote zegoen galdetzen zionean, hark ez zekien zer erantzun, eta Jones Beach inguruan zegoela esan zuen. Jones Beach, Long Islandi buruz gehiegirik ez zekien newyorktar batek emango lukeen erantzuna izan zitekeen edo baita Shannanek bidean behin eta berriz errepikatuta ikusitako izen bat. Baina gainera Jones Beach estatu parke bat da eta, hori zela eta, estatuko poliziari transferitu zion deia operadoreak, eta ez lekuko poliziari.

V – 2010EKO ABENDUA: JOHN MALLIA ETA BLUE

Mari Gilbertek beti esan zuen Suffolkeko poliziak ez ziola jaramon handirik egin bere alaba nagusiaren desagerpenari, eta ez zutela berehala ezta ardura handiegirekin ikertu. Shannan sexu langile izateari egozten zion Marik poliziaren ustezko arduragabekeria hura. Beste jatorri, gizarte maila edo lanbidea zeuzkan neskaren bat izan balitz desagertutakoa, polizia buru belarri arituko zela haren bila uste zuen Marik. Eta halaxe errepikatzen zien entzun nahi zioten hedabideei, poliziari presioa egiteko prentsez baliatzen saiatu baitzen Mari Gilbert.

Egia esan, Shannan Gilberten desagerpena ez zen lerroburu askotan agertu 2010ean. Hasiera batean bai, Suffolkeko hedabideek jakitera eman zuten gertatutakoa eta Shannanen argazkia plazaratu zuten ere, irakurle edo entzuleen laguntza eskatuz. Aurrerago interesa galdu zuen haientzat ere, eta desagertutako neskaren istorioaren amaiera ez zen inoiz argitu.

Baina honek ez zuen esan nahi poliziak ez zuela ikertu Shannanen desagerpena eta ez zela hura bilatzen ahalegindu. Izan ere, desagerpenetik hilabete bat igaro zenean eta Shannanen berririk ez zeukatenez, Suffolkeko poliziako pertsona desagertuen bulegoko komandanteak, Stuart Cameronek, John Mallia ofizialari agindu zion Shannan bilatzea, Mallia bilaketa lanetan “gupidagabea” izatearen ospea baitzeukan, alegia, aurkitu beharrekoa aurkitu arte ez zuela amore ematen. 59 urterekin, eskarmentu handienetako ofiziala zen Mallia bulegoan, Suffolkeko polizian 31 urtez lan egindakoa baitzen eta lehenago ikertzaile pribatu bezala ere aritutakoa. Urte haietan guztietan bilatzeko zailenak ziren gauzak eta pertsonak aurkitzen trebetasuna erakutsi zuen, adibidez, konderriko presondegitik ihes egindako presoak. Blue izeneko 7 urteko alemaniar artzain baten laguntzarekin burutzen zituen beti bilaketa haiek. Blueren aurretik Boomer izeneko beste alemaniar artzain bat izan zuen lagun Malliak, behin atxiloketa baten erdian sei labankada jaso zituen, horren arriskutsua baita polizia txakurren jarduna. Biziraun zuen Boomerek, baina 2005ean erretiratu egin zen. Kumeak zirenetik hazi eta hezi zituen Malliak bai Boomer eta bai Blue, eta orduan hirurak batera bizi ziren Brookhaven hirian.

Malliak eta Bluek Shannan Gilbert bilatzeko aginduari ekin zioten eta uda osoan zehar Oak Beach auzoa goitik behera miatu zuten. Emaizarik gabe. Aurkituko zutela ziur zegoen Mallia, baina hilik aurkituko zutela ere ia ziurtzat jotzen hasi zen, ez Oak Beachen ezta inguruetan ere inork ez zielako zantzurik ematen. Bilaketa eremua zabaltzea erabaki zuen Malliak: norbaitek Shannan hil bazuen eta gorpuaz desegiten saiatu bazen, bide bazterrak miatu behar zituen, FBIren adituen arabera gorpuak errepidetik 9 metro baino gutxiagora jaurtitzen baitira. Oak Beachetik Nassau konderriko mugaraino doan Ocean Parkway errepideko bazterrak miatzeari ekin zioten Malliak eta Bluek.

Errepidearen 23 kilometroetan hegoaldeko bide bazterra sastraka itxiez estalita dago, sasiez, txillarrez eta huntz pozoitsuaz; hain itxiak ezen zentimetro gutxi batzuetara dagoena ikustea ere eragozten dutela. Sasiek zauritu zituzten, Mallia eskuetan eta Blue muturrean, eta huntzak Mallia ziztatu zuen. Baina eragozpen hauek ez zituzten gelditu. Udako giro epela joan zen, egunak laburtzen zihoazen eta Atlantikoko haize izoztuak jotzen hasi zuen. Bikoteak, nekaezin, bere lanarekin jarraitu zuen.

Abenduaren 11an, Gilgo Beach inguruan zeudela, Oak Beach urbanizaziotik 11 kilometrora – batzuek diote Mallia Blue hezten ari zela egun hartan, beste batzuek Bluek pixa egiteko gelditu zuela autoa Malliak, kasua da ez zela haien lan egun bat-, arratsaldeko hirurak inguruan, hondartzako aparkalekuan Bluek usain bat atzeman zuen. Buztana astintzen zuen, burua mugitzen.

Usainaren aztarna jarraitu eta sasi artean eskeleto ia oso bat arpilleran bilduta aurkitu zuten. Emakumezko baten gorpua zen.

Baina ez zen Shannan Gilbert.

Bilaketak jarraitu behar zuen.

Bi egun beranduago, abenduaren 13ko goizean, bilaketaren ingurura hurbildu zen Mallia bere aisialdi denboran, Blue autoan zain utzita, bertan lanean zeuden ikertzaileei laguntzeko. Lehen gorpua aurkitu zuen lekutik 220 metro mendebaldera beste gorpu bat aurkitu zuen Malliak, erdi desegina zegoen arpillera zaku baten barruan hau ere.

Eguraldia ezin hotzagoa eta haizetsuagoa zen, baina Malliak ez zuen horretariko ezer igartzen, adrenalinaz goraino baitzegoen.

Egun hartako ordu bata eta hogeietarako, Malliak eta Bluek beste bi gorpu aurkitu zituzten, lehenengo gorpua aurkitu zuten puntutik ekialdera, 75 metrora bata eta 180 metrora bestea.

Lau gorpu kilometro erdiko distantzian, ilaran jarriak bezala laurak, Shannan Gilbert desagertu zuen lekutik zazpi kilometrora. Lau gorpu, emakumezkoak laurak, eta haietako bat ere ez zen Shannan Gilbert.

Hildakoen sendiei eman zizkieten autopsien arabera, itoarazita hil ziren guztiak –halaxe plazaratu zuen prentsak orduan.

Richard Dormer orduan Suffolkeko polizia departamentuko komisarioa zenak zera adierazi zuen, “lau gorpu gune berean ez da kasualitate bat, serieko hiltzaile baten aurrean egon gaitezke”. Edonola, Long Islandeko bizilagunak ez beldurtzeko-edo, aurreko adierazpenari nolabait garrantzia kentzen saiatu zen segidan: “Ez dut nahi inork pentsa dezala Jack The Ripper bat daukagula Suffolken, aizto batetik odola dariola korrika.”

VI – MELISSA, MEGAN, MAUREEN ETA AMBER

Melissa Barthelemy izeneko neska batena zen Malliak eta Bluek aurkitu zuten lehenengo gorpua, 24 urte zeuzkana, Shannan Gilbertek bezala. Baina Melissa eta Shanannen arteko antzekotasunak ez ziren adinera mugatzen.

Buffalo hiriko aldirietan hazia zen Melissa, New York estatuko iparraldean. Estetikan graduatu ondoren New York hirira joan zen ile-apaintzaile bezala lan egitera, baina, dagoeneko ezagunak zaizkigun arazo eta erabaki kate batzuegatik, escort bezala hasi zen lanean, Cariglisten bere zerbitzuak iragartzen.

Melissaren amak, Lynn Barthelemyk, ez zekien bere alabaren lanbidea, 2009ko uztailean haren berririk ez zeukalako kezkatzen hasi zenean. Melissak botika antipsikotikoak hartu behar zituen baina tratamendua utzi zuen –hau ere lehenago entzuna dugu-. Berririk eta deirik gabe hiru egun pasa zirenean poliziarengana jo zuen Lynnek Melissaren desagertpena salatzeke, baina ez zioten jaramonik egin. “24 urteko neska bat, arazo psikikoak dauzkana, ez da desagertu, nahi duen lekuan dago” esan zioten polizian. Hiru egunez jarraian. Abokatu baten laguntza kontratatu zuen Lynnek, baina honi ere antzeko erantzuna eman zioten: “Prostituta bat da, ez diogu detektibe bati kasu hau esleituko.”

Uztailaren 10ean aurkitu zituzten Melissaren nondik norakoen azken aztarnak. Egun hartan bezero batekin hitzordu bat izan omen zuen, bere bankuko kontuan 900 dolar sartu zituen eta mutil lagun ohi bati deitu zion baina ez zuen harekin hitz egitea lortu.

Melissa desagertu eta aste batera, honen ahizpa gazteak, Amandak, dei bat jaso zuen Melissaren sakelako telefonotik. Pozarren erantzun zuen Amandak, Melissak azkenean deitzen zion!

-Ez naiz Melissa –erantzun zuen gizonezko ahots batek.

Hiltzailearen ahotsa lehen aldiz entzun zuen Amanda Barthelemyk.

-Zu ere puta bat al zara zure ahizpa bezala?

Ahots samurra zeukan, hizkera lasaia eta heziketa onekoa. Horrek are beldurgarriagoak bihurtzen zituen bere mezu ikaragarriak. Amandarekin jolasten hasi zen.

Deiek jarraitu zuten. Zortzi izan ziren guztira, Amandaren telefonora guztiak. Gauza latzak, ikaragarriak esan zizkion Amandari hiltzaileak –poliziak deitzailea Melissaren hiltzailea zela ziurtzat jotzen baitu-, gauza sexualki esplizituak, eta baita Melissari zer egin zion eta Amandari zer egingo zion.

Melissa hilik zegoela esango zion deitzaileak deietako batean, eta hura “usteltzen ikusiko” zuela.

Deietako batean Lynnek hartu zuen telefonoa eta hiltzailearekin hitz egin zuen. Lynnek desagertpen salaketa bat jarri ote zuten jakin nahi zuen hiltzaileak, baina laster moztu zuen deia. Amanda ikaratu nahi zuen eta harekin baino besterik ez zuen hitz egin nahi. Iluntzean deitzen

zuen beti, ahots baxuan hitz egiten zuen eta denbora laburrez. Iseka egiten zion Amandari eta mehatxuak ere. Testu mezuak ere bidaltzen zizkion.

Hirugarren deiazen ondoren polizia Verizon telefono konpainiarekin harremanetan jarri zen Amandaren telefonoa zulatzeke. Horrela, dei batzuen jatorria kokatzeko gai izan zen polizia, New Yorkeko erdiguneko inguru jendetsuetan batez ere, hala nola Port Authority autobus geltoki nagusiaren inguruan, Times Squaren edo Empire State Building alboan. Ahotsagatik, 20 eta 30 urte artean izan behar zituela ondorioztatu zuen poliziak, eta arraza zurikoa izan behar zuela –EEBBetan azalaren kolorea ahotsagatik asma daiteke, antza-. Azkarra omen zen hiltzailea, eta poliziaren ikerketa prozedurak ezagutzen zituela zirudien, zeren, horrelako guneetan, poliziak segurtasun kameren irudiak aztertuko balitu jendetza bat topatuko luke eta ez pertsona bakar bat edo gutxi batzuk. Gainera, identifikatua ez izateko, deiak zenbat iraun zezakeen ere bazekien, eta hiru minutukoak baino besterik ez ziren haren deiak.

Baina Long Islandeko Massapequa hirian ere kokatu zuen poliziak deietako baten jatorria, Gilgo Beachetik 20 minutuko auto bidaia baten distantziara. Segurtasun handiaz jokutzen zuen hiltzaileak, eta gehiegizko konfiantza horrek akatsen bat izatera bultzatuko zuela uste zuen poliziak orduan, eta horrela harrapatuko zutela.

Buffaloko lekuko telebista kate batek hiltzaileen dei hauei buruzko informazioa eman zuen eta –kasualitatez?- orduan bukatu ziren. Baina hiltzaileak abuztuaren 26an Amandari azken dei beldurgarri bat egitera ausartu zen.

-Ba al dakizu zure ahizpari zer egin nion? –galdetu zion Amandari.

-Ez.

-Melissa hil nuen. Badakit non bizi zaren eta zure bila joango naiz.

Lynnek kontaktuko zuen 2010eko abenduan, Melissa desagertu eta urte eta erdira, telebistan Gilgo Beacheko gorpuen aurkikuntzari buruzko albistea ikusi zuenean bere bikotekidearekin zegoela eta biak negarretan lehertu zirela. Melissa zela ziur zeuden.

...

2010eko abenduaren 13ko goizean, Melissaren gorputik 220 metro mendebaldera aurkitu zuten gorpua Amber Lynn Costellorena bezala identifikatu zuten. 27 urteko neska txiki bat zen Amber, 1,50 metro inguru neurtzen zituen eta 50 kilo baino besterik ez zituen pisatzen. Ez zeraman denbora gehiegirik desagertuta Amberek, urte hartako irailaren 2an desagertu baitzen Long Islandeko North Babylon hirian zeukan etxetik, gorpua aurkituko zuten lekutik 15 km-ra baino besterik ez. Hau da, Shannan Gilbert baino beranduago desagertu zen Amber.

Baina Shannanen kasuan ez bezala, eta Gilgo Beacheko gainerako beste biktimen kasuan ez bezala ere, Amber Lynn Costelloren desagertpena ez zuen bere sendiko inork salatu.

Ipar Karolinako Wilmington hirian jaiotakoa zen Amber eta haurtzaroan, sei urterekin, sexu eraso bat jasan zuen bizilagun baten esku, bere ahizpa Kimberlyk kontaktuko zuenez. Gertakari

honek, Amberengan izan zuen eraginaz gain, haien ama erotu zuen. Biek ala biek ez zutela haurtzaro on bat izan esango zuen Kimberlyk, euren sendia alkohol, droga eta gaixotasunen aurka borrokatzen ikusi behar izan zuten-eta. Ikasle ona zen Amber baina haurtzaroan jasandako oinaze hauek zanpatuta zeukaten. Drogetan, heroinan hain justu, sartu zen oso gaztetandik. Eta adikzioa ordaindu ahal izateko Private Playmates izeneko escort zerbitzuan lan egiten hasi zen oso gaztetandik ere, hamazazpi urterekin. Ezkonduta egon zen Amber garai hartan, baina dibortziatu ere egin zen. Floridara joan zen bizitzera, Clearwater hirira, eta zerbitzari bezala lan egin zuen bertan, noizbehinka escort lanak ere egiten zituela. Bigarren ezkonduta zen eta drogak uzten eta bere bizitza ordenan jartzen ahalegindu zen. Baina zorrak pilatu zitzaizkion eta bertatik alde egitea erabaki zuen bizimoduz aldatzeko, bere ahizpa Kimberlyren aholku eta laguntzarekin. Kimberlyk hegazkin txartel bat erosi zion New Yorkera. Hilabete batzuek errehabilitazioan egon zen, baina azkenean drogetara jo zuen berriz. Eta escort bezala lan egitera, drogak ordaintzeko diru nahikoa irabazteko.

Sei hilabete baino besterik ez zeramatzan Amberek New York estatuan desagertu zenean, bere 28. urtebetetzea baino aste bat lehenago.

Carolina izenarekin, bere jaioterriarena, bere zerbitzuak Craigslisten eta backpagean iragartzen zituen Amberek. Hegoaldeko ederrak zela zioen iragarkietan, begi berde eta gaztaina koloreko iledun neska gazte baten argazkia atxikiz. Egun gutxitarako erosten zituen iragarkiak eta etengabe berriztatzen zituen, horrela beti eskaintzen goiko aldean agertzeko. Segurtasunagatik edo agian bere telefono propiorik ez zeukalako, bere pisu-lagun Dave Schalleren telefono zenbakia erabiltzen zuen hitzorduak adosteko. Seguruagoa zen bezeroak etxera etortzea haien etxera joan beharra baino. Bezero batekin hotel batean edo etxe arrotz batean geratzen bazen, maiz Dave Schallerek Amber autoan bertaraino eramaten zuen eta kanpoan bere zain gelditzen zen. Baina maizago etxean hartzen zituen Amberek bezeroak, eta, horrelakoetan, Dave alboko gelan egoten zen Amberek zerbait behar ote zuen zain. Behin baino gehiagotan larria bihurtzen zen egoera. Indarkeria mehatxuak gogoratzen ditu Davek eta berak esku hartu beharra, noizbait baseball makila baten laguntzaz bezeroak etxetik at botatzera arte.

Ataka arrisksuetan sartzen zen Amber, horretara ohitua zegoen, Daven iritziz. Txikia izan arren menderaezintzat zeukan bere burua, Davek dioenagatik. Sekula ez zitzaion burutik pasa berari zerbait gerta zekiokela –bide batez, gauza bera kontatu zuen Sherre Gilbertek bere ahizpa Shannani buruz, hau desagertu zenean.

Dave Schalleren hitzetan, Amber bere buruaz arduratuko ez balitz bezala bizi zen. Egiten zuena eta bilakatu zena gorrotatzen zituen Amberek, bere droga adikzioa ordaintzeko escort bezala lan egiten zuen heroinazale bat. Bizimodu umiliagarri eta gutxiesgarri bat zela uste zuen. Hilda hobe legokeela esaten zuen.

2010eko irailaren 2an, dirutza handi bat ordainduko ziola hitzeman zion bezero batekin geratu zen Amber. Berarekin gaua igarotzen bazuen 1.500 dolar eskuratuko zituela esan zion bezeroak, Amberek kobratzen zuena baino sei bider gehiago. Hasiere batean ziria ematen zuen eskaintza hura saltzen tematu zen bezeroa. Arratsaldean zehar hiruzpalau aldiz deitu zion –Daveren telefonora- eta dei bakoitzean luzaro mintzatu ziren Amber eta bezeroa. Amber bezero ezezagunarekin hizketan eroso sentitzen zela ematen zuen. Amberen buruan sartzen jakin zuen bezeroak, hura limurtu zuen, zuhurtziarik gabe jokatzera bultzatzeraino. Gaueko 10:30etan izan

zen azkeneko deia eta, honen ondoren, praka bakeroak eta txanodun jaka arrosa bat jantzita, hitzordura abiatu zen Amber. Davek ateraino lagundu zion, besarkatu zuen, musu eman, eta kontuz ibiltzeko eskatu zion. Amberek alde egin zuen. Bezero batekin bakarrik geratzeko. Ez zuen ez telefonorik ezta poltsarik eraman. Amberek escort lanean zeukan eskarmentuarekin.

Irailaren 3ko goizean, Amber etxera itzuli ez zenez, honen ahizpa Kimberlyri deitu zion Davek. Ez kezkatzeko esan zion honek –zordunengandik berriz ihesi ariko zela Amber susmatu zuen Kimberlyk, edo bere bizimodutik edo bere mamuengandik-. Hortaz, Davek itxaron egin zuen.

2010eko abenduan, poliziak North Babyloneko etxeko atea jo zuenean Davek bazekien zertara zetozen: “Amber aurkitu duzue, aurkitu duzue.”

...

Maureen Brainard-Barnesena zen abenduaren 13ko arratsaldean aurkitu zuten lehen gorpua, Melissaren gorputik 75 metro ekialdera. Gilgoko lau biktimetatik desagertuta denbora luzeen zeramana zen Maureen, 2007ko uztailaren 9an desagertu baitzen, 25 urterekin.

Egun hartan Norwich hiriko bere etxetik irten zen Maureen, Connecticut estatuan, eta Manhattanera tren bat hartu zuen beste bi lagunekin, Brett eta Sarah izenekoak. Craigslisten jarritako iragarki baten bidez antolatutako hitzordu batera zihoan.

Lehenago ere sexu langile bezala aritu bazen ere, zazpi hilabete eman zituen Maureenek lanbide horretatik kanpo; baina, haren ahizpa Melissa Cannek dioenagatik, etsipenak bultzatuta itzuli zen Maureen escort bezala lan egitera. Bi alaben ama ezkongabea zen, lanpostu askotarako aurkeztu zen baina ez zuen lanik aurkitzen Etxetik kaleratu behar zuten bere alabekin. Bere azken aukera zen.

Egun bereko arratsaldean Port Authorityko autobus geltokitik Sara Karnes izeneko bere lagun bati deitu zion Maureenek, beldurrez, larri, egunean irabazitako dirua galdu egin zuela esanez. Etxera itzultzeko diru gehiago irabazi behar zuela esan zion, gauez itzuliko zela eta berriz deituko ziola.

Brett eta Sarah Norwichera Maureen gabe itzuli ziren Goizean, hirurak Manhattanera iritsi zirenean, hura bere kabuz joan zela eta ordutik zer gertatu zitzaion ez zekitela esan zuten.

Manhattaneko Super8 hotel batean gela bat alokatu zuen Maureenek egun hartan, baina gau hartan desagertu zen.

Maureen berririk ez zeukatenez, haren sendiak Norwicheko poliziarengana jo zuen desagertuta salatzen. Poliziak Maureen izena desagertutako pertsonen zerrendan jarri zuen eta New York hiriko poliziaren laguntza eskatu zuen hura bilatzeko. Hala ere, poliziak euren kezkak ez zituela serio aintzat hartu kontatuko zuen Melissa Cannek, Maureen ahizpak. Maureenek escort bezala lan egiten zuela eta New Yorken desagertu zela esan zietenean, poliziaren erantzuna Maureenek agian ihes egin zuela izan zen, agian bere alabak ez zitzaizkiola uste zutena bezain beste axola. Horrenbestez, Maureen euren kabuz bilatu beharko zutela erabaki zuten haren senideek.

Maureen en neba eta Melissaren senarra Manhattanera motorraz joan ziren eta desagertutako neskaren argazkiak erakutsi zituzten, jendeari galdetu zioten ea noizbait ikusi zuten. Inork ez zuen ikusi. Inork ez zuen ezagutzen. "Mundu ezberdin bat da horko kanpokoa. Inori ez zaio ezer axola", esango zuen Maureen en anaiak.

Maureen en desagerpenetik egun gutxira Sara Karnes haren adiskideak dei bat jaso zuen ezkutaturako zenbaki batetik. Gizonezko bat zen, izenik eman ez zuena, eta ez zeukan New Yorkeko azenturik. Maureen ikusi berri zuela esan zion, bizirik zegoela "Queenseko putetxe batean". Ustezko putetxe horren helbidea ezta ez zion eman, baina berriz deitu eta emango ziola esan zion. Ez zuen inoiz berriro deitu.

Gilgo Beachen gorpua aurkitu zirenean hiltzaile bakar baten biktima zirela laurak jakinarazi zuen poliziak. Aldi berean, Sara Karnesi egindako dei honek antzekotasun handiegia dauka urte bi geroago Amanda Barthelemuk jasoko zituen deiekin, pertsona bakar batek biak egin zituela susmatzeko adinekoa. Hortaz, Gilgo Beacheko hiltzaile horri bere biktimen oinazearekin jolastea atsegin zitzaiola ondorioztatu dezakegu, haien doluari iseka egitea. (Dei hauek, Sara Karnesi egindakoak batez ere, Mari Gilbertek, bere alaba Shannan desagertu eta egun gutxira, Hackett doktorearengandik jaso zituenekin antzekotasun susmagarri bat ere badaukate. Edo horixe al zen Mari Gilbertek eta bere abokatu John Rayk sinetsarazi nahi zutena? Aurrerago hitz egingo dugu honetaz.)

...

Abenduaren 13an Gilgo Beachen aurkitu zuten azkeneko gorpua –Maureenengandik 100 metrora eta Melissarengandik 170era, ekialdera- Megan Watermanena zen. Maine estatuko Sacrborough hirian bizi zen Megan eta beste hiru biktimak bezala sexu langilea zen.

2010eko ekainaren 5ean desagertu zen Megan, 22 urterekin, hau da, urte erdi baino besterik ez zeraman desagerturik bere gorpua aurkitu zutenean. Long Islandeko Hauppauge hirian ikusi zuten azkeneko aldiz, bere gorpua aurkituko zuten lekutik 35 kilometrora. Baten bat Shannan Gilberten desagerpenarekin antzekotasunak bilatzen ari bada, bai, halaxe da: Shannan baino hilabete bat geroago soilik desagertu zen Megan, eta hura desagertu zen lekutik 30 km-ra soilik ere. Baina Amber Lynn Costelloren desagerpenetik ere oso hurbil gertatu zen Meganena: hiru hilabete lehenago desagertu zen Megan eta Amber desagertuko zen lekutik 28 km-ra soilik.

Mainen bizi bazen ere, ez zuen bertan escort bezala lan egiten Meganek, bezero gutxiago omen zeudelako edo bizilagunek bere lanbidea ezagutzea nahi ez zuelako. Kasua da, bere mutil laguna Akeem Cruz Long Islandeko zela eta bertara joaten ziren biak Akeemen familia bisitatzeko aitzakiarekin. Horrelakoetan Meganek bere lau urteko alaba Lily gurasoekin uzten zuen eta autobusez edo lagun baten Ford Explorerean –bai, beste Ford Explorer bat- Akeem eta biak Long Islanderaino joaten ziren. Akeem zen bere ordenagailu pertsonalarekin Craigslisten iragarkiak jartzen zituena eta hitzorduak ixten zituena. Megan hotelean bezeroekin zegoen bitartean, Akeemek bere senideak bisititzen zituen. Beste batzuetan, hitzordua bezeroaren etxean zenean, Akeemek Megan laguntzen zuen. Meganek ez zuen hitzorduetara bakarrik joateko arriskua hartzen.

Autobusez joan ziren Long Islanderaino Akeem eta Megan azken aldi hartan, eta ekainaren Sean Hauppauge hiriko Holiday Inn hotelean gela bat alokatu zuten. Arratsaldeko 8etan biak batera hoteletik irten ziren eta Megan ordu erdi geroago bakarrik itzuli zen. Gaueko ordubata eta erdietan Akeemen dei bat jaso zuen Meganek eta, ondoren, berriz hoteletik irten zen. Bera bakarrik, telefonoa eta poltsa hoteleko gelan utzita, sekula egiten ez zuena.

Lekuko batek kalean, denda batean sartzen ikusi zuen Megan. Bizirik ikusi zuten azkeneko aldia izan zen.

Poliziak Akeem Cruz susmagarri nagusitzat hartuta gogorki itaundu zuen eta haren ordenagailua miatu. Desagerpenaren susmagarri bezala baztertu zuten, baina Akeem ez zen uneren batean ere poliziarri laguntzeko prest agertu.

...

Lau gorpu, lau neska gazte, lau istorio, lau bizitza indarkeriaz modu lazgarri eta sumingarrian moztuta.

Lau biktimen istorioen artean elementu amankomun anitzak aurki daitezke, neskak ziren laurak, gazteak, haurtzaro eta nerabezaro gorabeheratsuak izandakoak, gazte ezkondu eta dibortziatutakoak, ama ezkongabeak, drogekin arazoak zeuzkatenak edota estutasun ekonomikoak nozitzen ari zirenak... Laurek ala laurek escort bezala lan egiten zuten, euren zerbitzuak Craigslist bidez iragartzen zituzten eta bezero batekin hitzordu batera joandakoan desagertu ziren. Eta hilda –itoarazita- aurkitu zituzten laurak 400 metroko eremu batean, ilaran jarriak bezala.

Gorpuen aurkikuntza eta identifikazioaren ondoren azken datu hau izan zen komunikabideek nabarmendu zutena, alegia, Craigslisten iragarkiak jartzen zituzten escortak zirela laurak. Agian sexuarekin harremana zeukan edozein lerroburuk irakurle eta entzuleen arreta erakartzen zuelako; edo agian Long Islandeko bizilagunak nolabait lasaitze aldera, euren artean serieko hiltzaile bat izan arren, sexu langileei bakarrik eraso egiten zien bat baitzen hura. Ezin daiteke baztertu ezta ere horrelako informazioek iradokitzen zuten epai moralista: nahiz eta zuzenean ez esan, zera aditzera ematen zuten lerroburuek, lau biktimak ikuspegi moralista batetik susmagarria zen lanbide batetan aritu ez balira ez zirela hiltzailearen atzaparretan erori izango.

Gilgo Beacheko gorpuen identifikazioak normalean itzalpean aritzen diren langile batzuen gainean jarri zuen hedabideen eta arreta publikoaren fokua. Bizitzan aukera eskasak dauzkaten emakumeak, etsipenez erabaki arriskutsuak hartzen dituztenak, euren sendietatik eta gizartetik ere aldentuta bizitzen direnak askotan, euren jardueraren arrastorik ez uzteko ahalegintzen direnak. Interneten garaian prostituzioa sekula baino eskuragarriago dago eta aldi berean sekula baino arriskutsuagoa bihurtu da sexu langileentzat. Jada ez dute zertan kaleetan lan egin behar, etxetik lan egin dezakete, baina inoiz baino zaurgarriagoak dira bere kabuz lan egitean. Errealitate hau bere gordintasun osoan azaleratu zen Ocean Parkway errepideko bide zidorrean, hiltzaile ezezagun batek bere biktimen gorpuzkiak jaurtitzeko zabortegia bihurtu zuen lekuan. Neska txikiak ziren aurkitutako biktima guztiak –lauretatik hiru bederen-, 1,50 m eta 50 kg ingurukoak, eta horrexegatik “hautatu” zituen hiltzaileak agian. Craigslisten argitaratutako argazkiak begiratuz, hiltzaileak neska ahul eta arinenak aukeratu bide zituen, errazago erailko

zituena eta errazago autoan sartu eta bide bazterrean jaurtiko zituena, zabor zaku bat balira bezala.

Kasua da, datu hori behin eta berriz errepikatzeagatik, jendeak eta hedabideek izenik eta aurpegirik gabeko hiltzaile hari "Craigslisterko hiltzailea" izen goitia jarri ziotela; eta baita ere "Gilgo Beacheko hiltzailea" edo "LISK", "Long Island Serial Killer" hitzen akronimoa.

Bestalde biktimen lanbidea hainbeste azpimarratzeak haien senideen sumina piztu zuen, ulergarria denez. Melissa Cannek, Maureen ahizpak, gai honi buruz esan zuena lauren kasurako balioko luke: Bere ahizpa escort bezala aritzen zela, bai, baina hori baino askoz gehiago ere bazela jakin behar zuen jendeak. Pertsona bat zen, ama bat, alaba maite bat... bere familiarentzat den-dena zen. Bere ahizpak ahots bat behar zuela esan zuen Melissa Cannek, aurretik zeuzkan duintasuna eta errespetua berreskuratzeko.

...

Lau biktima, desagertutako lau neska gazte modu krudelenean aurkituta. Baina oraindik haien lauren aurkikuntza suertatu zuen bilaketak ez zuen esperotako emaitza lortu. Haiek laurak bezalako beste neska gazte bat, haurtzaro zaila izan zuena, arazo psikologikoak zeuzkana, drogak hartzen zituena, escort bezala aritzen zena eta Craigslister iragarkiak jartzen zituena, desagertua zirauen oraindik. Shannan Gilbert ez zen agertu. Bilaketak jarraitu behar zuen.

VII – 2011KO UDABERRIA: JESSICA TAYLOR, JANE DOE 6, JANE DOE 7, JANE DOE 3, JOHN DOE ETA BABY DOE

Ocean Parkwayko iparraldeko bide bazterra hiltzaile baten zabortegia zela jakinik, bide bazter horretako sasi, txilar eta huntz pozoitsuaren artean miatuz jarraituko zuten Shannan Gilberten bilaketa hurrengo hilabeteetan.

Ekialderantz jarraitu zuten bilaketa, lau gorpuak agertu ziren gunetik Oak Beacheraino doazen 11 kilometroak arakatuz. Logikoa zen alde batetik ekialderantz jarraitzea, Oak Beach baitzen Shannan desagertu zen lekua, baina bestalde jurisdikzio arrazoi batek behartuta ere hartu behar izan zuen norabide hori Suffolkeko polizia: abenduan gorpuak aurkitu ziren gunea Nassau konderriko mugatik hurbil zegoen, eta, mendebalderantz joanez gero, ezingo zuten ikertzen jarraitu ahal izango, Nassauko konderrian ez baitzuten eskumenik.

Eremua zabala ez izan arren, bilaketa lanak oso mantsok ziren begetazioak asko eragozten zituelako. Altua eta itxia zen begetazioa Ocean Parkwayko bide bazterrean –sasiak eta txilarra batez ere- eta akainez beteta zegoen, bai pertsoneri eta baita txakurrei ere gaixotasunak kutsatzen dizkietenak. Hain itxia zen begetazioa, ezen ikerketa lanak ari ziren gunera bertaratutako kazetariak ez zituztela sasi artean sartuta zeuden polizia eta txakurrak ikusten, nahiz eta haien aurrean metro gutxi batzuetara baino besterik ez egon.

Gorpuak bilatzeko hezitako txakurrak ez ziren oso pozik sastraka artean sartzen, ez baitzuten gogoko sasiak muturrean eta begietan jotzea. Huntz pozoitsuak eragindako zauriengatik ere hogeitaz polizia agente artatu behar izan zituzten. Richard Dormer komisarioak esan zuen bezala, “lan aspergarri eta luze bat da hau, baina holakoa da hilketa-poliziaren lana beti, ez da telesailetan agertzen den modukoa, egun batetik bestera emaitzak dauzkan lan bat”.

Bilaketa lanetara teknika berri bat gehitu zion poliziak: Suffolk konderriko lau hiritako suhiltzaileen kamioak erabili zituzten. Suhiltzaileen kamioiek eskailera luzagarriak zeuzkaten, bilatzaileak zorutik sei metrora igo zitzaizketenak. Horrela bilatzaileek gainetiko beste ikuspegi zabalago bat zeukaten, eta zoruan gorabeheraren bat errazago antzeman zezaketen.

Bilaketa mantsok baino arretatsuak aurkikuntza txundigarri gehiago ekarriko zituen Gilgo Beach eta Oak Beach arteko bide bazterretan.

...

2011ko martxoaren 29an, Gilgo Beach inguruan ere, Megan Waterman aurkitu zuten puntutik 1,3 km ekialdera, besaburu baten eta esku pare baten hezurak, eta giza garezur bat aurkitu zituzten. Haien DNA aztertu eta poliziaren erregistroetan jasotako norbaitenak zirela baieztatu zuten: Jessica Taylorenak ziren garezurra eta eskuak. Jessica Taylor? Bai, 2003ko uztailean Manorville inguruan, egur pila baten gainean, bururik ezta eskurik gabe aurkitu zuten 20 urteko neska. Jessica Manhattanen ikusi zuten azken aldiz, eta bai New Yorken eta baita Washingtonen

ere prostituta bezala aritu zela bazekien poliziak. Jakina, nahiz eta ia zazpi urte igaro Jessicaren gorpu mutilatua aurkitu zenetik, poliziak ez zuen haren hiltzailea aurkitu, ezta susmagarririk atxilotu ere.

Bost egun geroago, apirilaren lauan, beste hiru biktimen gorpuzkiak topatuko zituzten Ocean Parkwayko bide zidorrean, sastraka artean.

...

Jessica Taylorren eskuak eta garezurra aurkitu zen puntutik 2,1 km ekialdera, beste giza garezur bat, esku pare baten eta eskumako oin baten hezurak topatu zituen poliziak. Oak Beach auzotik, eta hortaz Shannan Gilbert desagertu zen lekutik, gertuen egingo zuten aurkikuntza izango zen hau.

Hezurron DNAREN azterketak, poliziak erregistratutako norbaitenak ere bazirela jakinaraziko zuen, baina kasu honetan izenik gabeko norbaitenak: "Jane Doe 6" izenarekin identifikatua zeukan poliziak buru eta esku haien jabea zen neska, biktima ezezagunekin erabili ohi den izena. 2000ko azaroan Manorvillen aurkitu zuten neska haren gorputz enborra –aipatu dugunez-.

Jessica Taylor eta Jane Doe 6-ren kasuen artean antzekotasun handia zegoen, handiegia -hilketa, gorpuen mutilazioa eta gorpuzkien sakabanatzea gune beretan-, hiltzaile bakar baten lana zirela ondorioztatzeko, eta hortaz, Jane Doe 6 hura ere, Jessica bezala, prostituta izan behar zela susmatzeko. Baina ia hamaika urtetan poliziak ez zuen ez hiltzailea atxilotu ezta biktima bera identifikatu ere.

2011ko irailean poliziak Jane Doe 6-ren erretratu bat plazaratu zuen, haren garezurrean oinarriturik egindakoa. 1,55 neurtzen zituela, eta 18 eta 35 urte artean izan behar zituela esan zuten, norbaitek hura identifikatzen lagundu ote zezakeen jakiteko.

(Soilik 2020ko maiatzean, haren hilketatik hogeitun urteren ondoren, Jane Doe 6, Valerie Mack zela jakinaraziko zuen poliziak. Suffolkeko komisario berriak, Hart andreak, eman zuen aurkikuntzaren berri. Valerie prostituta bezala lan egindakoa zen, bai, lan horretan ari zela atxilotu baitzuten behin Philadelphian. Bere familiak azken aldiz New Jersey ikusi zuen 2000. urteko udaberrian.)

...

Egun berean, eta Jane Doe 6ren hezurak aurkitu zituzten gunetik 60 metrora soilik, ordurarteko aurkikuntzetatik oso ezberdina zen beste batekin topo egin zuten bilatzaileek: 18 eta 24 hilabete arteko neskatila baten gorpua manta batean bilduta, urrezko iduneko eta belarritakoekin. Eskeletoa baino besterik ez zen gelditzen, baina gorpuk ez zeukan ageriko indarkeria aztarnarik. Hori zela eta, hasiera batean poliziak ez zuen neskatilaren heriotza hilketa bezala ikertu eta beste hipotesi batzuk jarraitu zituen.

Haurraren adinagatik ez zirudien nahigabeko haurdunaldi baten aurrean zeudela ezta ere, kasu horietan amak bere haur jaioberria erditu eta ordu edo egun gutxitara hil edo abandonatzen baitzuen. Neskatila manta batean bildu izanak, hildako haurrarekin lotura estu bat iradokitzen zuen. Hortaz, kriminologistek uste zuten haurraren heriotza agian ezbeharren batengatik,

arduragabekeriagatik edo bestelako arrazoiren batengatik gertatu zela, eta haren guraso edo zaintzaile bat heriotza ezkutuzten saiatu zela, legearekin arazorik ez izateko. Horrelako kasuetan gainera, adituen iritzian, ziurrenik ez zen haurraren ama izan gorpu hain leku ezkutuan utzi zuena, antzeko kasuetan amek etxetik hurbil ezkutuzten baitituzte gorpuak. Gizonezkoak, haurren aitak edo aitapontekoak, izan ohi dira gorpuak etxetik aldentzen eta leku ezkutuan bilatzen saiatzen direnak.

Jane Doe 6ren hezurretatik hain hurbil aurkitu izanak, neskatila haren alaba izan zitekeela susmatzera bultzatu zuen, baina DNA frogek susmo hau baztertu zuten. Neskatila arraza beltzekoa zela jakitera emango zuen poliziak ere. Identifikatzea lortu ez zuten, Baby Doe bezala ezagutuko zuten.

...

Azkenik, apirilaren 4an ere baina mendebalderago, abenduko gorpuak aurkitu ziren lekutik hurbilago, beste gorpu bat aurkitu zuten, buruan kolpe gogor baten aztarna zeukana. Gorpuak haiek aztertzean, kasu honetan hildakoa gizonezko bat zela jakin zen eta asiar jatorrikoa. 1,65 metro neurtzen omen zituen, lau hortz falta zitzaizkion eta 18 eta 25 urte artean izan behar zituen hil zutenean. Aurkitu zutenerako 5 eta 10 urte artean omen zeramatzan hilik.

Desagertutako pertsonen zerrendan asiar jatorriko bakarra zegoen Long Islanden, baina haren datuak ez zetozen bat aurkitutako gorpuarekin. Ez zuten identifikatzea lortu, John Doe izena jarri zioten.

Gorpu honekin batera emakumezko arropak aurkitu ziren, alegia, hildakoa emakumez jantzia omen zegoen hil zutenean. Hau zela eta, John Doe emakume bezala bizi zela eta –beste biktima adin nagusiak bezala- sexu langilea zela ondorioztatu zuten ikertzaileek. Bezero batek hilko zuen John Doe, beste guztiak bezala, honen kasuan, agian, gizonezko gorputza zeukala aurkitutakoan.

Jane Doe 6ren kasuan bezala, 2011ko irailean poliziak John Doeren erretratu bat kaleratu zuen ere, haren garezurrean oinarriturik, hildako biak identifikatzeko publikoaren laguntza eskatzeko.

...

Zortzi hilotz 3 kilometro eskaseko esparruan, ilaran jarriak bezala zortziak. Neskatila txikia izan ezik, beste zazpiak indarkeriaz hildakoak, eta haietatik identifikatuta zeuden bostak sexu langile izandakoak –identifikatu gabeek ere lanbide bera zeukatela susmatzera zeramana-. Argi zegoen Ocean Parkway errepideko bide zidorra, Gilgo Beach eta Jones Beach inguruan, hiltzaile batek edo batzuek zabortezi bezala erabili zutela. Bilaketak jarraitu behar zuen, hiltzaile ezezagun haren edo haien ankerkeriak beste aurkikuntza harrigarri eta desatseginak ezkutuzten ote zituen jakiteko.

5.000 dolarreko dirusaria eskaini zuen poliziak hilketak hauekin harremana izango lukeen atxiloteta batera eramango lukeen zantzu batengatik.

Gainera, bilaketa hasiera batean bultzatu zuen pertsona desagertua, Shannan Gilbert, ez zen oraindik agertu. Ez hilik ezta bizirik ere.

Polizia iturriek orduan ziotenagatik, Gilbert inguru hartan egon behar zuela sinesten zuten. Dormer komisarioak esan zuen bilaketa arretatsua izan bazen ere, bilaketa eremua hain deseroso eta zakarra izanik, litekeena zen zerbait ez ikusi izana eta berriro ere arakatuko zutela. Baina, hala ere, Ocean Parkway errepideak Suffolk konderrian zeukan zatia nahiko miatu zutenez, bilaketa mendebaldera, errepideak Nassau konderrian zeukan zatira, luzatu beharko zutela erabaki zuten polizia agintariek. Nassauko poliziaren laguntza eskatu zuten horretarako.

Nassauko polizia agintariek bilaketan 125 pertsonak parte hartuko zutela iragarri zuten, batzuk polizia txakurren laguntzarekin eta beste batzuk zaldi gainean, eta Suffolkeko eskarmentudun bilatzaileen laguntza izango zutela. Halaxe, Mallia agenteak eta Blue polizia txakurrak Nassau konderrian euren bilaketa arrakastatsuekin jarraitu zuten.

Apirilaren 11an, Malliak eta Bluek, Nassauko poliziako Joe Grella izeneko polizia agente batekin batera, garezur bat aurkitu zuten plastikozko poltsa baten gainean. Poltsa barruan giza hezur gehiago zeuden. Aurkikuntza Zach's Bayn inguruan izan zen, Ocean Parkwayko iparraldeko bide bazterrean ohi bezala, eta Gilgo Beachetik 11 km mendebaldera.

Egun bereko arratsaldean bilatzaile taldeak beste giza garezur bat eta hortz bakan batzuk aurkitu zituzten Tobay Beachen: Ocean Parkwayko iparraldeko bazterrean, beste bederatzia bezala, Gilgo Beachetik 4 km mendebaldera.

Nassau konderriko Ahalduen Nagusiak, Edward Manganok, hilketak haien guztien atzean zegoen "piztia" Justiziaren aurrera eramango zutela agindu zuen.

...

Bederatzigarren biktimaren gorpuzkinen artean urrezko bi eskuturreko aurkitu zituzten. X eta O hizkien itxurako apaingarriak zeuzkan batak eta diamante itxurako harri merke batzuk besteak. Informazio hau plazaratu zuen poliziak biktimaren identifikaziora lagunduko zuen norbait aurkitze aldera, baina zantzurik ez zitzairen iritsi eta Jane Doe 3 izenarekin identifikatu zuten. Aste bat lehenago Gilgo Beachen aurkitu zuten haurrak ere urrezko apaingarriak zeuzkan eta, kasualitate bat izan zitekeena besterik gabe, DNA frogek baieztatu zuten: Jane Doe 3 eta Baby Doe, ama eta alaba ziren. Baby Doe ere, hortaz, hiltzaile beraren beste biktima bat zen.

Hiltzaileak ama eta alaba hil zituen eta haien gorpuzkiak elkarrengandik 25 kilometro aldendu zituen. Eta konderri ezberdinetan! Alegia, polizia jurisdikzio ezberdin bitan abandonatu zituen ama eta alabaren gorpuak, polizia ikerketa gehiago eragozteko.

(Bost urte beranduago, 2016ko abenduan, Nassauko poliziak eta New York estatukoak jakitera eman zuten, DNA azterketen emaitzengatik, Jane Doe 3ren gorpuzkiak eta 1997. urtean Hampstead Lake parkean aurkitu zituztenak, emakume berarenak zirela. Lehenago aipatu dugu aurkikuntza hau: zaborrontzi batean aurkitu zuten emakume beltzaren gorpua, mertxika itxurako bihotz bat tatuatuta zeukan eta poliziak "Peaches" –mertxikak- izena jarri ziona. 1997an aurkitu zuten gorpuak zesarea baten orbaina zeukan eta 2010ean oraindik ikertzaileek hildakoaren semea edo alaba, ordurako 13 urte gutxienez izan behar zituena, non ote zegoen galdetzen zuten. Bada, "Peaches" aurkitu zutenetik ia 20 urte joan zirenean, azkenean jakin zuten haren alabak ere epe berdina zeramala hilik, Baby Doe baitzen Pecahesen alaba.

Hiltzaileak, hortaz, ez zuen soilik ama eta alabaren gorpuak estatu ezberdinetan aldendu, amaren gorpuzkiak ere konderrri ezberdinetan sakabanatu zituen, haien bien arteko loturaren aurkikuntza ia hogei urtez atzeratuz.)

Bai Peaches eta bai Baby Doe, hau idazten ari garenean eta hil zituztenetik 23 urte joan direnean, oraindik ez dituzte identifikatu.

...

Apirilaren 11an Tobay Beach inguruan aurkitu zituzten garezur eta hortzak identifikatu ezin izan zuten emakumezko batenak ziren eta, hortaz, Jane Doe 7 izena jarri zioten. DNA azterketak ez zion hildako emakumeari izenik edo aurpegirik jarri, baina bai, laster, lehenago aipatu ditugun beste gorpuzki identifikatu gabeekin lotu zuten. Jane Doe 7rena zen, hamabost urte lehenago, 1996an, Fire Islandeko Davis Parken zabor poltsa baten barruan aurkitu zuten hanka pareak hain justu. Jane Doe 7 ere, gaurdaino, identifikatu gabe dago.

...

Azken aurkikuntzak egin ziren unean, poliziak ez zeukan argi hiltzaile bakar baten biktima ote ziren Ocean Parkway inguruan aurkitutako hamarrak. Halaxe adierazi zuen Dormer komisarioak hasiera batean.

Ezberdintasun nahikoak zeuden 2010ko abenduan aurkitutako lau biktima eta 2011ko udaberrian aurkitutakoen artean. Hasteko, denboran nahiko aldentuta gertatu ziren biktima multzo biren hilketak. Abenduan agertutakoak 2007 eta 2010 artean hil zituzten, eta besteak askoz lehenago, 1996 eta 2003 urteen artean heriotza data zehatza zeukatenak. Gilgo Beacheko laurak itoaz zirela hil omen ziren eta haien gorpuak osorik aurkitu zituzten arpilera zakuetan bilduta. 2011koak ordea modu ankerrean zatikatuak izan ziren ia kasu guztietan, eta, guztien heriotzaren kausa zehaztu ezin izan bazen ere, kasuren batean buruan kolpe gogor bat hartuta hil zituzten.

Baina antzekotasunak ere bazeuden biktima guztien artean. Guztiak, hamarrak, ez zituzten aurkitu zituzten lekuan bertan hil, ostera, beste lekuren batean hil eta haien gorpuak ezkututzen saiatu zen hiltzailea –edo hiltzaileak-. Eta antzekotasun nagusia, errepide bazter bakarti bera aukeratu zuela hiltzaileak –edo hiltzaileek- gorpuak ezkutatzeko, 15 km-ko lerro zuzen bat marraztu baitzitekeen hamar gorpuak aurkitu ziren puntuak lotuz.

Suffolkeko polizia departamentuko komisarioa Richard Dormerek, azkenean, hamar biktimak hiltzaile bakar baten beraren lana zirela, eta Baby Doe izan ezik beste bederatzia sexu langileak zirela adieraziko zuen. Suffolkeko Distritoko Fiskala Thomas Spottak, ordea, bederatzia sexu langileak zirela adierazteari gehiegizkoa zeritzola esan zuen, bost soilik identifikatuta izanik. Arrazoi horrengatik eta berak zeuzkan beste zalantza batzuegatik, biktima guztiak hiltzaile bakarraren lana zirela ezin zitekeela ziurtatu esan zuen. Hiltzaile biren edo hiruren biktimak zirela adieraziko zuen Spottak orduan.

Eztabaida gogorra, sutua, izan zuten Dormerek eta Spottak gai honen inguruan Suffolk konderriko batzar legegilearen aurrean. Bien arteko desadostasun publiko horrek bestelako

tirabirak eta arazoak ezkututzen zituela susmarazi behar izan zion norbaiti, aurrerago xehatuko ditugunak eta ikerketari eragingo ziotenak.

Garai berean, FBIren bozeramaleak, James Margolini izenekoak, agentzia federalak 2011an zehar Suffolkeko poliziarri laguntzen aritu zela jakinarazi zien hedabideei. Laguntza honen adibide bezala, gorpuak aurkitu ziren inguruetako airetiko argazkiak atera zituztela esan zuen, eta beste edozein eskakizuneri erantzuteko prest zeudela. FBIren adierazpen hauek eta laguntza eskaintza hau existitu zirela nabarmendu beharra dago, hilketen ikerketak handik gutxira hartuko zuen bidea –edo desbideratzea- azaltzeko funtsezkoak suertatuko baitziren.

Laburbilduz, poliziaren iritzi ofizialean hamar biktimak serieko hiltzaile bakar baten lana ziren, LISK izenarekin ezagutua izango zena, eta, haren lehen biktima ezaguna 1996koa zenez -Jane Doe 7-, 15 urte zerratuz LISKek bere krimenak egiten atxilotua izan gabe.

Egun, 2020an, LISKek ez dauka ez izenik ez aurpegirik, inor ez baitute –oraindik- hamar hilketak hauengatik atxilotu.

Suffolkeko poliziak 25.000 dolarrera igo zuen atxiloketa batera eramango zuen zantzu bategatiko ordainsaria. Eta EEBBtako beste polizia agentzien laguntza eskatu zuen.

VIII – JENNIFER PAPAIN

Ikerketak aurrera egin zuen. Suffolkeko poliziak biktimen senide eta lagunak itaundu zituen, eta baita sexu lanaren munduko jendea, zerbait entzun edo ikusi zuten jakiteko. Biktimek euren hitzorduak Interneteko web orri jakin batzuen bidez adostu zituztela ezaguturik, web orri horietako trafikoa ere miatu zuten aztarnen bila. Biktimen telefonoetako deien historia-zerrenda ere ikertu zuten, noski, baina escort bezala aritzen ziren neskek telefono bat baino gehiago zeukaten beti, eta askotan epe laburrean soilik erabil zitezkeen telefonoekin lan egiten zuten, aztarnarik ez uzteko.

Informazio kontrajarriak egon ziren hasieran susmagarrien inguruan. Suffolkeko poliziako iturri ofizialek susmagarri jakinik ez zegoela adierazi zuten, baina poliziako beste iturri anonimoek Suffolkeko bizilagun bat zelatatzen ari zirela, krimen hauen inguruko zantzuren bat aurkitze aldera, esan omen zuen. ABC telebista kateak ikerketapean zeuden pertsonen zerrenda bat ikusi zuela kaleratu zuen, Long Islandeko bizilagunak zirela zerrendan agertzen ziren guztiak, polizia indarretan edo larrialdietan eskarmentua zeukatenak batzuk, eta baita hondartzara maiz joateko ohitura zeukaten beste batzuk.

Ikerketak iraganean antzeko krimenak egin zituztenengana eraman zuen polizia ere.

Aipatu dugun Joel Rifkinek urteak zeramatzan kartzelan, 1993an atxilotu baitzuten, baina hasiera batean Ocean Parkway aurkitutako gorpuetatik zaharrenetariko baten bat haren biktima izan zitekeela susmatu zen. Eta berriz galdekatu zuten Rifkin, kartzelan. Rifkinek hilketa haiekin guztiekin inolako zerikusirik ez zeukala esan zuen –iraganean ez zuen inolako arazorik izan poliziak frogatutako baino hilketa gehiago aitortzen-. Baina ez ziren horretara mugatu Rifkinen erantzunak: LISK ezezagun berriaren lepotik barre egin zuen ere. Biktima guztiak leku berean jaurtitzea hiltzaile trakets baten lana zela esan zuen, poliziaren lana errazten zuelako. Berak biktimak itoarazten zituela gogoratu zuen Rifkinek, eta ondoren “indioilar bat bailiran” zatikatzen zituela eta Long Island osoan zehar, eta New York estatutik kanpo ere, sakabanatzen zituela haien gorpuzkiak, identifikazioa eta atxiloketa oztopatzeko. Hori bai, LISKek bere biktimak aukeratzen bazekiela onartu zuen Rifkinek, prostitutak “biktima egokiak” baitziren. LISK nor izan zitekeen galdetu ziotenean, Rifkinek Suffolkeko bizilagun bat izan behar zuela erantzun zuen, bere lanagatik arpilera zakuak erabiltzera ohitua zegoena. Lorezain, arrantzale edo eraikuntzako langile izan behar zuela apustu egin zuen Rifkinek.

LISKen biktimen gorpuk agertu baino hilabete batzuk lehenago, 2010eko martxoan, haren hilketen oso antzeko beste bat gertatu zen Long Islanden. Martxoaren 22an, 26 urteko Jennifer Papain, Craigslist bidez ezagutu zuen bezero batekin adostu zuen hitzordura irten zen North Patchogue hirian. Ordu pare batean itzuliko zela esan zuen. Egunak igarota ez zenez itzultzen, haren sendiak salaketa jarri zuen polizian. Kasu honetan poliziak, Jenniferen telefono deien aztarna jarraituz, bere azken bezeroa Chad Johnson izeneko beste Long Islandeko bizilagun bat zela aurkitu zuen. Chad atxilotu eta honek berak Jenniferen gorpuraino eraman zituen, Long Island Expressway errepede alboko basoan lurperatu zuena, bere etxetik hurbil. Itoarazi zuen.

Escort bezala aritzen zen beste neska gazte bat, bezeroak Craiglist bidez bilatzen zituena eta holako hitzordu batera joandakoan itoarazita hil zutena. Antzekotasun asko beste biktima

guztiekin, eta burua lehertarazteko moduko beste bat ere: Jenniferen gorpua Chaden autoan garraiatua izan zela baieztatu zuena, Blue polizia txakurra izan zen, Gilgo Beacheko biktimetako asko eta Nassau aldeko batzuk aurkitu zituen bera. Funtsezko ezberdintasun bat ere: kasu honetan hiltzaileak aurpegia eta izena zeuzkan. Zerikusirik izango al zuen Chad Johnsonek beste hilketekin ere? Aintzat hartu beharrekoa zen gutxienez Megan Waterman eta Amber Lynn Costello ezin zirela Chad Johnsonen biktimak izan, hura atxilotu ondoren desagertu baitziren – gauza bera gertatzen zen Shanann Gilbertekin-. Ikertua izan arren, eta polizia departamentu berak ikertua gainera, Suffolken gertatu baitzen ere Jenniferen hilketa, ez omen zen Chad Johnsonen aurkako froga gehiagorik aurkitu, eta Jenniferen hilketagatik soilik epaitu eta kondenatu zuten.

Nola liteke Jennifer Papainen kasuan poliziak haren hiltzailea hain epe laburrean atxilotu eta epaitzea lortu izana, eta aldi berean LISKen hilketen kasuan atxiloketarik ez egotea? Zergatik ezberdintasun hura bi kasu hain antzekoetan, batez ere LISKen kasuan poliziak bestean baino zantzu eta aztarna askoz gehiago izanik? Atxiloketarik ez egoteak susmoak piztu zituen polizia indarren inguruan. Hiltzailea bera polizia indarretakoa izan zitekeenaren susmoa zabaltzen hasi zen, eta poliziaren barnetik ikerketa oztopatzen ari zenaren zurrumurrua. Amanda Barthelemyri egindako deiak jartzen zituzten frogatzat susmo honen defendatzaileek. Dei haiek hiru minutu baino gehiago ez zuten irauten, poliziak deiaren aztarna jaraitzeko behar zuena baino gutxiago beti, eta gune jendetsuetatik egiten zituen hiltzaileak, inguruko segurtasun kamerek bakandu ahal ez izateko. Honek hiltzaileak poliziaren jarduera goitik behera ezagutzen zuela esan nahi zuen, kasuan interesa zeukaten askorentzat. Baina kriminologian adituak ziren hainbaten ustean ere, Peaches eta Baby Doeren gorpuk bi estatu ezberdinetan jaurti izanak, hiltzailearen aldetik poliziaren barne antolakuntzaren ezagutza sakon bat aditzera ematen zuen. Ama eta alabaren gorpuk bi jurisdikzio ezberdinetan ezkutatu izana erabaki hausnartu eta makur bat zen, hilketa bien aurkikuntza eta ikerketa atzeratu eta eragotziko zituena, polizia agentziak esan dugunez euren lurralde boterea babesten baitute eta euren arteko elkarlana ez baita behar bezalakoa.

Dormer komisarioak onartuko zuen hasiera batean ikerketa ildo hau aintzat hartu zutela. Baina laster baztertu zutela esan zuen, gaur egun oso erraza baita jendeak poliziaren jardunbidearen xehetasunak ezagutzea -zinema edo telesailetatik edota hedabide eta Interneteko agerkarietatik-, eta, hortaz, krimenak eta zantzuak ezkutatzeko eta atxiloketa bat eragozteko modu eraginkorrenak ezagutzea ere.

Konspirazio edo “konspiranoia” kutsu bat zeukan hiltzailea polizia zenaren susmoak, eta ikerketatik baztertu zuten laster serioa ez zirudielako. Baina hura bezalako Internet bidezko ikerlari amateuren “konspirazioak” ez lituzke poliziak beti hain erraz baztertu behar, nahiz eta ganoragabeak izan itxuraz. Zergatik diogun holako zerbait? Bada, susmo haren bigarren zatia, hots, polizia barnetik norbait ikerketa oztopatzen ari zela, zirudiena bezain ganoragabea ez zela frogatuko baitzen denborarekin –geroago ikusiko dugunez-.

Interneteko ikerlari amateuren foro hauetan –websleuths-en esaterako- bi hiltzaileen teoria landu zuten hainbatek, nahiz eta poliziaren ikerketa lerro ofiziala hiltzaile bakarrarena izan. Teoria honen defendatzaileen arabera, bi modus operandi ezberdin nabari zitezkeen LISKen hamar biktimen artean, bi nortasun ezberdin iradokitzen zituztenak. Gilgo Beacheko lau biktimak “garaikur hiltzaile” izeneko baten lana ziruditen. Gorpuk osorik zeuden, hiltzaileak ez

zuen haien identitatea ostendu eta elkarrengandik oso hurbil zeuden guztiak. Honek guztiak, hiltzaileak Gilgo Beacheko inguru hartan bere “garaikur lorategia” eraiki zuela esan nahi zuen, alegia, bere biktimak, bere lorpenak, aldiro bisitatzeko leku bat. Beste sei biktimen kasuan, ordea, hiltzaileak gorpuk mutilatu eta zatitu zituen, ez zituen gorpuk gehiegi ostendu, baina haien identitatea ezkututzen ahalegindu zen. Ezberdintasun hauek biktimok beste hiltzaile ezberdin baten lana zirela esan nahi zuen, teoria honen arabera, “gorputz-enbor hiltzaile” izeneko bat.

Hiltzaile bakarraren teoriari jarraiki, Suffolkeko polizia hiltzailea Long Islandekoa izan behar zuela sinesten zuen. Peachesen edo Jane Doe 7ren gorpuzkiak Long Islanden oso sakabanatuak aurkitu ziren, Manorvillen eta Gilgo Beachen batenak eta Davis Parken eta Gilgo Beachen bestearenak. Distantzia luzetara, konderrri ezberdinetan eta hortaz jurisdikzio ezberdinetan sakabanatu zituen bi biktima horien gorpuzkiak. Horrenbestez, Long Island ondo ezagutzen zuen norbait izan behar zen hiltzailea, inguruetan eroso mugitzen zena.

Ikerketari buruz plazaratutako datu guztiekin, New York Times egunkariak kriminologo eta serieko hiltzaileetan aditu talde bat elkarriketatu zuen LISKen profilaren deskribapen bat lortzeko, haien artean FBIko agente ohi bat gaizkileen profilak egiten aditua. Gaizkileen profilatzea zientzia zehatz bat ez zela aurretik jakinik, honako deskribapen hau argitaratu zuten egunkarian: Ziurrenik gizonezko zuri bat izan behar zuen, 25 eta 45 urte artekoa, ezkondua zegoena edo neska laguna zeukana. Heziketa onekoa zen eta ondo hitz egiten zuen. Finantzen aldetik egoera seguru batean zegoen, lanbide bat zeukan eta auto garesti baten edo furgoneta baten jabea zen. Ospitaleren batean artatu behar izan zuten huntz pozoitsuak eragindako zauriengatik. Bere lan edo zaletasunengatik arpilera zakuak erabiltzen edo pilatzen zituen. Eta Ocean Parkwaytik hurbil bizi zen edo bizi izan zen, inguru hura gorpu guztiak ezkutatzeko erabili izana ezin zitekeelako kasualitatea izan, ingurua ondo ezagutzen zuen norbaiten hautua baizik. Tipo arruntaren itxura izan behar zuen. Arrazionala zen, gizarte harremanetarako abilezia zeukan eta limurtzailea izan zitekeen.

Gilgo Beacheko lau biktimak udan desagertu –eta hil- izanak bestelako zantzuak iradokitzen zituen adituentzat: litekeena zen hiltzailea udan emazte, seme-alaba edo gurasoengandik libre egotea, edo hiltzailearen fantasia edo erritual batzuekin lotura izatea udak.

Arpillera zakuak ere esanguratsuak ziren: erritualaren parte izan zitezkeen edo soilik eskura zeukan biltzeko tresnarik errazena. Arpillera zakuak plastikozko poltsak baino zailagoak ziren aurkitzen eta haien aztarna errazago jarrai zitezkeen, hortaz, FBIko agente ohiaren ustean, hiltzailearen erritualaren parte bat ziren.

Long Islandeko aurreko bi serieko hiltzaileekin, Rifkin eta Shulmanekin, alderatuz, esan dugunez, biktima mota berberak aukeratzen zituzten hirurek, baina LISKek, beste biak ez bezala, leku berean pilatu zituen gorpuk. Horretaz gain, New York Timesen elkarriketatutako adituen iritzian, hirurak “hiltzaile ordenatuak” ziren. Hiltzaile desordenatuak inpulsiibo eta arduragabeak dira, errazak dira atzematen eta sarritan ez daukate serieko hiltzaile deituak izateko nahikoa biktimak. Hiltzaile ordenatuek, oster, bizitza itxuraz arruntak daramatzate, antolatuek, adimentsuak eta heziera onekoak dira. Sarritan, poliziaren jarduerak ezagutzen dituzte.

Eta hiru hiltzaileek motibazio bera partekatu zezaketen ere: Joel Rifkin sadiko psikosexual bezala diagnostikatu zuten, hilketengatik gozamen sexuala eskuratzen baitzuen. LISKek ere antzeko motibazio bat izan behar zuela sinesten zuen FBIko agente ohiak. Amanda Barthelemyri egindako deiek sadiko bat zela iradokitzen zuten.

-Bere eguneroko bizimoduan islatu behar da izaera hori. Auto batek katu bat harrapatzen duenean edo mutiko bat bizikletatik erortzen denean barre egiten duen tipoa da. Besteen oinazeak atsegin zaizkio, eta berak eragin edo ikusi ditzakeenean benetan gustuko ditu.

Baina adierazpen hauek ikerketatik kanpo, modu ez ofizialean egin ziren. FBIk eskaintza egin bazuen ere, ez zen hiltzailearen profil ofizial bat egin. FBIren laguntza zeukanean ere, Suffolkeko polizia ez zen gaizkileen profil ofizialak egitearen aldekoa. Profil ofizial bat izanez gero, eta atxiloketaren bat egingo balute, susmagarria profileko daturen batekin bat ez baletor, abokatuek haren defentsan erabil zezaketela zioten Suffolkeko poliziatik.

Edonola, atxiloketarik ez izanik ere, ikerketa ez zegoela geldialdian ziurtatzen Dormer komisarioak, aurrera zihoala. Eta baita biktima gehiagoren bilaketak, Shannan Gilbert ez baitzen oraindik agertu.

IX – 2011: MARI GILBERT ETA JOHN RAY

Aurkitutako hamar biktimen kasuekin alderatuta, Shannan Gilberten desagerpenaren kasuan funtsezko ezberdintasunak zeuden: Shannan ez zen bakarrik eta telefonorik gabe joan bezeroarekin elkartzera, lagunduta baizik, eta, gauaren erdian desagertu baino lehen, erdi zoratuta korrika ikusi zuten lekukoak bazeuden.

Hala ere, Mari Gilbert eta bere alabek eta baita hauen abokatuak, John Rayk, Shannani beste hamar biktimei gertatutakoaren antzeko zerbait gertatu zitzaioela beldur ziren, eta polizia ez zela behar bezalako arduraz haren desagerpena ikertzen ari salatzen zuten.

LISKen hamar biktimen kasuan haien bezeroa izan bazen hiltzailea, Shannanen kasuan ere bezeroa izan behar zen lehenbiziko susmagarria. Joseph Brewer itaundu eta ikertu zuen Suffolkeko poliziak, baina laster baztertu zuen susmagarri bezala. Brewerek berak esango zuenez, Shannanek 911 zenbakira egindako deia grabazioak poliziak bera errugabetzat jotzen lagundu zion. (Brewerek Oak Beach auzoko bere etxea, The Fairway kaleko 8. zenbakia, salduko zuen eta beste leku batera bizitzera joango zen, hedabideen etengabeko galdeketa eta zelatatzeetatik ihes egite aldera.)

911rako deian “nire atzetik dabilta” omen zioen Shannanek, eta haren atzetik lekukoek –Gus Colettik, kasu honetan- ikusi zuten pertsona bakarra asiar jatorriko auto gidaria izan zen. Michael Pak ere itaundu zuen poliziak eta gezur detektagailu bat ere gaintu zuen, susmagarri bezala baztertua izan baino lehen. Pakek ere esango zuen 911rako deia grabaketak lagundu ziola. (Shannan urduri, erdi erotuta, korrika ikusi zuen beste lekukoak, Barbara Brennan andreak, Oak Beachetik alde egin zuen ere, kasuak sortutako harrabotsatik ihes. Gus Colettik ez, Gus Coletti kasuarekin harremana zeukatenen artean Oak Beachen geratuko zen bakarra izan zen, baina kasua argituta ikusi gabe zenduko zen.)

Baina beste hirugarren funtsezko susmagarri bat ere bazegoen Gilbert sendiaren iritzian, poliziak behar bezala ikertu ez zuena: bere burua kasuaren erdian bere borondatez sartu zuen Peter Hackett doktorea. Mari Gilbertek zioenagatik, Hackett doktoreak 2010eko maiatzaren 3an –astelehenean- deitu zion, Shannanen mutil lagunak honen desagerpena jakinarazteko deitu baino lehen. Eta zera esan ziola errepikatzen zuen Marik, Shannan bere etxean zegoela, kaleetatik irten nahi zuten neskenzat errehabilitazio etxe bat zeukala berak eta Shannan bertan zegoela.

Shannan bila Oak Beacheraino joan zirenean, Gilbertarrek Hackettekin topo egin zuten eta dei hauei buruz galdetu zioten. Halako deiak egin izana ukatu zuen Peter Hackettek –telebista kameran aurrean ere egingo zuen- eta Shannan ez zuela sekula ikusi esan zuen. Baina Mari Gilberten telefono zenbakiaren deien zerrenda historikoak oso bestelako zerbait frogatu zuen: Hacketten emaztearen sakelako telefonotik ez zuen dei bat bakarrik jaso, bi baizik, maiatzaren 3an eta 6an.

Poliziaren aurrean erantzun behar izan zuen Hackettek dei haien arrazoi eta edukiari buruz. Hasiara batean dei haiek egin izana gogoratzen ez zuela esan zuen, dei ugari egin eta jasotzen dituen pertsona bat zelako. Baina, gogora ekarri zizkionenez, Mari Gilbertek esaten zuena berak

ez zuela inoiz esan mantendu zuen. Shannanen bila ari ziren lagun batzuek –Alex Diazek eta Michael Pakek- eskatu ziotelako deitu zuela adierazi zuen, Oak Beacheko bizilagunen elkartearen izenean haren familiari babesa eskaintzeko.

-Uneren batean ere ez nuen iradoki Shannanekin topo egin nuenik edo hari nolabaiteko mediku artatzerik eskaini nionik –errepikatu zuen Hackettek.

Baina Gilbertarrek ez zuten holakorik sinesten.

-Deiak egin izanari buruz gezurra esan bazuen, zergatik ez da deien edukiari buruz ere gezurretan ariko? Beste zenbat gauza ezkutatzen ari da? –esango zuen Mari Gilbertek.

Poliziak laster baztertu zuen Hackett susmagarri bezala eta Mari Gilbertek polizia “beraietako bat” babesten eta haren gaiztakeriak estaltzen ari zela aldarrikatu zuen. Egia zen Peter Hackettek iraganean Suffolk konderriko larrialdi zerbitzuan lan egin zuela –ez polizia departamentuan zehazki-, mediku eta zirujau bezala, baina ez zen babestu beharreko inolako pertsonaia boteretsu edo garrantzitsurik. Ostera, bere jokaera xeblebrengatik ezaguna zen Hackett Suffolkeko polizian. Hasteko, konderriko bere lanpostutik kaleratu zuten, laneko telefonoa lanorduetatik kanpo erabiltzeagatik. Bestalde, konderrientzat lan egiten zuen garaian esanguratsua izan zen, eta oraindik gogoratzen zuten bere lankide ohiek, 1996an Suffolkeko polizia departamentua nola lotsarazi zuen Hackettek. Urte hartan, uztailearen 17an, TWAren 800. hegaldiaren tragedia gertatu zen. JFK aireportutik irten eta 12 minutura, Suffolk inguruan, Boeing 747 hegazkin batek eztanda egin zuen airean. Barnean zeramatzan 230 pertsonak hil ziren. Irudika daitekeenez, hegazkinaren eta biktimen aztarnak Long Island zehar barreiatu ziren. Bada, une hartan, munduko begi guztiak Suffolk gainean jarriak zeudenean, Peter Hackett doktorea albistegietan agertzen hasi zen ikerketari buruz –ustezko- informazioak ematen, ikerketaren arduradunetako bat balitz bezala.

Horrenbestez, Suffolkeko poliziarentzat, Peter Hackett bere buruari zeukana baino garrantzi handiagoa ematen ohitua zegoen gizagaixo bat baino besterik ez zen. Besamotz zen Hackett eta protesi bat zeraman, eta horrek, agian, nolabaiteko konplexua eragiten zion eta, konpentsazio mekanismo bezala-edo, bere buruari garrantzia ematen zion eta arazoan erdian jartzen zen. Laburbilduz, poliziaren jargoian, Hackett “urtxintxa” bat zen, hau da, harrabots handirik sortu gabe atxilotu daitekeen norbait.

Peter Hackett bere emazte, seme eta alabarekin bizi zen Oak Beacheko bere etxean, eta Shannan desagertu zen gauean laurak etxean zeudela frogatu zuen poliziak. Hortaz, ez zen sinesgarria Hackettek Shannanen desagertuarekin –edota LISKen biktimen heriotzekin-harremana izan zezakeenik: Bi bizitza ezberdin ote zeramatzan eta bata bere familiari ezkutatzen zion? Urtetan? Edo bere familia osoa desagertu edota hilketetan konplize ziren? Posibilitate biak zentzugabeak ziren.

Hacketten abokatuak esango zuenez, bere bezeroak laguntzen ari zela sinesten zuen, deiak egin zituenean, baina oker zegoen.

Oak Beacheko beste bizilagun batzuek, ordea, Mari Gilbert eta Ray abokatuaren teoriak indartu zituzten. Hackettek, doktorea izanik, DEAREN lizentzia bat zeukan, X maila edo zeinua zeukana, alegia, opioideak preskribatzeko eskubidea ematen ziona. Horren harira, Joe Scalise izeneko

bizilagun batek kontatuko zuen, Hackett, poliziatik kaleratu zutenetik, ia droga saltzaile bat bezala aritzen zela Oak Beacheko bizilagunekin, medikamentuak preskribatzeko zeukan eskubidea baliatuz. Baina gehiago kontatuko zuen Scalisek: honen arabera, Tom Canningek esan zion Peter Hackettek lasaigarri bat eman ziola Shannan Gilberti, desagertu zen gauean – gogoratzen dugunez, Tom Canning, Barbara Brennanen deiari erantzunez txakurrarekin agertu zen bizilaguna zen, eta Peter Hacketten laguna-. Tom Canningek, bere aldetik, Hackettek ez zuela sekula Shannan ikusi adierazi zuen, eta Scalise zoro zegoela. Egia esan, Scaliseren adierazpenak edozein jabeen komunitatetan gertatzen diren urtetako lehia eta liskarren beste adibide bat baino besterik ez ziruditen –konspiranoiak maila gorenera eramanez, hori bai-.

Hacketten aurkako susmoak mantendu eta areagotzeko beste zantzu batzuk ere aurkituko zituzten Mari Gilbertek eta Rayk. Adibidez, Oak Beacheko segurtasun kameren grabazioak ezabatu izana. Shannanen ibilbideari buruz zeuden frogak ikusita, Oak Beacheko bi segurtasun kamerak grabatu behar izan zuten haren ihesa, sarrerakoak eta Anchor Bay kalean zegoenak. Norbait Shannanen atzetik ibili bazen edo hark norbaitekin topo egin bazuen, kamera haien irudiek frogatuko zuten. Baina gau hartako irudiak ezabatuta zeuden poliziak eskatu zituenerako. Eta segurtasun kamerak Bizilagunen Elkartearen Batzordeak kudeatzen zituen. Eta batzordeko arduraduna Hackett omen zen. Nahikoa zen hau Marirentzat –eta Rayrentzat batez ere, honek errudun bat behar baitzuen- Hackett zerbait ezkututzen ari zela frogatzeko.

Azkenik, Hackettek Mari Gilberti egindako bigarren deiaren aztarna, maiatzaren 6koarena, ez zetorren Long Islandetik, baizik eta New Jerseyko dorre batetik. Susmagarria gertatzen zen hau, New Jersey bizi baitzen Shannan; baina gainera, Hackettek adierazi zuen ez zela New Jersey egon garai hartan –gezur gehiago?-. Mariren ustez Hackett egia ukatzen ari zen berriz ere. Eta Rayren ustez, jokaera hau LISkenarekin bat zetorren: Amanda Barthelemyri ere deiak egin zizkion hiltzaileak eta leku jendetsuetatik ere. Zertan zebilen Hackett desagertuaren bizilekuan?

Kasua zen, nahiz eta Gilbertarrek eta haien abokatuak aurkakoa uste, poliziak Shannan bilatzen jarraitzen zuela, ordura arte ikasitakoa baliatuz. Ocean Parkwayko bide bazterrak goitik behera miatuta zeudenean, Oak Beachera itzuli zen bilaketa, eta zehatzago, Oak Beacheko etxeen eta Ocean Parkway errepidearen artean zabaltzen zen padurara. Lehenago ere, ikerketaren hasieran, eremu hori arakatua zuen poliziak, Shannanen azken urrats ezagunak harantz zuzentzen zirela baitzirudien, baina ez zuten ezer aurkitu eta bilaketa esparru zabalago batean jarraitu zuten. Baina azken urte eta erdian Ocean Parkway bazterreko sasi artean zerbait ikasi bazuten, zera izan zen, zantzu asko begi aurrean izanda ere askotan ikusten ez direla. Horrenbestez, Oak Beacheko padurako lupetza eta bihi itxien artean berriz arreata handiagorekin miatzera itzuli ziren. Suhiltzaileen kamioiak ere ekarri zituzten oraingoan, airetiko ikuspegia zein lagungarria zen jakinik.

Luzeran bi kilometro inguru zeuzkan padurak, eta zabaleran 330 metro inguru. Zentimetroz zentimetro miatu zituzten agenteek eta txakurrek. Eta 2011ko abenduaren 11an, Shannan desagertu zen egunetik 18 hilabete beranduago, haren prakak, zapatak eta diru-zorroa aurkitu zituzten basa artean. Handik aste betera, lehenbiziko aurkikuntzatik lauhun metrora, Shannanen eskeletoa aurkitu zuten.

Aurkitutako gorpuzkiak aztertu ondoren, forentseak Shannan Gilberten heriotzaren kausa zehaztu ezin zitekeela ebatzi zuen bere txostenean. Bestalde, Shannanen gorpuzkietan droga

aztarnarik ez zela aurkitu bazioen ere forentsearen txostenak. Shannan desagertu zenean drogek eragindako egoera psikotiko batean zegoela uste zutenen teoria baliogabetzen zuen honek; baina baita Gilbert familiaren teoria, hots, Peter Hackettek Shannani nolabaiteko lasaigarriren bat eman ziola. Edonola, Dormer komisarioak esango zuenez, aurkitu zutena eskeleto bat baino besterik ez zen, ez zegoen aztertzeko materia gehiegirik.

Forentsearen ebazpenak zalantzak eragin zitzakeen arren, Suffolkeko poliziak Shannan LISKen biktima ez zela uste zuen, ezbehar baten ondorioz hil zela baizik. Shannan urduri eta ero moduko egoera batean paduran sartu zen, zapatak lupetzan hondoratuta eta bihi itxien artean aurrera, ihesean. Arto edo gari zelai batean bezala, ezer ikusi gabe gaueko azken minutuetan aurrera egin zuen, irteera baten bila. Baina irteerarik ez zegoen. Arropak, bustita eta basaz, pisu gehiegi hartzen zihozten eta aurrera jarraitzea eragozten zioten. Zapatak eta prakak erantzi zituen arinago mugitu ahal izateko eta aurrera jarraitu zuen. Erdi biluzik, Long Islandeko kostaldeko gau hotzean. Bustita, akituta, hotzak jota, azkenean shock batek hilda buruz behera erori zen lupetzan.

Gilbert ama-alabek ez zuten poliziaren bertsioa sinesten eta Shannan norbaitek hil zuela mantentzen zuten. Antzekotasun gehiegi zegoen haien iritziz LISKen biktimen eta Shannanen heriotzaren artean, haien artean loturarik ez zegoela ziurtzat emateko: sexu langileak ziren guztiak eta Craigslist bidez ezagututako bezero batekin egon ondoren desagertu ziren guztiak, eta gainera LISKen biktimen gorpuak Shannan desagertu zen lekutik 7 km-ra baino besterik ez ziren aurkitu. Gehiegizko kasualitatea Gilbertarrentzat. Eta hauen abokatu Rayrentzat.

Ray abokatu bat zen, ez borondate oneko erakunde baten ordezkaria. Mari Gilbertengana hurbildu zenean, Shannanen kasuan Gilbert familiaren interesak ordezkatzeko asmoarekin, Rayren azken fineko xedea ikusgarritasuna eta dirua lortzea zen, ez justiziaren kontzeptu ideal bat, diru sarrerarik eragiten ez zuena. Mari Gilbertek ez zeukan abokatuak ordaintzeko dirurik, eta halaxe nabarmendu zuen sarritan Rayk berak: Shannanen kasua ikertzeko eta aurrera bultzatzeko berak diru asko aurrerratu zuela eta ez zuela ezer kobratzen. Hortaz, argi zegoen Rayk bilatzen zuena Gilbertarrentzat kalte ordain garrantzitsu bat lortzea zela, haren zati oparo bat eskuratu ahal izateko komisio bezala. Errudun bat behar zuen Rayk. Norbaiten aurka auzibide bat hasi beharra zeukan Rayk, eta auzitegiak errudunari kalte ordain bat ezarri ziezaiola. Eta Shannan ezbeharrez hil bazen ez zegoen errudunik. Bat-batean Shannanen kasuak balizko diru iturri bat izateari utzi zion, eta Rayk kasuan inbertitutako diru, denbora eta esfortzuak galdutzat eman beharko zituen.

(LISKen eta Shannan Gilberten inguruko beste erreportaje eta artikuluetan ez da, haietako batean ere ez, aurrekoak bezalako iruzkinik aurkitzen, agian Ray abokatuaren auzibide baten beldurragatik. Baina lerro hauek haren belarrietara iritsiko ez direla ziur gaudenez, argi utzi nahi dugu hemen, gure iritzian, Rayren jarrerak eta asmo ezkutu baina nabariak zenbat kalte egin zioten Shannanen heriotzaren inguruko ikerketari eta, aldi berean, LISKen biktimenari ere.)

Hackett errudun bezala salatzen tematu zen Ray, Gilbert familiaren izenean. Hacketten etxea, txalupa eta autoa ez zirela behar bezala miatu salatu zuen. Shannanen gorpua aurkitu zen lekuko lurra ezta ez zela aztertu salatu zuen ere, Shannan bertan usteldu ote zen edo ez frogatzeko. Hilketen ikerketa arruntenetan egin beharreko gauza asko ez zirela egin eta egin behar ez zirenak egin zirela esan zuen Rayk. Poliziaren arduragabekeria hauek guztiak

susmagarriak zirela eta polizia Hackett babesten aritu zela mantentzen jarraitu zuen Rayk hedabideen aurrean.

Azkenik, 2012ko azaroan, Gilbert sendiak, Peter Hacketten aurkako auzibide zibil bat hasi zuen, Shannan Gilberten heriotzagatik. Demandak ez zioen Hackettek Shannan borondatez hil zuenik. Breweren etxetik ihes, Hacketten etxean sartu omen zen Shannan, demandaren arabera, eta bertan Hackettek lasaigarriaren bat edo bestelako drogaren bat eman zion eta etxetik irteten utzi zion. Mari Gilbertek demandan adierazten zuen Hackettek telefonoz esan ziola Shannan bere etxean egon zela eta lasaigarri bat eman ziola. Horren eraginpean Shannan galdu eta azkenean hil omen zen.

Hackettek ez zukeela Shannan egoera hartan etxetik irteten utzi behar, zioen Mari Gilbertek, Shannanen heriotza ekidin ahal izan zuela Hackettek. Eta ondorioz kalte ordaina eskatzen zioten.

Odurako Hackett Floridan bizi zen, Oak Beachetik eta Shannanen kasuaren harrabotsetik ahal bezain beste urrunduta.

Epaia ez zen Gilbertarren –eta Rayren- eskaeren aldekoa izan.

Baina Rayk –eta Gilbert sendiak- ez zuen etsi. 2015ean Michael Baden doktoarearen zerbitzuak kontratatu zituzten. 80 urte zeuzkan Badenek orduan eta erretiratuta zegoen, baina 1961etik 1986ra arte New York hiriko forentse bezala lan egin zuen, eta 1978 eta 1979 artean hiriko forentse nagusia izandakoa zen. Urte haietan guztietan 3.000 hilketa baino gehiago ikertu zituen, haien artean John Fitzgerald Kennedy presidentearena eta Martin Luther Kingena, eta suizidio eta droga gaitzosiak ere. Ospe handiko forentsea, hortaz. Eta garestia, ziurrenik.

Shannanen gorpuren autopsia independente bat eskatu zuen Gilbert sendiak, eta Badeni eman zion enkargua.

-Oso arraroa da neska bat itota hiltzea, beste lau neska gazte itoarazita agertu diren tokitik ehunka metro batzuetara. Ez da estatistikekin bat datorren zerbait –adieraziko zuen Badenek bere eskarmentudun iritziarekin.

Shannanen gorpua aztertu ondoren, hioide hezurraren erdian zirkulu itxurako zulo txiki bat nabaritu zuen Badenek, ertz latz bat zeukana, haustura bat iradokitzen zuena.

-Hioide hezurak urradura bat dauka. Haustura bat balitz urradura hori, Gilbert andereñoa itoarazi zutenaren zantzu indartsu bat litzateke –jakinarazi zien Badenek kazetariei.

Poliziaren forentseak egindako argazki originalak eta X izpiez egindakoak aztertu beharko zituela gaineratu zuen, ondorio ziurragoak ateratzeko. Edonola, hioide hezurraren inguruko kartilagoa ez zela kontserbatzen nabarmendu zuen Badenek, eta aldi berean txosten originalean galdu zenik ez zela aipatzen. Behin autopsia bukatu eta gero ehun bigunak ez kontserbatzea ohiko prozedura zela onartzen zuen Badenek, ez zegoela horren atzean frogak ezkutatzeko asmorik, baina hioidearen inguruko kartilagoaren laginik gabe ezingo zuen ziur heriotzaren kausa zehaztu.

-Itotze kasuetan gorpua ia beti buruz behera agertzen da, ez gora begira –Shannanen kasuan bezala-. Nahikoa zantzu dago bigarren begirada bat botatzeko.

Badenen adierazpen honek zalantzak eragin zitzakeen ere, baina forentsearen txostenak ez zioen inon Shannan itota hil zenik, haren heriotzaren kausa zehatzezina zela baizik; eta poliziaren teoria Shannan hotzak eta nekaldiak jota hil zela zen.

Badenek ondo erantzun zion Gilbert eta Rayren eskaerari, Shannanen heriotzaren inguruko zalantzak bizirik mantentzeko, baina ez zuen errudun bat -borondatez edo arduragabekeriaz- aurkitzeko balio izan.

2015eko martxoan ehortzi zuten azkenean Shannan Gilberten gorpua Amityvilleko hilerrian.

Bitartean, Shannanen gorpua aurkitu zuten unetik bertatik eta ehortzi zuten arte, LISKen biktimen ikerketak bira bihur bat jasan zuen –eta harekin ezinbestez lotuta zegoen Shannan Gilbertenak ere, jakina-.

X – 2012: THOMAS J. SPOTA ETA JAMES BURKE

2011ko abenduan, Shannan Gilberten gorpua aurkitu eta egun gutxitara, Suffolkeko Ahaldun Nagusi hautatu berriak, Steve Bellonek, hurrengo urtarriletik aurrera konderriko polizia departamentuko nagusia James Burke izeneko polizia bat izango zela iragarri zuen.

Aipatu dugunez, garai hartan, poliziaren komisario Richard Dormerek eta Distritoko Fiskal Anthony J. Spotak eztabaida sutsu bat izan zuten Suffolkeko batzar legegilearen aurrean, LISKen krimenen atzean zegoen hiltzaile kopuruari buruz –Dormer hiltzaile bakarraren teoriaren aldekoa zen eta Spota hiltzaile anitzenaren aldekoa-. Liskar honek Suffolkeko polizia departamentu eta Distritoko Fiskalaren bulegoaren artean zeuden tirabirak agerian jarri zituen, LISK eta Shannan Gilbert kasuetatik haratago zihoazen arrazoi sakonagoak izan behar zituztenak.

Spota fiskalak polizia departamentuan gehiago esku hartu nahi zuela argi zegoen, Suffolkeko politika eta botere borrokei buruz zerbait zekien edonorentzat. Eta James Burkeren izendapenarekin Spotak irabazten zuen borroka, azkenean polizia departamentuaren gailurrean bere “gizona”, bere “eskuin eskua” jartzea lortzen baitzuen. Izan ere, eta xehatuko dugun moduan, James Burke beti izan baitzen Spotak polizia departamentuan zeukan besoa. Burkek komisario zibil bat izango zuen bere gaineratik, ordura arte Richard Dormer izan zena, Spotaren aurkaria, baina Dormerek 2011ko abenduan hartuko zuen erretiroa, justu Burkeren agintaldia hasi aurretik. Aurrerantzean komisarioaren agintea teorikoa izango zen eta praktikan guztiak jakingo zuten nork agintzen zuen polizia departamentuan. Halaxe azpimarratu zion Steve Bellone ahaldunak Newsday egunkariari:

-Komisario kargurako hautatuko dudan pertsonak Burke maitatu beharko du. Ez badu maitatzen, ez da kargurako egokia izango.

Edonola, Spotak irabazten bazuen ere, izendapen legezko eta demokratiko bat izan zen Burkerena, Ahaldun Nagusiak izendatu baitzuen, ez Spotak berak –horrelakorik bere esku ez baitzegoen-. Hala izan al zen? Bai, hauteskundeak izan ziren 2011 hartan Suffolken, esan dugunez, eta haietara aurreko Ahalduna, Steve Levy, ez zen berriz hautatua izateko aurkeztu. Bada, Levyren erabaki hau Spota fiskalarekin hitzartutako itun baten parte zen, Spotak esku artean zeukan ikerketa bat geldiarazteko –egun ez dakigu Levyk delituren bat egin ote zuenetz-. Erraz nabari daiteke, hortaz, Bellone Spotaren beste beso bat zela, konderriko botere exekutiboan kasu honetan.

Botere borrokek eta agintari aldaketek Suffolkeko poliziaren lanaren gainean eragina izango zuten eta, horien artean, jakina, LISK eta Gilbert kasuen gainean –baldin bi kasu ezberdin baziren-. Norainokoa?

Burkeren izendapenarekin batera, Varrone detektibeen nagusiak eta Patrick Cuff patruila nagusi batek esango zutenez, beraiei eta beste bi departamentutako nagusiei, hilaren amaierarako erretiroa hartu beharko zutelak esan zieten edo bestela kargugabetu eta kapitain izendatuko zituztela. Cuff izan zen kargugabetzea onartu zuen bakarra, finantzen aldetik ez baitzegoen erretiroa hartzeko prestatuta. Beste hirurak euren etxeetara bidali zituzten. Suffolkeko historia osoko ikerketa handienaren erdigunean zeuden poliziak ziren guztiak, zehazki Varrone ikerlari

edo detektibeen nagusia zen, eta bat-batean handik eskuak kendu behar izan zituzten. Varronek espero zuen kasuaren inguruan zeukan eskarmentua eta ezagutza aintzat hartuko zutela agintari berriek, ikerketarekin aurrera egiteko, baina nagusi berriekin informazioa eskualdatzeko aukerarik ez zioten eman. Dormer komisarioak, bere erretiroa aurreikusita bazegoen ere, departamentu barnean eskualdaketarik ez zela eman berretsi zuen, Burke ez zela berarekin edo Varronerekin inoiz mintzatu.

Hurrengo urtean, 2012ko amaieran, FBIk Spota fiskalaren bulegoari LISK hiltzailearen profil bat egitea eskaini zion –“Mindhunter” telesailean gertatzen den antzera-, baina fiskalaren bulegoak eskaintzari uko egin zion. Garai berean, Burkek, FBIrekin elkarlanean ari ziren bi ofizial lekualdatu zituen. 2010ean sortu zen FBI eta Suffolkeko poliziaren arteko lantaldea, MS13 hondurastar bandak Brentwood eta Central auzo latinoetan zeukan botereari eta eragiten zuen bortizkeriari aurre egiteko. MS13ko partaideak hilketa bortitz kate baten arduradunak ziren eta hilketa haiek argitzeko konderriak FBIren laguntza behar zuen. Lantaldearen barnean John Oliva eta Willie Maldonado izeneko ofizialen lana oso preziatua zen, jatorri latinokoak izanik auzoetako bizilagunen konfiantza lortzen zutelako. Bada, talde honen enkargua oraindik abian zegoenean, 2012ko irailean, Burkek Oliva eta Maldonado taldetik atera eta auzo baketsuagotara lekualdatu zituen. Haietako batek, geroago jakingoenez, funtsezko aitormen bat lortzear zebilen. Euren kuarteletan bueltan, babes eta laguntzarik gabe aurkitu ziren bi detektibeak.

Erabaki hauek argi uzten zuten Spota eta Burke FBIk Suffolken zeukan presentzia murrizten saiatzen ari zirela. Zer zela eta? Zergatik ez zuten nahi FBIk LISK kasua iker zezala? Susmoak hauspotu zituen honek. Burkek LISKen hilketekin nolabaiteko harremana zeukala eta kasua argitu ez zedin jokatzeko ari zelako zurrumurrua zabaltzen hasi zen. Baina agian Burkek FBIri zion beldurra LISK kasutik harago zihoan.

Nor zen benetan James Burke susmagarri hori? Nola iritsi zen New York estatu osoko hoberen ordainduta zegoen polizia departamentuko nagusi izatera, 2.500 ofizial dauzkan polizia gorputz baten nagusi izatera? Bada, salbuespen bat zen Burke, zeukan espedientearekin, beste edozein polizia departamentuan ez bailitzateke buruzagi kargurako hautagairik izango. Baina Suffolk arau askoren salbuespena zen.

James Burke eta Thomas Spotaren arteko harremana askoz lehenago hasi zen, 1979an, Burkek 14 urte baino besterik ez zeuzkanean, Long Islandeko historiako krimen esanguratsuenetarikoa batekin. Urte hartan, apirilaren 21ean, Joseph Sabina izeneko bizilagun batek John Pius, 13 urteko gaztetxoa, Dogwood institutuaren aurrean etzanda geldirik topatu zuen. Norbaitek harriak sartu zizkion indarrez eztarrian eta itota hil zen. Kasua orduan fiskal gazte bat zen Thomas J. Spotari esleitu zioten. Spotak ez zuen froga zuzenik aurkitu baina, azkenean, Smithtown hiriko lau gazte errudun jotzea lortu zuen, haietako baten aitormenean eta haien lagun baten, James Burkeren, lekukotzan oinarrituta. Une hartan kasuaren begirale askok zalantzan jarri zuten Burkeren beraren erantzukizuna, aitortu zuenagatik ez baitzuten bere lagunaren ekintzak geldiarazi edo oztopatu. Lau gazteen aurkako epaiarekin ez zen kasua itxi, hurrengo urteetan hainbat helegite jarri baitziren haren aurka eta haietako batean zigortutako baten aitormena froga bezala baliogabetu egin zen. Oraindik egun teoria anitz dabil benetan gertatu zenaren inguruan, Piusen aita zela hiltzailea, droga saltzaile batek egin zuela... Kasuarekin urtetan harremana izan duten askoren ustean, zigortutako lau gazteak errugabeak

ziren. Baina Spotak harrabots handiko kasu batean bere salaketaren aldeko epai bat lortu zuen, Distrituko Fiskalaren bulegoan gora egiten bultzatuko ziona, Burkeren laguntzarekin.

Eta jakina, Burkeren lekukotzaren sinesgarritasunaren inguruan ere zalantzak daude. Burke garai hartan maila txikiko lapur eta droga saltzailea zela diote orduan ezagutu zutenek. Marihuana eta haluzinogenoak saltzen omen zituen eta 1979an marihuana saltzea egun baino arazo larriagoa zen. Horrenbestez, Pius kasua ondo ezagutzen dutenek diote Spotak erraz manipulatu zezakeela Burke: honen txikizkako krimenengatik Burke kartzelan sartzeko nahikoa zio zeukan Spotak, baina laguntzen bazion eta berak eskatzen zuen lekukotza ematen bazuen, bertan behera utziko zituen Burkeren aurkako salaketak.

Antza denez, Spotarekin egindako ustezko lehen itun hura atsegina gertatu zitzaion Burkeri, zeren, garai hartako eskola lagun batek dioenagatik, jada orduan Burkek polizia izan nahi zuela esaten zuen, legea urratu eta libre atera ahal izateko.

Ofizialki 1986ean sartu zen Burke Suffolkeko polizia departamentuan, 21 urterekin. 1991ean, 26 urterekin, sarjentu izendatu zuten, eta jada orduan Spotaren konfiantzazko gizona omen zen. Bi urte geroago, 1993an, Barne Arazoetako ikerketa baten objektu izan zen. Ikerketa honen txostenaren arabera, Burkek bere polizia autoan sexu harremanak izan zituen Lowrita Rickenbauer izeneko prostituta eta droga saltzaile batekin. Burkeren jurisdikzioan behin baino gehiagotan atxilotua izandakoa zen Lowrita, hortaz, Burkek soberan jakin behar zuen norekin zebilen. Gainera, Lowrita Rickenbauerekin irten zeneko batean, pistola galdu zuen. Burke ezagutzen zutenek txostenetik kanpo bestelako portaeraren bat gelditu zela gaineratzen dute, Burkek droga saltzaileei estortsioa egiten ziela drogak lortzeko hain justu, eta bere neska lagunarekin hartzen zituela.

Horrelako txosten batekin beste edozein poliziak ez luke sekula departamentuan gora egingo – kaleratu ere ez balute-, bestelako laguntzarik baldin ez balu. Baina Burkeren aurkako txostenak ez zuen eragin handirik izan haren karreran, are gehiago, orbainik gabe biziraun zuela esan daiteke. Izan ere, txostenean bertan esaten zen Burke “kaleko polizia ona zela eta tokiko jendearen ezagutza xehea zeukala”. Hala uste zuten ere garai hartan ezagutu zutenek: nartzisista hutsa zen, baina atsegina izan zitekeen hala nahi baldin bazuen. Polizien polizia bat izatearen sona zeukan eta bere adimen naturalak unibertsitate ikasketak ez izatea konpentsatzen zion. Jendaurrean hitz egitean inspiratzailea zen. “Starsky” deitzen zioten orduan bere lankideek, erdi txantxetan erdi miresmenez. Bere jurisdikzioko Urteko Ofiziala izendatu zuten Burke ere. Bestalde, sexuarekin obsesionatuta zegoela diote ere. Noizbait drogak hartzen ikusi zuen baten batek, baina bere benetako zaletasuna emakumeak ziren, ez drogak.

Horrela, Burke polizia departamentuko nagusi izatera iritsi zitekeela uste ote zuten galdetzean, erantzuna ez bairik gabekoa da garaiko lekuko batentzat: inola ere ez, mozkor gidatzeagatik poliziatik botako zutela uste zuten, baina Spotaren mutila zen eta horrek salbatzen zuen.

Eta halaxe gertatu zen. 2011an, buruzagi izendatuko zuten urtean, polizia auto batekin talka egin zuen mozkor gidatzen ari zela. Ezbeharraren lekutik alde egin zuen eta ez zion poliziarri informatu. Gero, delitua ezkutatzeko, konponketa guztiak ordaindu zituen –milaka dolarrak.

Sexuarekin obsesionatuta omen zegoen polizia bat, prostitutekin harremanak izateagatik ikertua izan zena eta, horretarako eskumena izan zuenean, FBIren begiak bere aldamenetik aldentzen saiatu zena: laburbilduz, LISKen hilketen atzean zegoen pertsona izateko susmagarri proposa. Bada, horrela gertatu zen, James Burkek LISKen hilketekin edo haietako baten batekin harremana izan zezakeelako zurrumurrua zabaldu zen. Baina Burkek ez zuen agintari federalen gainbegirada aldendu hiltzaile psikopata bat zelako, Suffolkeko polizia eta fiskaltzan nagusi zen ustelkeria ezkutatzen ahalegintzen ari zelako baizik.

Egitura ustel horren gailurrean, edo egitura osoko irudi nagusietako bat bezala behintzat, Thomas J. Spota Distritoko Fiskala zegoen. 2002an iritsi zen Spota Suffolkeko Distritoko Fiskala izatera eta orduantxe izendatu zuen Burke bere bulegoko ikerlarien nagusi. Aurretik ere, fiskal bezalako bere lanean Spotak etikaren aurkako jarduerak izateagatik salaketak jaso zituen. Fiskal bezala parte hartzen zuen kasu kriminaletan, biktimaren abokatu zibil bezala jarduten zuen. Zer suposatzen zuen honek? Akusatuaren aurka zenbat eta zigor handiagoa lortu, harik eta handiagoa izango zen ere normalean biktimaren aldeko kalte ordaina, eta horrela Spotak, legea defendatzeaz gain –fiskalaren lana- diru sarrera handiagoak lortzen zituen. Horretaz gain, maila goragoko ustelkeria zantzuak ere bazeuden Spotaren gainean. Aipatu dugu 2011ko hauteskunde exekutiboetan Spotaren aldeko hautagaia, Bellone, hautatu zutela aurreko Ahaldu Nagusia ez zelako aurkeztu. Baina Spota bera ere birritan hautatuko zuten aurkaririk gabe. Azkenengo hauteskundeetan konderriko lau alderdiek, demokratak, errepublikanoak kontserbadoreak eta independenteak, euren babesa aurkeztu zioten. Ray Perini izeneko fiskal errepublikano bat Spotaren aurka aurkeztu saiatu zen, baina bere alderdikideek iritziz aldarazi zuten. Poliziak bere aurkako ikerketa bat hasi zuela salatu zuen Perinik.

Polizia indarrez gain, botere politiko maila handia zeukan Suffolkeko poliziak, hiri handi bateko polizia departamentuan pentsaezina litzatekeena. Botere politiko hori mantentzeko eraikitako ustezko egitura ustelaren oinarrian dirua zegoen, poliziek irabazten zituzten soldata izugarriak. Suffolken polizia lana ez zen klase ertaineko lanbide bat, oster, EEBBetako hoberen ordaindutako polizia gorputzen artean zegoen Suffolkekoa. Ofizialek 125.000 dolarreko soldata jaso zezaketen, New York hiriko bere pareko lankideek baino 50.000 dolar gehiago. Honetaz aparte ordu estrak eta antzinakotasunagatik ere kobratzen zuten. Detektibe eta sarjentuek urtean 200.000 dolar ere irabaz zezaketen. Burkek berak, esaterako, urtero 200.000 dolar baino gehiago irabazten zituen bere azken karguan. Sistema jasanezin bat eraiki zuten poliziek, urtero ehunka milako ordainsariak jasoz, konderrira gainbehera fiskalean zegoen bitartean. Eta sistema hura mantentzeko, politikariak, botere legegile eta exekutiboa, kontrolatu behar zituzten poliziek.

Nola? Suffolkeko poliziak “Long Island Law Enforcement Foundation” izeneko Super PAC bat sortu zuen. Super PAC izeneko erakundeek donazioak jasotzen dituzte, kopuru mugarik gabe, jendearengandik, enpresengandik edo erakundeengandik, diru hori hautagai baten kanpaina bultzatzen erabiltzeko. Lege barrukoa da jarduera hau EEBBetan. Long Island Law Enforcement Foundation honek, berez, “Police Benevolent Association” izeneko uste oneko elkarte baten donazioak jasotzen ditu hain justu, eta, jakina, poliziaren “pribilegioak” mantendu eta babestuko dituzten hautagaiei laguntzeko erabiliko ditu funtsak. Hau guztia, berriz ere, legearen barruan. Baina susmoak daude Police Benevolent Association horrek nahitaezko donazioak jasotzen dituela polizien partetik, eta hori bai legearen aurka doala. Polizien artean gehiengo

batek PBA horren jardueraren aurka dagoela baina beldurragatik ezin dutela hitzik egin dio oposizioko politikari batek, eta PBA bera Suffolkeko administrazioko goi karguen ustelkeriaren ondorio bat dela.

Ustelkeria giro honen erdian eta Spotaren babespean, jarduera desegokiak izatera eta haietatik garbi irtetera ohituegia zegoen Burke. Urte askotan landutako inpunitate sentimendu honek hanka sartzera eramango zuen azkenean, halabeharrez. 2013ko maiatzean FBIk eta EEBBetako fiskalaren bulegoak haren aurkako ikerketa bat hasiko zuten eskubide zibilen urratzeagatik.

2012ko abenduan –Gilgoko lauren gorpuak aurkitu zirenetik urte bi igaro zirenean eta Shannan Gilberten gorpua aurkitu zenetik, bat- Christopher Loeb izeneko 26 urteko gazte batek zabalik zegoen GMC Yukon auto baten atzeko eserlekutik poltsa beltz bat lapurtu zuen, Suffolkeko Smithtown hirian. Heroina zalea zen Loeb eta honelako lapurretekin ordaintzen zuen bere adikzioa. Poltsa zabaltzean, polizia batenak ziruditen tresnak topatu zituen. Eskuburdirak, pimenta espraia eta pistola bat ere. Baina ez hori bakarrik, sexu jostailuak ere zeuden poltsa barruan eta, antza denez, zerbait ilunagoa iradokitzen zuen beste zerbait, nerabe gaztegiak protagonistatzat zeukan pornografia.

Egun gutxi geroago, abenduaren 14an, polizia talde batek Loeb modu bortitzean atxilotu zuen honen amaren etxearen aurrean. Lurraren kontra bota zuten eta bortizki zutiarazi zuten. Loeben ama kalera atera zenean, polizia autoan sartu eta Suffolkeko laugarren polizia-etxera eraman zuten, Hauppauge hirian. Bertan, lurrera kateatu zuten, ez zizkioten atxilotetaren arrazoiak azaldu eta ez zuen abokatu baten laguntza izan. Abokatu bat eskatu zuenean, “hau ez da Law and Order” erantzun zioten. Loebek argi zeukan indarkeria hark poltsa beltzarekin zerikusia izan behar zuela.

Galdeketa erdian James Burke agertu zen eta Loebi garrasika eta mehatxuka hasi zitzaion. Loeb masailetatik hartu eta buruan jo zuen. Lekukoek esango zuten bere ama bortxatuko zuela esan zion Loebi eta baita “hot shot” delako batekin hilko zuela, hots, heroina gaindosi batekin, eta inork ez zuela jakingo hilketa bat zenik. Loebek eskuak lurrera burdinekin lotuta zeuzkan, ezin zen inola defendatu, baina, kolpeka ari zitzaion astakirten hura poltsaren jabea zela ohartuta, zoraturako zuen irain bat bota zion. Gertakariari buruz informatu zuten hedabide gehienek iraina “perbertitu” izan zela esan zuten, baina, Loebek berak baieztatuko zuenez, “pedofilo” deitu zion Burkeri.

Burke hitz hori entzutean haserrez erotu zen eta kolpeka hasi zitzaion Loebi. Polizia batek gelditzeko arren eskatu behar izan zion Burkeri.

Gertakari hauen inguruan FBIk eta New Yorkeko fiskaltzak zabalduko ikerketaren dokumentuetan, James Burkek Loebek polizia etxean pairatutako gehiegikeriez gozatu zuela esaten da. Hurrengo egunetan, Loeb jipoitzen lagundu ziotenei bere “jauregiko guardiak” deitu zien Burkek eta gertakariak bere “egun zaharrak” gogora ekarri zizkiola esango zien lankideei. Eta horretan, tamalez, ez omen zebilen harropuzkerietan, sona hori baitzeukan Suffolkeko poliziak Burke bertara sartu zenean, laurogeiko hamarkadan. Izan ere, hilketen susmagarriak galdeketa %97ak aitortzen bukatzen zuen, EEBBko beste edozein departamentutan baino hiruzpalau puntu gehiago. Eta jakina, hori lortzeko edozein gauza egiten zutenaren zurrumurrua jendartean zebilen.

Burkek Loebekin izandako gertaeraren garai berean, esan dugunez, Spotaren bulegoak FBIren laguntza eskaintzari uko egin zion eta Burkek bere agintepeko ofizialak FBIrekin elkarlanean aritzetik baztertu zituen. Ez dago argi Loeberekin atxilotuta aurretik edo ondoren izan bazen, baina argi dago Burkek eta Spotak zer ezkutatu bazeukatela eta euren jardueraren gainbegiralerik ez zitzaiela komeni. Hurrengo hilabeteetan, Newsday egunkaria gertakariak hitz egiten hasi zenean eta FBIren ikerketa abian zegoenean, Burkek presio handia egin zien departamentuko lankideei, Loebekin gertatutakoa ostenduta gera zedin. Haietako batek FBIri esango zion Burkek jakin izan balu beraiekin hitz egiten zuela hilda zegokeela.

Hala eta guztiz ere, 2015eko abenduan, Burkeren aurkako hamar ofizialen lekukotza zeukala ziurtatu zion fiskal federal batek epaileari. Epailea bat etorri zen Burke jauna gizartearentzat arrisku bat zelako iritziarekin eta, nahiz eta urte bat baino gutxiago geratzen zitzaion erretiratzeko, Burke kargugabetu eta fidantzarik gabe atxilotu zuten –hori bai, kargugabetu ondoren, 434.750 dolar zor zizkion konderriak oraindik Burkeri, erabili gabeko opor eta gaixotasun denborengatik-.

Brooklyneko Metropolitan Detention Centerean gorde zuten Burke, urtetan zehar berak kartzelan sartu zituen presoengandik urrun. Burke isolatzeko taktika bat izan zitekeen erabaki hura, haren abokatuari ikerketa federalarekin elkarlanean aritzera behartzeko. Baina errugabe zela adierazi zuen Burkek eta bere abokatuak Justizia Departamentuarekin ez zuela inolako elkarlanik egingo.

Ordutik bi hilabetera, 2016ko otsailaren 26an azkenik, FBIren ikerketa luze baten ondoren, Leonard Wexler epaile federalaren aurrera eraman zuten Burke, kartzelako arropa grisak jantzita, orkatilak eta eskuturrak burdinez lotuta. Christopher Loeben eskubide zibilak urratzeagatik eta frogak ezkutatzeko konspiratzeagatik errudun jo zuten Burke.

Spota Distrituko Fiskalaren jardueren aurkako frogak ere lortuko zituen FBIk urteren joanean. Konderriko langile, politikari eta polizia ofizialak galdekatu ondoren, Suffolken ikerketak, salaketak edo salaketarik ez egoteko erabakiak maiz irizpide politikoen arabera hartu zirela aurkitu zuen FBIk. Zentzu honetan bost pertsona ezberdinen aitortzak bildu zituzten.

Hasteko, Oliva ofizialaren telefonoa 2014an legez kanpo zulatzeagatik ikertu eta itaundu zuten Spota. Zulatze hau Chris McPartland izeneko fiskal laguntzaileak egin zuen, ironikoki ustelkeriaren aurkako fiskala zena Suffolken, eta polizia departamentuan “Lord of Darkness” ezizenarekin ezagutzen zutena. Polizia departamentuaren barnean KGBaren garaiaren antzeko paranoia giro hau ohikoa zen, aipatu dugun egitura ustela mantentzeko bide bezala. Esaterako, Burkek berak ere, bere gaineko ikerketaren dokumentuetan esaten denagatik, GPS bat jarri zuen polizia komisarioaren autoan, hari xantaia egiteko asmoarekin.

Oliva detektibeak FBIrekin eta fiskalekin izan zituen elkarrizketa ugari grabatu zituzten Suffolkeko Distrituko Fiskalaren bulegotik. Olivak FBIrekin batera parte hartu zuen ikerketei buruzkoak ziren elkarrizketa haiek, zeinetatik Burkek baztertu zuen. Telefono zulatze hauengatik azalpenak eskatu zizkieten Spotari agintari federalek, eta honen bulegoko fiskal nagusietako bik, Brooklynen, EEBBtako fiskal Loretta E. Lynchen –EEBBtako Fiskal Jenerala izatera iritsiko zenaren- aurrean deklaratu behar izan zuten. Galdeketa zabarra izan omen zen. Konderriko fiskalek ez zuten damurik erakutsi, nahiz eta agerikoa izan entzun zituzten elkarrizketek ez

zeukatela zerikusirik euren ikerketekin. Are gehiago, ekintza kriminalekin zerikusia izateko susmorik ez zeukaten elkarriketetan, entzunaldia ez zutela eten aitortu zuten fiskalek, ohiko prozeduraren aurka joanez. Spotak berak adierazpen ofizial bat egin zuen, bere bulegoak zulatzei buruzko arau eta murrizketak une oro bete zituela esanez.

Aurrerago, 2016an, FBIk Suffolkeko alderdi kontserbadoreko lider Ed Walshen gaineko ikerketa bat hasi zuen, estatuko funtsak desbideratzeagatik. Ikerketa hau ere oztopatzen saiatu zen Spota, baina FBIk azpijoko horren zantzuak aurkitu zituen.

2017ko urrian Spota eta McPartland akusatu zituzten ikerketak oztopatzeagatik, lekukoak manipulatzegatik eta konspirazioagatik. 2017 azaroan dimisioa aurkeztu zuen Spotak eta 2019ko abenduan errudun jo zuten.

...

2015eko azaroan komisario berri bat izendatu zuen Steve Bellone Ahaldunak Suffolkeko polizia departamenturako, Timothy Sini, ordura arte fiskal federal bezala lan egindakoa. 35 urterekin, departamentuak inoiz izandako komisariarik gazteena zen Sini eta, lehen unetik, Suffolkeko administrazioaren gainean zegoen mesfidantza giroari aurre egin behar izan zion. Hasteko, izendatu zutenean, Newsday egunkariak haren eskarmentu eskasa nabarmentzen zuen artikulu batekin eman zion ongi etorria.

Burke kargugabetu zuten egunaren biharamunean, 2015eko abenduaren 11an, Gilgo Beacheko lehen gorpua aurkitu zeneko egunaren bosgarren urteurrenaren bezperan, prentsaurreko batean agertu zen Sini, FBIk LISK ikerketarekin bat egingo zuela iragartzeko.

-Lege indarren teknikak, hilketen ikerketenak bereziki, etengabe aldatuz doaz –azaldu zuen Sinik-, eta hilketa hauek argitzeko ahal den guztia egiten ari garela ziurtatu nahi dugu. FBIa mahai gainera ekartzea, bere eskarmentu eta baliabide guztiekin, norabide egokian egindako urrats bat da. Elkarrekin batera lan egitea, kasu korapilatsuak konpontzeko modurik hoberena da.

Baina badakigu FBI ez zela orduan iritsi LISK kasuaren gaineko ikerketara, oster, bueltan zen FBI. Dormer komisario ohiak eta Varrone detektibeen nagusi ohiak berretsiko zuten FBIk LISK kasuan lagundu zuela beraiek lanean ari ziren garaian, Dormer erretiratu eta Varrone erretiratzera behartua izan baino lehen. Garaiko FBIren arduradunen adierazpenak ere badaude elkarlana baieztatzen dutena. Burke eta Spota izan ziren FBI Suffolketik urruntzen ahalegindu zirenak, euren egitura ustela babesteko, eta horrela LISK kasutik baztertzea lortu zuten.

-FBI LISK ikerketan sartzea, departamentu barruko ikerketa guztien berrikuspen orokor baten zati bat da.

Burkeren gaineko ikerketak azaleratu zituen jarduera desegoki eta ustelek, Suffolkeko poliziaren lan guztia zalantzan jarri zuten.

Departamentuaren goitik beherako azterketa bat iragarri zuen Sinik eta gardentasuna areagotzeko ahaleginak egingo zituela. Suffolkeko polizia sare sozialetan aktiboagoa izango zen eta kazetarietarako harremana ere hobetu beharko zuen. Barne Arazoetako departamentuan

ofizial gehiagok lan egingo zuen, departamentuaren eta konderriaren sona zikindu zezaketen jarduerak ekiditeko. Eta, esan bezala, Sini fiskal federal ohia izanik, Suffolkeko poliziaren eta indar federalen arteko harremana eta elkarlana indartsuagoak izango ziren.

Gorpuak aurkitu zirenetik LISKen ikerketa gidatzen zuen hirugarren pertsona zen Timothy Sini. FBIaz gain bi detektibe jarri zituen Sinik kasuan eskusiboki lan egiten eta beste dozena bat aldizka. Lau urte igarota ere, oraindik kasuaren gaineko zantzuak egunero iristen zirela esan zuen, baina gehienak guztiz baliogabeak zirela –euren senarrak hiltzailea zirela uste zuten emakumeen deiak, gehienak-. Ikerketaren egoera zaila zela baina kasua argitu zitekeela sinesten zuen.

Hala ere, ez ote zen beranduegi izango? Lau urte, Burke izendatu zutenetik kargugabetu zuten arte. Lau urte, denbora preziatua. Zenbat froga deuseztatu edo ezkutatu ote ziren ikerketarako funtsezkoak liratekeen lau urte haietan? Nola jakin? Lau urte haietan galdutakoa berreskuratzeko gai izango ziren polizia gorputz ezberdinek? Edo Burke eta Spotaren ustelkeriak LISK kasua konponezina bihurtu zuen?

XI – 2013: URREZKO TXERRIA ETA NATASHA JUGO

2013ko urtarrilean bi urte igaroak ziren Gilgo Beacheko lau gorpua aurkitu zirenetik, urte bat Shannan Gilberten gorpua aurkitu zutenetik, James Burkek FBIa Suffolkeko poliziaren ikerketetatik aldendu zuen eta agentzia federala haren inguruko ikerketa bat hastera zihoan laster. Bada, hil horren 23an, bere txakurrekin paseoa zebilen andre batek emakumezko baten gorpua aurkitu zuen Long Islanden. Abarasken artean ezkutatuta zegoen gorpua, Nassau konderriko Lattingtown herrian, Oyster Bayko ipar hegitik gertu. 20 eta 30 urte artean omen zeuzkan hildako emakumeak, asiar jatorrikoa zen eta urrezko zintzilikario bat zeraman txerri baten irudiarekin.

Bi hilabete geroago, martxoaren 17an Natasha Jugo izeneko emakume baten autoa Ocean Parkway inguruan abandonatua aurkitu zuten eta haren arropa batzuk Gilgo Beacheko arean aurkitu zituzten. Bezperan bere etxetik irtetean ikusi zuten Natasha azken aldiz, Queensen. Desagerpen salaketa jarri zuen sendiak, buruko gaixotasunak jasandakoa zela azalduz. Deskribapenaren arabera 31 urte zeuzkan Natashak, 1,68 m neurtzen zituen, 60 kg pisatzen zituen, begi marroiak eta ile horia zeuzkan. Pijama arrosa bat zeraman desagertu zenean, jertse gris bat, beroki beltz bat eta bota beltzak ere. Ekainaren 14an Natasharen gorpua agertu zen: itsasoak Gilgo Beachen jaurti zuen.

Hiru urteren ondoren LISK berriz lanera itzuli ote zen? Ikerketak aurrera egiten ez zuela ikusteak eta poliziaren ageriko arduragabekeriak hauspotu ote zuten haren grina kriminala? Edo ez zegoen harremanik heriotza hauekin eta LISKen hilketekin? Natasharena ziurrenik ez zen hilketa bat izan eta suizidio itxura handiagoa zeukan, baina bestea hilketa bat zen, ezbairik gabe, eta antzekotasun handiegia zeukan LISKen beste hilketekin.

XII – 2014: JOE BITTROLFF

90ko hamarkadan bi serieko hiltzaile atzeman eta kartzelaratu zituzten Long Islanden, aipatu ditugun Robert Shulman eta Joel Rifkin, baina garai berean hirugarren bat ere aritu zen inguru berean, oso antzeko krimen lazgarriak egiten. Atzeman ez zuten hirugarren bat, 20 urtez atzeman ez zutena.

1993ko azaroaren 2an, 20 urteko Rita Tangredi azken aldiz ikusi zuten autostop egiten Montauk autobide bazterrean, Suffolkeko East Patchogue hirian. Hurrengo egunean, quad bat gidatzen zari zen gizon batek Ritaren gorpua aurkitu zuen, East Patchogueko baso batean, amaitu gabe abandonatutako eraikuntza batzuetatik hurbil.

Hilabete bi geroago, 1994 urtarrilaren 5ean, 31 urteko Colleen McNamee, hiru seme-alaben ama, azken aldiz ikusi zuten auto txiki urdin batean sartzen Suffolkeko Islandia hirian. Urtarrilaren 30ean Colleenen gorpua aurkitu zuten Suffolkeko Shirley hiriko baso batean, Ritaren gorpua aurkitu zuten lekutik 14 km-ra.

Poliziak jakinaraziko zuen biktima biak iraganean atxilotuak izan zirela prostituzioan aritzeagatik –berriz ere biktima “egokiak” emakumezko sexu langileen artean aukeratzen zuen serieko hiltzaile bat-.

Sexu gehiegikeriak jasan zituzten emakumezko biek, modu basatian kolpatuak izan ziren eta hil arte itoarazi zituzten. Hain basatiak izan ziren buruan jasandako kolpeak, garun masa irten zitzaiea ere. Gorpuak biluzik aurkitu zituzten eta, poliziaren esanetan, modu oso berezian jarriak biak. Hilketak bien arteko antzekotasunetan eta elkarrengandik hain hurbil, bai denboran eta bai distantzian, gertatu izanean oinarrituta, emakume biak hiltzaile anker bakar baten biktima zirela erraz susma zitekeen. Hala ere, behin betiko frogatuta aurkitutako DNA aztarnek ekarri zuten. Gizonezko baten beraren DNA aurkitu zen bietan –ez Rifkin, ezta Shulman ere ez zena.

Hilketa bion artean, 1993ko azaroaren 20an, oso antzeko hirugarren kasu bat gertatu zen. Sandra Costilla izeneko neska gaztearen gorpua aurkitu zuten, Suffolkeko North Sea herriko inguru basotsu batean –Rita eta Colleenen gorpuetatik 50 bat km-ra-. Sandraren gorpua beste biak aurkitu ziren modu berezian jarrita aurkitu zen ere, eta hiru kasuetan arropa jakin bat falta zela jakinarazi zuen poliziak –arropa hori zein zen ez zuten kaleratu-. Hortaz, hiru kasuen artean lotura zegoela susmatzen zuen poliziak, baina funtsezko frogak falta zen Sandra Costillaren kasuan: ustezko hiltzailearen DNA.

Hiru hilketak hauek “kasu hotz” bihurtu ziren, alegia, ez zen haien egilea atxilotu ezta identifikatu ere denbora luzean. Kasu hotzak izan ziren hirurak, harik eta 2013an poliziak Timothy Bittrolff izeneko Long Islandeko bizilagun bat atxilotu zuen arte. Urruntze agindu bat urratzeagatik errudun jo zuten Bittrolff, hilketekin inolako zerikusirik ez zeukan arrazoi batengatik, baina kondena honengatik bere DNAREN lagin bat ematera behartua izan zen, New York estatuko 2012ko lege batek halaxe ezarri berri zuelako.

Timothy Bittrolffen DNA Suffolkeko poliziaren erregistroetan agertzen ziren laginekin erkatzean, Rita Tancredi eta Colleen McNameeeren hiltzailearenarekin antz handia zeukala aurkitu zen. Timothy ez zen bi emakumeen hiltzailea, baina guraso berberak zeuzkan norbait izan behar zela ondorioztatu zuten adituek. Timothy Bittrolffen anaien DNA lortu behar zuen Suffolkeko poliziak. Baina nola, legez ezin baitzen inor behartu bere DNA ematera, delitu batengatik kondenatua izan ez bazen.

Anaia batek etxeko leihotik jaurti zuen zigarro-punta batetik eskuratu zuten haren DNAREN lagin bat, baina kasu honetan ere antzekotasun handia zegoen baina ez %100eko berdintasuna. Beste hirugarren Bittrolff anaia baten zaborrontzia miatu zuten DNA bila, baina ez zuten aztarna nahikorik aurkitu. Hirugarren anaia hau, Joe Bittrolff, polizia etxera eraman zuten galdeketa bat egiteko aitzakiarekin, eta ur edalontzi bat jarri zioten eztarria hezetzeko. Galdeketaren erdian Joe Bittrolffek edalontzitik edan zuen eta halaxe lortu zuten haren DNAREN lagin erabakigarria. "Arrainak txalupa barrura jauzi egin balu bezala" deskribatu zuen une hura poliziaren detektibe batek.

Jakina, DNAREN analisisiek Rita Tancredi eta Colleen McNameeeren hiltzailea Joe Bittrolff zela frogatu zuten.

2014ko uztailen atxilotu zuten Joe Bittrolff. 48 urte zeuzkan orduan -28 izan bide zituen hilketen garaian-, Suffolkeko Manorville herrian bizi zen, bi seme-alaben aita zen eta arotz bezala lan egiten zuen -bizimodu arrunt bat izatea, gizarte eta familia arteko harreman normalekin, serieko hiltzaileen ohiko ezaugarri bat omen zen, FBIko adituek jakitera eman zutenez Gilgo Beacheko gorpuak aurkitu zirenean-.

Orduan oraindik Suffolkeko Distritoko Fiskala zen Thomas J. Spotak adierazi zuen frogatutako bi hilketen eta Sandra Costillaren hilketaren artean lotura handia zegoela, nahikoa azken hau ere Joe Bittrolffen lana zela susmatzeko. Bestalde, Tangredi eta McNameeeren hilketak LISKen hilketekin lotzen zituen zantzurik edo ikerketa haririk ez zegoela baieztatu zuen Spotak. Gorpuetatik jasotako zantzuak, gorpuen jarrera aurkitu zituztenean eta krimenaren eszena osoa, guztiz bereziak ziren Rita eta Colleenen kasuetan, eta Ocean Parkwayko krimenen eszenetatik erabat ezberdinak.

Edonola, Rita Tangredi eta Colleen McNameeeren hilketengatik soilik epaitu zuten John Bittrolff. 25 urte eta bizitza osora arteko bi kartzela zigor ezarri zizkioten.

Sandra Costillaren hilketarengatik ez da, egun, atxiloketa ezta salaketarik egin.

Hori al da guztia? Benetan? Hain erraz baztertu daiteke John Bittrolffen parte hartzea LISKen hilketetan? LISK kasua ezagutzen duen edonork antzekotasun gehiegi suma ditzake Bittrolff eta LISKen hilketen artean, biak hiltzaile bakar bat direla susmatzera bultzatzen. Hasteko, biktima mota bera aukeratu zuten biek, hots, prostituzioan aritzen ziren eta drogekin arazoak zeuzkaten neska gazteak. Are gehiago, hilketa modua ere bat bera izan zen, hiltzeraino itoarazi baitzituzten euren biktimak bai LISKek eta bai Bittrolffek. Denboran elkarrengandik oso aldenduta aritu zirela Bittrolff eta aurpegirik gabeko LISK esan lezake norbaitek, baina gogoan izan beharra dago LISKek 1996 eta 1997an hil zituela bere lehen biktimak -Bittrolffen krimenetatik bi urtera-. Manorvillen bizi zen gainera John Bittrolff, LISKen bi biktimen gorputz

enborrak aurkitu ziren herrian. Benetan ez zegoela bi hilketak multzoak lotzen zituen ikerketa haririk? Benetan, Spota jauna?

Hau guztia nahikoa ez balitz, lotura gehiago agertu ziren bi krimen multzoen artean, kasualitate hutsak izan zitezkeenak, baina kasuak ezagutzen zituen edonork kasualitate gehiegi bazeudela esango luke eta haietako bat ere ezin zela aztertu gabe baztertu: Interneteko webgune batean – “Mary Murphy Mystery”- kaleratu zen Rita Tangrediren alaba eta Melissa Barthelemy adiskide minak izan zirela, Buffalon hazitakoak baitziren biak. Gainera, Lynn Barthelemyk, Melissaren amak, kontatuko zuen bere alabak Manorville ingurutik egindako dei ugari zeuzkala bere sakelakoan, desagertu aurreko egunetan.

Thomas Spota Distrituko Fiskalaren adierazpenek ez omen zuten ikertzaileen iritzia ahobatezkoa islatzen: 2017ko irailean –Spotaren aurkako ikerketa oso aurreratua zegoenean- distrituko fiskalaren laguntzaile batek, Robert Biancavillak, John Bittrolffek Ocean Parkwayko hilketetako batekin harremana izan zezakeela jakinarazi zuen. Hamar biktimetatik zeinari buruz ari zen ez zuen zehaztu Biancavillak, baina haietako baten gorpuzkiak Bittrolffen lana izan zitezkeelako zantzuak bazeudela ziurtatu zuen eta horren gaineko ikerketa bat abian zegoela. Abian zeuden ikerketei buruz adierazpenik ez zutela egiten esan zuen poliziak orduan.

Egun, Biancavillaren adierazpenetatik hiru urte igaro direnean, ez da Bittrolffen aurkako akusazio berririk egin.

XIII – 2016: SARRA GILBERT

Burke eta Spotaren jarduera ustelez eta Bittrolffen hilketen gaineko ikerketaz aritu garen bitartean, alde batera utzi ditugu une batez Mari Gilbert eta bere alaben samina eta sumina. Haiengana itzuli behar dugu, Baden doktoreak egindako autopsiaren ondoren Gilbert familian gertatutakoa jakiteko, haien nekaldiak Shannanen ehorzketarekin ez zirelako bukatu.

Lau ziren Mari Gilberten alabak, Shannan, Sherre, Sarra eta Stevie, gazteena hau eta bere aitaren abizena zeraman bakarra. Kontatu dugu nola Mari hiru alaba nagusien aitarengandik banandu zela eta, arazo ekonomiko larriak izan zituen, Shannan gizarte zerbitzuen babesean utzi zuela eta harrera etxeetan hazi zela hau. Orain arte kontatu ez duguna, desagerepenarekin eta hilketekin zerikusirik ez zeukalako, eta “Lost Girls”-ek, gaiaren inguruan Netflixek ekoitzi duen filmak, ezta aipatzen ez duena, zera da: Marirekin geratu ziren bi alabak, Sherrek eta Sarrak, Mariren mutil lagun berri baten eskutik –Stevieren aita omen- sexu gehiegikeriak jasan zituztela.

Trauma handia izan zen hirurentzat, ama zein alabentzat, baina Sarrarengan izan zuen eraginik handiena, ordutik aurrera arazo psikologiko larriak izango baitzituen. Abortu bat izan zuen Sarrak 14 urterekin eta 16rekin bere mutil lagunarekin bizitzera joan zen, Manny izeneko 22 urteko droga saltzaile bat zena. Erraz irudika daiteke harremana nolakoa izango zen. Seme bat izan zuten 2009an, Hayden. Etengabe harremana apurtzen eta elkarrekin bueltatzen ziren. Manny kartzelan sartu zuten ere drogak saltzeagatik. Sarrak azkenean indarkeriaren biktimentzako aterpetxe batean amaitu zuen.

Shannanen gorpua aurkitu zutenean, Sarra ez zegoen neurri horretako beste trauma bat jasateko prestatuta. Sarra aztertu zuen psikiatra batek, Alexander Bardey izenekoak, esan zuen bere ahizparen gorpuzkien aurkikuntzak Sarra traumatizatu zuela eta antzinatik ezkutatuta zeuzkan zaurgarritasuna eta haserrea azaleratu zizkiola.

Oso agerikoak ziren buruko krisialdi horren sintomak. 2013ko amaieran, American Music Awards ikusten ari zela, Beyonce edo Rihannaren abestiak Shannanek eta berak idatzi zituztela sinesten hasi zen Sarra –gogora dezagun Shannan abeslari edota kantugile izan nahi zuela, horretarako ageriko gaitasunak baitzeuzkan-. Laster, maite zuen jendea deabruak hartuta zeudela sinesten hasi zen. Shannan hilik ez zegoela esaten hasi zen eta edonori begietara begiratzuz gero deabruak hartua ote zegoen jakin zezakeela. Jainkoa zela esaten hasi zitzaion jendeari eta bere lana deabru gaiztoak menderatzea zela. Eta deabruak sarritan bere ama eta ahizpen itxura hartzen zutela.

2014ko urtarrilean Marik eta Sherrek Sarra bisitatu zuten. Honek, biak deabruak zirela garrasi egin zuen eta Mariri eraso egin zion. Polizia bertaratu behar izan zen eta Sarra ospitalera eramán zuten. Otsailean eta uztailean berriz itzuli behar izan zen ospitalera antzeko krisialdien ondoren. Eskizofrenia paranoidea diagnostikatu zioten eta auzitegi baten aginduz antipsikotiko bat hartzen hasi zen, Haldol Decanoatoa. Horri esker ospitaletik kanpo egon ahal izan zuen 2015 urte osoan zehar. Baina Shannanen gorpuzkiak bigarren aldiz aztertu zirenean, Baden forentsearen eskutik, Sarrak gainbehera psikiko berri bat izan zuen. Tratamendua hartzeari utzi

zion eta beste droga batzuk hartzen hasi zen, marihuana batez ere, baina estasia baita. Deabruak berehala itzuli ziren.

2016ko otsailean Sarrak etxeko txakurra bainuontzian ito zuen. Mariri deitu zion eta bera, Mari, txakurra hil behar izanaren arrazoia zela esan zion. Etxera joan zitzaion Mari, Hayden hartu eta poliziari deitu. Ospitalera eraman zuten berriz Sarra, baina oraingoan hain oldarkor agertu zen ezen poliziaren ospitale batean sartu behar izan zutela.

Udaberrian, ospitaletik irten zenean, aurrerantzean Hayden Marirekin biziko zela jakin zuen Sarrak.

Haydenen zaintzailea ez zenez, Sarrak ez zuen gizarte laguntzarik jasoko. Diru gabe eta haserre zegoen Sarra. Ez zuen medikazioa hartzen. Gaindosi bat hartu zuen uztailean, hain larria koma bat eragin behar izan ziotela bere buruari kalte egin ez ziezaion.

Ospitaletik bueltan, geroz eta isolatuagoa zegoen Sarra. Mari eta Sherre bisitan zihoazkionean ez zien atea zabaltzen.

2016ko uztailaren 23an, gau osoa lo egin gabe igaro ondoren, bere ahizpari deitu zion Sarrak, ahotsak entzuten zituela esateko. 911ra deitzeko esan zion Sherrek, edo Mariri behintzat, laguntza eske. Ospitalera itzuli nahi ez zuenez, Mariri deitzea erabaki zuen Sarrak. Baina hura iritsi baino lehen, 45 cm-ko aitzo bat eta su-itxalgailu bat ezkutatu zituen sofaren kuxinen azpian. 10:30ak inguruan iritsi zen Mari eta sofan eseri ziren biak, bata bestearen parean. Deabru gaizto bat ote zen galdetu zion Sarrak bere amari. Marik zer erantzun zion ez dago argi Sarraren adierazpen ezberdinetan.

Mari Haydenen argazki bat hartzeko makurtu zenean, lehen labankada sartu zion.

Mariri labankadaka jarraitu zuen Sarrak. Marik gelditzeko eskatzen zion, arren. Lurrera erori eta mahai baten azpian babestu zen Mari. Sarrak handik atera zuen, haren gainean eseri eta labankadak ematen jarraitu zuen, biriketan, bihotzean... hil nahian.

Mariren telefonoak jo zuen. Sherre zen. Sarrak telefonoa itzali zuen. Estintorea hartu eta Mariri buruan kolpe eman zion harekin, behin baino gehiagotan. Marik oraindik arnasa egiten zuela ustez, su-itxalgailu edukia Mariren ahoan hustu zuen Sarrak. Ondoren idunean labana sartu zion, ziurrenik burua mozteko asmoarekin.

Sarraren etxeraino hurbildu zen Sherre eta atean zein leihoetan jo zuen. Erantzunik ez zuenez lortu poliziari deitu zion, bere ahizpak ahotsak entzuten zituela esanez.

Odoletan blai, Sarrak prakak erantzi eta ohe gainean etzan zen. Zigarro bat erre zuen eta musika entzuten egon zen polizia iritsi arte. "Atxilotuta nago" izan ziren bere lehen hitzak.

Aiztoaren punta apurtuta zegoen eta haren orriak 90 graduko angelu bat zeukan. 227 labana zauri zenbatu zituen forentseak Mariren gorpuan, haietako asko burua babestu nahian eskuetan eta besoetan egindakoak.

Argi zegoen Sarrak buruko gaixotasun bat zeukala, eskizofrenia paranoidea hain zuzen ere, adituek diagnostikatu, baina EEBBko legediaren arabera hori ez zen nahikoa errugabetasun

epai bat lortzeko. Sarraren aurkako epaiketan, Emmanuel Nnejik fiskalak, Sarrak ongia eta gaizkia ezberdintzen bazekiela defendatu zuen. Argudio bezala, Sarrak urtetan egunero bere semea eskolara eraman zuela esan zuen fiskalak, hura elikatu eta etxeko errenta behar bezala ordaindu zuela ere. Sarra desorekatua ez zegoela defendatu zuen fiskalak, egunero leku berean kafea hartzen zuelako eta ez zuelako inoiz istilurik sortu. Laburbilduz, ez zela hiltzaile geldiezin bat, haren ahizpa Sherre eta Stevieri ez baitzien sekula eraso egin, nahiz eta hauek ere deabruak zirela esan.

Fiskalaren ustean, Mari Gilberteren hilketa pasio krimen bat izan zen, drogek hauspotua ziurrenik, urtetan zehar amaren aurka bildu zuen erresuminaren leherketa. Marik Sarraren semearen zainketa eskuratu izana, eta horrekin batera gizarte laguntzena, bere amaren azpijoko bat bezala sentitu zuen Sarrak. Horretaz gain, hoben historiko gehiago ere bazeuzkan Marik: Sarra eta Sherreren aurkako sexu gehiegikeriak ez eragozteak, haiek babestu ez izana, Shannan bere ahizpetatik urrunduta bizi zedila baimentzea... Egun hartan gertatutakoa aspaldidanik planeatuta zeukan Sarrak, Nnejik fiskalaren ustez. Aiztoa eta su-itxalgailua aldeztatik ezkutatu izana horren froga zen.

Stevie ahizpa gazteak ere hilketa drogen ondorio izan zela defendatu zuen auzian, ez buru gaixotasun batena, aspaldiko gorrotoaren emaitza baizik.

Errudun jo zuen Sarra epaimahaiak eta orain 25 urteko kartzela zigorra betetzen ari da.

Hayden aitaren senideekin bizi da.

XIV – 2020: GERALDINE HART

Hamar urte joan dira Gilgo Beacheko gorpuak aurkitu zirenetik, Shannan Gilbert desagertu zenetik. 24 urte LISKen biktima zaharrena aurkitu zenetik. Eta oraindik ez dago atxiloturik. New York estatuaren historiako argitu gabeko hilketak kasurik handiena bihurtu da LISK kasua.

2020ko urtarrilean Suffolkeko polizia departamentuko komisario berriak kasuaren inguruko zantzu berriak ezagutaraziko zituela iragarri zuen. Geraldine Hart zen komisario berri hau, emakumezko bat azkenean, LISK kasuaren ikerketaren laugarren arduraduna. 2018ko apirilean hartu zuen Geraldine Hartek Suffolkeko polizian kargua eta aurretik FBIren agentea izandakoa zen. Antza denez, Burkere eta batez ere Spotaren gaineko iskanbila azaleratu zenean, Timothy Sini ez zen pertsona egokiena Suffolkeko polizia departamentuan beharrezkoa zen eraberritze sakona aurrera eramateko, fiskaltzatik baitzetozen. Egokiago zirudien, Spota eta Burke ustelek Suffolkeko poliziatik urrunduta mantendu zuten FBItik zetorren norbait.

Arnas berria eragin nahi zion Hartek LISK kasuari.

Urtarrilaren 26ko prentsaurrekoan aurkeztu zuen zantzua gizonetzko gerriko bat zen, bi hizki larri grabatuta zeuzkana: “HM” edo “WH” izan zitezkeen hizkiak, goitik behera edo behetik gora begiratzuz gero. Gorpuetakoa batetik hurbil aurkitu zela gerrikoa esan zuen komisarioak eta hiltzaileak maneiatu zuela sinesten zuela poliziak. Zein gorpuren parean aurkitu zen ez zuen zehaztu Hartek. Zergatik hainbeste urtetan ezkutatuta izan zuten gerrikoa eta zergatik orain erakusten zuten galdetu ziotenean, hau zela une egokia erantzun zuen Hart komisarioak, beste barik.

Kasuaren inguruan informazioa lortu edo eskaini nahiko lukeen edonorentzat web orri bat ere abian jarri zutela jakinarazi zuen Hart komisarioak (www.gilgonews.com). Zoritxarrez weborri hori laster itxi zuten.

Kontatu beharra dago, Geraldine Harten prentsaurrekoaren egun berean, John Rayk beste prentsaurreko bat eskaini zuela, Harten adierazpenak “desegoki eta arduragabeak” zirela esateko. Izan ere, Harten prentsaurrekoa Netflixek “Lost Girls” filmaren trailerra kaleratu zuen egun berean egin zen eta, jende askorentzat hau arraroa bazen, Rayren haserrea agian protagonismoa kendu ziotelako izan zitekeen.

“Lost Girls” filma, izen bereko liburu batean oinarritua, LISK kasuaren inguruko fikzionalizazio bat da, baina Shannanen desagertzearen zentratua eta Mari Gilberten ikuspegitik kontatua. Filmean Mari Gilbert justizia bila borrokatzen duen ama kuraia bat bezala agertzen da, bere alabarentzat eta Gilgoko lau biktimen aldeko justizia bilatzen duena. Gilgoko laurak Mari Gilbertekin izan zuten harremanaren harira soilik agertzen dira filmean, eta LISKen gainerako biktimak aipatu ere ez dira egiten. Mari Gilberten benetako historiaren alderdi batzuk ere ahazten dira filmean: laugarren alaba, Stevie, ez da aipatzen, ziurrenik ez zuelako baimenik eman –John Ray bere abokatua ez delako, agian?–; Sarra eta Sherre arraza zuriko aktoreek interpretatzen dituzte, eta Mariren hilketaren inguruko xehetasunak ezta ez dira ematen.

Netflix kateak ekoizitako telefilm batek holako narrazio simple eta azpimarratua behar du, jakina, baina Mari Gilberten hagiografia honen atzean John Rayren eskua sumatzea ez da zaila. Horregatik haren haserrea Geraldine Hart komisarioak LISKen hilketen gaineko ikerketa abian zela gogoratzera irten zenean. Rayk ezingo zuen berriz errepikatu bera zela “neska horien” alde justizia bila jarraitzen zuen bakarra.

Mari Gilberten hilketaren ondoren ere, John Ray abokatuak Shannanen kasua argitu nahian – errudun bat eta kalte ordain bat aurkitu nahian- jarraitzen du, nahiz eta Hacketten aurkako auzian arrazoa ez zioten eman. Shannanek 911ra egindako deia kaleratu beharko zela defendatzen jarraitu du. Dei horretan kasua argitzeko funtsezko informazioa egon behar zela sinesten zuen Rayk eta poliziak ez zuela deia argitara atera nahi zerbait garrantzitsu ezkututzen ari zelako. Azkenean, 2020ko maiatzean, epaile baten aginduz Shannanek 911 zenbakira egindako 23 minutuko deia entzuteko aukera izan du John Rayk. Entzundakoa kaleratzea debekatu zion epaileak, baina Shannanen ahotsean beldurra sumatzen zela esan zuen Rayk... Ikerketaren hasieratik bagenekien zerbait.

LISK kasua bizirik zegoela aditzera emateko Geraldine Hart komisarioaren ahalegina ez zen urtarrileko prentsaurrekoan gelditu. 2020ko maiatzaren 29an, COVID gaitzak eragindako itxialdiaren erdian, bideo bitartez eginiko adierazpen batzuetan, urte askotan LISK kasuak izandako aurrerapenik nagusia argitara eman zuen komisarioak: ordura arte Jane Doe 6 edo Manorvilleko Jane Doe bezala ezagutua zen biktimaren benetako identitatea ezagutarazi zuen.

Valerie Mack zen identifikatu gabeko biktima, New Jersey bizi zen, ama zen eta 24 urte zeuzkan 2000. urtean desagertu zenean. Prostituzioan lan egiteagatik atxilotu zuten Philadelphian, desagertu baino hilabete batzuk lehenago, eta Melissa Taylor izena ere erabiltzen zuen bere lanean. Ez zeukan Long Islandekin inolako loturarik, baina horretan bat zetorren LISKen biktimetako askorekin, prostituzioan aritzen ziren neska gazte txikiak, New Yorkera beste estatu batzuetatik heldutakoak. Gogoratzen dugunez, haren gorpua 2000. urteko azaroaren 19an aurkitu zuten ehiztari batzuek Manorvilleko basoetan, zatikatua eta plastikozko poltsetan sartuta. Haren burua, eskuak eta hanka bat 2011ko apirilaren 4an aurkitu zituzten Ocean Parkway bazterrean, plastikozko poltsetan ere.

-20 urtez Valerie Macken sendia eta lagunak erantzunak itxaroten egon dira eta, nahiz eta hau ez izan haiek nahiko zuten emaitza, nolabaiteko bake eta itxiera sentimenduak ekarriko dizkiela espero dut –adierazi zuen Mack komisarioak prentsaurrekoan.

FBIri eskerrak eman zizkion Hartek, LISK kasuan erakusten ari zen elkarlanagatik eta Suffolkeko poliziarik lagundu ziolako Valerie Mack identifikatzen, “genealogia genetiko” izeneko teknika zientifikoaren bidez. Jakitera eman zutenagatik, lehen aldian zen hura genealogia genetiko erabiltzen zuela poliziak, New York estatu osoan, hilketa kasu batean pertsona bat identifikatzeko.

2018an, Hartek karguan bi aste baino besterik ez zeramatzanean, Kaliforniako poliziak urte askotan argitu gabe egondako hilketa eta bortxaketan “kasu hotz” bat argitu berri zuela jakin zuen. DNA aztertzeke teknika berriei esker, 72 urteko Joseph DeAngelo “Golden Stateko

Hiltzailea” zela frogatu zuten, eta zortzi hilketen errudun jo zuten. DNA datu base pribatuetako informazioa eskuratuz lortu zuten hiltzailea identifikatzea. Geraldine Hartek LISK kasuan ere teknika berbera erabili beharko zutela erabaki zuen, baina errealitatea beti uste baino konplexuagoa zen.

Hasteko, Golden Stateko hiltzailearen kasuan ez bezala, LISK kasuan ez zen biktimetako batean ere haren ustezko hiltzailearen DNA aztarnarik aurkitu. Hori bai, biktimen DNA bazeukaten, identifikatu gabekoena ere, eta biktimen identifikazioak hiltzailearenganaino gida zezakeen.

Hurrengo oztopoa New York estatuko legedia izan zen, EEBBtako murriztaileenetarikoa DNAREN erabilerari dagokionez. Beste estatu batzuetan polizia enpresa pribatuen eskuetan dauden datu baseetan sar daiteke, baina ez New Yorken. Oztopoa gainditzeko funtsezkoa izan zen FBIren elkarlana, Harten lankide ohiena. FBI behin ofizialki LISK kasuko ikerketan partaide izendatuta, agentzia federalak Suffolkeko poliziak lortu ezin zuen informazioa eskura zezakeen DNA datu base pribatuetatik. Horrela, Valerie Macken izeko batek enpresa pribatu horietako bati eman zion DNA lagin bat aurkitzean, Jane Doe 6 identifikatzea lortu zuten.

Hainbeste urteren ostean, bi eguneraketa hauek –gerrikoa eta biktimetako baten identifikazioa-, errudun bat identifikatzera eraman ez bazuten ere, LISK kasua Suffolkeko poliziaren lehentasun nagusia zela frogatzeko balio zuten.

-Eskura ditugun ikerketa baliabide guztiak erabiltzen jarraituko dugu kasu hau sakonki ikertzeko –gaineratu zuen Hartek maiatzeko prentsaurreko hartan.

Edonola, argi dago Harten ardurapean LISK kasuaren gaineko informazioa zuhurtzia handiz maneiatuko dela. Norbaiten oroimenean argiren bat piztuko zuelakoan kaleratu zuen gerrikoaren informazioa, baina orain arte ez dakigu nolako emaitzak ekarri zituen argitaratze horrek. Valerie Macken identifikazioa ere aurrerapen handia izan zen eta publikoari frogatu zion kasua bizirik zegoela. Baina hortik aparte isiltasuna eta zuhurtzia dira Geraldine Harten jarreraren ezaugarriak. Iraganean kasuaren gaineko informazio gehiegi plazaratu zela uste omen du komisarioak. Gehiegizko informazio horrek hiltzaileari zantzuak ezkututzen lagundu bide zion, edo zantzu faltsuak erakarri bide zituen, ikerketa bide okerrak zabaldu zituztenak. Une honetan Suffolkeko polizia departamentutik ez dute baieztatzen ikerketaren hasieran hedabide guztietan zabaldutako kasuari buruzko xehetasun asko, hala nola biktimen heriotzen kausa edo arpilera zakuetan bilduta aurkitu zirenik.

Une honetan ez dago argi polizia gardenegia izan ote zen ikerketaren hasieran, gorpuak aurkitu ziren garaian, edo hedabideak garai hartan zurrumurrus elikatu ote ziren eta oihartzun bidez desinformazioa hedatu ote zuten.

Hartek ez du ezta poliziaren ikerketa lerro ofiziala hiltzaile bakarrarena edo anitzena ote den zehaztu. Hala ere, bere urtarrileko prentsaurrekoan “hiltzaile” hitza aipatu zuen, bakarra.

Eta baieztatu ez duen beste datu bat zera da, Shannan Gilberten heriotza LISKen hilketekin lotutako beste bat bezala ikertzen ari direnez. Antza denez, ikerketa lerro ofizialaren arabera Shannan ezbeharrez hil zen, baina Suffolkeko poliziak ez du kasua oraindik itxi. Zalantzak omen dauzkate oraindik.

Argi dago kasu biak betirako lotuta egongo direla, eta baita ere lotura horrek bakoitzaren ikerketari kalte eragin diola hamar urte hauetan. Shannan ez bazen LISKen biktima bat, haren izena eta haren heriotza kasuaren inguruko informazio guztien erdian agertu izanak, beste biktima guztien gainean itzal bat ezarri zuen eta, ziurrenik, ikerketaren esfortzuak eta lehentasunak desbideratzen lagundu zuen. Bestalde, Shannan LISKen biktima bat ez zela frogatu beharrak, agian, ezbehar bategatik hil zela azkarregi ondorioztatzera bultzatu zuen, eta bere ihesaldi eroan erasotzaileraren batekin gurutzatu zenaren posibilitatea ere azkarregi baztertzeraz.

...

Bitartean hamar hilketa biktima dauzkagu justiziaren zain: Melissa Barthelemy, Megan Waterman, Maureen Brainard-Barnes, Amber Lynn Costello, Jessica Taylor, Valerie Mack, eta izengabeko Peaches, honen alabatxo Baby Doe, John Doe eta Jane Doe 7.

Hamar? Bakarrik? Eta "Cherries", Mamaroneck hondartzako Jane Doe? Eta Tanya Rush? Hauen bien heriotzak, 2007an eta 2008an gertatutakoak, LISKen hilketekin antzekotasun gehiegi gordetzen dituzte haren krimenen zerrendatik kanpo uzteko. Hamabi lirateke biktimak.

Eta urrezko txerriaren zintzilikarioa zeraman emakumea, 2013an hilik aurkitu zutena? Hamahiru biktimez ari ote gara?

Eta Shannan bera? Hamalau ote dira biktimak?

Eta ziur John Bittrolff ez dela LISK? Benetan ez dutela haren aurkako frogarik aurkitu LISKen hilketen ikerketan?